

ttipi-ttapa



BESTA GIRO BETEAN

Maiatzetik herriz herri dabil besten lekukoa, eta hemendik aitzinera ez du geldialdirik egingen. Ate joka direnak Doneztebeko eta Erratzuko bestak, eta Azpilkuetako eta Lesakako sanferminak dira. / 19

Euskarabenturarako prest

Uztailaren 1ean hasi eta 31n bukatuko da aurtengo Euskarabentura espedizioa. Eskualdeko hiru gazte izanen dira tartean. / 12



Begoña Arrizurieta
duela sei urte
diagnostikatu zioten
leuzemia / 10



Haira Aizpurua
Euskal Herriko
Eskolartekoan
txapeldun / 33



Saioa Ligosek
diseinatu du
Baztandarren
Biltzarrako kartela / 48



Elias Pierola
almandoztarraren
pilota ibilbideari
errepassoa / 58

KULTUR

2024 ekainak 21 | irailak 28 | **UDAKO KULTUR PROGRAMAZIOA**

UZT

OSTIRALA
19
20.00

DOÑAMARIA
Jauregia

IÑAKI DIÉGUEZ ETA XABIER LETURIA
Pepito Yanci, Beti Bizi

LARUNB.
20
20.00

BERA
Tallentxeako lorategiak

XABI ZEBERIO
Pause

LARUNB.
27
12.00

ZUGARRAMURDI
Zugarramurdiko kobazuloak

BAZZKUN PROIEKTUAK
Eguzkilore; un concierto de jazz mitológico

IGANDEA
28
12.00

LEKUNBERRI
Plaza

GAITA BRASS
Del origen

ABU

LARUNB.
3
19.30

ELIZONDO (BAZTAN)
Plaza

QABALUM
Todo ese ruido

IRA

IGANDEA
8
20.00

LEITZA
Herriko Eparantza

ANARI
Giza Zarata



PROGRAMA
COMPLETO
CASTELLANO



EUSKARA
PROGRAMA
OSOA



NIRE TXANDA

MIEL M. ELOSEGI IRURTIA LUZE

Aurreikuspen txarrak

Aspaldi hasi ziren zientzialariak eta ekologistak klima larrialdiari buruzko berri latzak ematen. Zalaparta handia sortu zuten. Tenperaturek gora egingen zutela esan zuten, bero bolada luzeak gero eta maizago etorriko zirela, lehorte luzeagoak. Poloetako izotzak urtzeko arriskua omen zegoen, glaziarrek desagertu, itsas maila igo, ura azidotu... alegia, sekulako berri txar pila. Denbora joan ahala zailagoa bilakatzen da aurreikuspen haietako bakoitza zertan gelditu zen esatea. Baina... asmatu al zuten?

Asko laburtuz, ez. Motz gelditu ziren. Aurreikusitakoa baina askoz ere azkarrago gertatzen ari dira aldaketa hauek guztiak eta baita aurreikusi ez ziren beste asko ere.

Bazterrak suntsitzeko gaitasun harrigarria erakutsi du gure espezieak, bere burua arriskuan jartzearaino. Suntsitutakoa bere onera ekartzeko ahalmenik erakutsiko al dugu inoiz? Gai izanen al gara gizarte kamikaze honen martxa zuzentzeko? Hala komeni!

«GAI IZANEN GARA GIZARTE KAMIKAZE HONEN MARTXA ZUZENTZECO?»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Bukatu da besta

Herriz herriko besten zirimolan murgildu garen honetan besta bukatu dela erakutsi digute Europako Parlamentuko hauteskondeek. Abascalen Voxen ahotsa goiti, Le Pen garaile Ipar Euskal Herriko herri gehienetan... Beharrik Beloradoko Moja Iraultzaileen Alderdirik ez den aurkeztu, Bruselarako bidean ziren dagoeneko bertzela, obispo eta guzi! Gaixoa ni!

NABARMENTZEKOAK



ANNE GARMENDIA
ELIZONDOKO IKASLEA



HAIRA AIZPURUA
SARAKO BERTSOLARIA

Nafarroako Unibertsitate Publikoak Jaime Brunet sariak banatu eta hiru ikasle saritu ditu haien Gradu Amaierako Lanengatik, tartean Anne Garmendia Zubikoa elizondoa.

Arantzan jokatu zuten Euskal Herriko Eskolarteko Bertso Txapelketa eta hirugarren aldiz nagusitu zen Haira Aizpurua Ibargarai bertsolari saratarra. Zorionak!

GIBELERA BEGIRA



2014-06-26 · TTIPI-TTAPA · 617 zk.

Boluntario taldeen ezinbertzeko lana

Elkarrizan eta Bidelagun elkarteko boluntarioak izan ziren protagonistak duela 10 urteko aldizkarian. Paseorako lagun, irakasle, edo gidari aritzen ziren, euren denbora bertzeei emanez trukean irabazi ekonomikorik hartu gabe. Eskualdean bi taldetan aritzen ziren: Bortzirietakoak Elkarrizaren eta Baztan, Malerreka eta Bertizaranakoak Bidelagunen. Isidro Herguedas Bidelaguneko arduradunak horrela azaldu zuen beren lana: «Boluntarioak ez gaude beste inork lana kentzeko, dohainik egiten dugu egiten dugun guztia. Pertsona jakin batzuei bertzenaz eskuratzen ez duten zerbitzu bat eskaintzea da gure helburua». Hainbat boluntarioren iritzia bildu zuen aldizkariak, eta denek nabarmendu zuten emandakoa baino hagitzez gehiago hartzen zutela bueltan.



erran.eus



Argitaratzailea

Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larrebea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemakileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Aitzuri,
Arantxa Etxeberria, Iraia Jaurena,
Iruñe Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mixelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantxa
Iturralde, Arantxa Gamio, Jaiione
Aritzegi, Jaiione Zabalo, Nerea
Mortalena, Jean Louis Bessonart,
Ganex Etxeberrigarai, Maialen
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier
Zulaika.

Fundazioaren Presidentea

Paskual Rekalde
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko
udalak, Malerreka Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2024ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	47€
Leitza	40€
Hego Euskal Herria	50€
Ipar Euskal Herria, Europa	110€
Amerika eta Australia	155€





KOLABORAZIOAK

NEREA ZABALETA LASARTE

Zientziaren mugak

Noski denok dakigu, batez ere zientzialariek, zientzia mugatuta dagoela. Zientziaren helburua gauza berriak deskribatu eta aurkitzea da, eta beraz, ez dugu natura bere osotasunean ulertzen. Hau nahiko nabaria da denontzat, baita zientzialariak ez direnentzat ere. Baina gaurkoan beste muga batzuei buruz idatzi nahiko nuke: herrialdeen arteko mugei buruz. Dagoeneko bost urte baino gehiago bizitu dut zientzia Estatu Batuetan eta bada garaia exera bueltatzeko. Baina, prest al nago beste zientzia sistema batera itzultzeko?

Zientziaren ideia platonikoa denok dugu burutan: gauza berriak aztertu, ideia interesgarriei buruz hitz egin, teoria berriak eraiki, gizarteari aportazio garrantzitsuak ekarri. Errealitatea, zoritxarrez, ez da hain platonikoa. Zientzian lana egin ahal izateko beste hainbat gauza eduki behar dira kontuan: finantzazioa, politika, gizartea eta *ismoz* bukatzen diren hitz asko (matxismoa, arrazismoa, klasismoa, eta abar). Elementu horiek guztiek zientziaren ideia eraldatu dute, zientzia munduko errealitatera jaitsi dute. Elementu horiek oso desberdinak dira munduko herrialdeen arabera. Bistakoa da finantzazio maila asko aldatzen dela herrialde batetik bestera: Estatu Batuetan orokorrean finantzazioa lortzeko aukera asko daude, eta zientzialari ona izanez gero, zure ikerketa finantzatzeko arazorik

«HERRIALDEAREN ARABERA LANA DESBERDINA DA ZIENTZIAN»

ez dago. Kontrara, Europako herrialde batzuetan finantzazio maila baxuagoa da eta ikerketa talde askok arazoak dituzte beraien zientzia aurrera ateratzeko. Bestalde, *politikeo* asko dago orokorrean. Kontak-tu onak edukitzea beti izaten

da lagungarri eta batzuetan pribilegioak modu susmagarrian banatzen dira.

Elementu interesgarri bat, eta beharbada hain nabari ez dena, zientziaren gizartea da. Laborategiko giroa, elkarlana eta pertsonen arteko harremanak oso desberdinak izan dira nire esperientzian. Doktoretza Iruñean egin nuen, eta bertan familia bat ginen. Elkar laguntzen genuen, talde lana oso ohikoa zen, bata bestearen bizitzari buruz asko hitz egiten genuen elkarrekin bazkaltzen genuenean, irri eta broma asko geneuzkan gure kafe atsedendietan eta elkar zaintzen genuen. Bostonera iritsi nintzenean, panorama desberdina zen: denak atseginak ziren, baina askoz ere independenteagoak. Orokorrean ez dute elkarrekin bazkaltzen, bakoitzak bere laborategiko protokolo eta prozesu propioak ditu eta askotan Internetera jotzen dute protokolo berriak ikasteko, lankideei galdetu beharrean. Askok ez dute bizi pertsonalari buruz hitz egiten eta elkarzaintza ez da orokorra. Hemen lan egiten konturatu naiz oso bakarrik senti zaitezkeela nahiz eta jendez inguratuta egon.

Ondorioz, nire hasierako galderaren erantzuna «Bai» potolo bat da. Prest nago hango sistemara bueltatzeko, nahiz eta ikerketa finantzatzea zaila izan, ez izan gai *politikeoaren* jokoan sartzeko eta *ismo* kontzeptu batzuk oraindik konpondu gabe izan. Zientziaren bidea gogorra eta prekarioa da eta bide hori arinagoa egiten da lankide onez inguratua zaudenean.



NAHIA SENPER MAZIZIOR

Inor ez da ilegal

Ekainaren 9an Europako Parlamentuko hauteskundeak izan dira. Eskuin muturraren hazkunde nabarmena izan da.

Italian eta Hungarian sendotasunez gobernatzen dute; Estatu Frantsesean, Alemanian eta Herbehereetan, berriz, eskuin muturra bi indar politiko nagusien artean dago, eta datozen urteetan Europako zutabe diren nazioen barrenean ordezkari hegemonikoak izateko aukera dute. Gainontzeko estatuetan ere indarra hartzen ari dira. Ipar Euskal Herrian ere, eskuin muturreko Bilgune Nazionala alderdiak irabazi ditu hauteskundeak.

Arazoak anitz izanen dira, baina immigrazioaren aurkako sentimendua, sentimendu nazionalista kapitalizatu duen ultraeskuineko banderetako bat izan da. Migrazioari buruzko diskurtsoek, anitzetan xenofoboak eta arrazistak, hautesleen sektoreetan sartzea lortu dute, eta hauteskunde-motibazio bihurtu dira.

Europako hainbat herrialdek migrazioaren aurkako neurriak hartu dituzte. Italiako Gobernuak, adibidez, immigrazio irregularren aurkako neurri berriak onartu ditu, egonaldi eta aberriaritze zentro berriak eraikitze asmoarekin. Alemaniako Parlamentuaren kasuan, asilo-eskatzailen deportazioak arintzea ahalbidetzen duen lege

«SAREAK ERAIKI BEHAR DITUGU, HARRERA HERRIA BIHURTUZ»

proiektua onartu du, prozesua sinplifikatu eta arauak gogortuz. Gaur egun, atzeritarrak atxikitzeo zazpi zentro daude Espainiar Estatuan. Horiek instalazio publikoak dira, eta egoera irregularrean dauden

atzeritarrak atxikitzen dira, kanporatzea errazteko.

Arazoa migrazio politikak dira. Izugarriko injustizia da. Garai batean kolonizatu eta okupatu ditugun hainbat herrialde ustiatu eta gero, handik etortzen den jendeari European sartzea ukatzen diogu. Erabaki egiten da nori utziko zaion leku batetik bertara pasatzen. Pareta ikusezinak daude. Euskal Herrian eta Bidasoaldean ere pareta horiek egunero ikusten ditugu. Europako etorkizuna kultura anitzetako izanen da, eta giza eskubideen errespetua eta pertsonen zirkulazio askea aldarrikatu, eta trantsituan dauden pertsonen elkartasuna adieraztea beharrezkoa da, elkartasunari mugak ezin baitzaizkio paratu. Paretak puskatu eta sareak eraiki behar ditugu Euskal Herria harrera herria bihurtuz, eta eskuin muturrari eta faxismoari aurre egin behar diogu, inor ez dela ilegal aldarrikatuz eta lau haizetara zabalduz.

11 GALDERA LABUR

ANNE URRUTIA AZKARRAGA AZPILKUETAKO GAZTEA

«Herritarren laguntza ederra izaten dugu»

Uztailaren 4tik 7ra herriko bestak ospatuko dituzte Azpilkuetan eta *domunausi* (danbolin nagusi) den Anne Urrutia herritarra antolakuntza lanaz eta, doike, bestaz mintzatu da. Egitarau osoa eskuragarri dago 47. orrialdean. Nola definituko zenuke zeure burua?

Azpilkuetako neska gaztea, alaia eta bestazalea.

Zein dira zure zaletasunak?

Arras musikazalea naiz, eta sukaldaritza, motorraren mundua eta kirola ere gustuko ditut.

Laster bestak izanen dituzue. Zerk egiten ditu berezi Azpilkuetako bestak?

Herri ttikia izan arren, sortzen den giro polita eta adin guzietako herritarren arteko elkartasuna.

Zein dira zure lehenbiziko oroitzapenak herriko bestetan?

Nire lehenbiziko oroitzapenak dira ttikia nintzelarik, minutu batetik bertzera, herritar guzietatik jartzen zuten giroa ikustea. Jende guzia gogotsu!

Eta gaur egun zein da gehien gustatzen zaizun eguna?

Niretako, dudarik gabe, bezpera da egunik hobena. Baztan zopen ondotik arrats horrek izaten duen giro polita eta xarma ez dute bertze egunek.

Besta egiteko lehenbizi antolatu behar da. Nortzuk zarete danbolin nagusiak?

Aurten Oier Ariztia eta biok gara, joan den urtean bezala. Hondarreko urtea, espero dezagun!



Nola erabakitzen da nork antolatuko dituen?

Adinaren arabera antolatzen dira taldeak, eta bi urtetik behin izaten dira aldaketak. **Zer hartzen duzue kontuan egitaraua prestatzerakoan?**

Gehien bat San Fermin eguna hartzen dugu kontuan, eta asteburuko egunen bat harapatzea ere.

Zerk ematen du lan gehien?

Nire ustez zikiro egunak ematen du lan gehiena, nahiko egun luzea izaten baita: goi-

zetik gauzak prestatu, gosaria egin, zerbitzatu... nahiko gogorra egiten da, baina herritarren laguntza ederra izaten dugu!

Zein dira zure asmoak epe motzera?

Ikasturtearen amaiera on eta polit bat izatea eta herriko bestetan gozatzea!

Eta zein dira zure asmoak epe luzera?

Nire ametsa sukaldaritzarekin zerikusia duen zerbaitekin nire menpe izatea da.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak

Mantelak

Kuxinak

Edredoi nordikoak

Ohe estalkiak

Maindireak

Toallak

Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Haur eskolak doan, eta orain zer?

ALIX GEREKA

MALERREKAKO GURASO TALDE BATEN IZENEAN

Malerrekan guraso talde bat bildu gara, Haur eskoletako aurreiskripzioen ondotik familia aunitzetako ttikiak kanpoan gelditu direla eta, gure kexa, haserrea eta inpotentzia adierazteko.

Duela aste pare bat, haur eskolen aurrematrikula eta onartuen zerrenda argitaratzean, 32 haurretatik 16 plazarik gabe gelditu dira, beraien eskualdeko haur eskola bakarrean sartzeko aukerarik gabe.

Orduan, zer eginen dugu 16 haur horien gurasoak?

Batzuk (ahal dutenek, noski) eszedentzia edo baimena eskatu beharko dute etxean gelditu ahal izateko. Bertze batzuk (hauek ere, posible dutenek) amatxi-atautxiek in utzi edo norbait kontratatu.

Eszedentzia hartu ezin dutenek inguruko eskualdeko haur eskoletan egin beharko dute matrikula (Lesaka, Bera, Elizondo...), kontuan hartuz ttikiak egunero 30 km-ko joan-etorria egin beharko dutela N-121-A errepidean, bertan dagoen trafikoa eta horrek suposatzen duen arriskuarekin. Goizero lehenago ernatu beharko dutela eta etxera ere beranduago itzuli.

Horri gehitu behar zaio, haur eskola horietan sartzeko aukerak ere hagitz murrizak direla.

Hau al da etxeko ttikiak merezi dutena?

Ez al dute eskubiderik beraien eskualdeko haur eskola bakarrean onartuak izateko?

Duela hilabete batzuk, Hezkuntza Departamenduaren ahotik, jakin zen Haur Hezkuntzako etapan 0-3 zikloa doan izanen zela. Itxaropentsu gisa azaldu zuten berri horrek, ordea, ez du gauza onik ekarri.

Jakina zen hori eskainita aurrematrikulak goiti egingen zutela, eta ez da horri erantzuteko nahiko baliabide paratu. Ondorioz, hainbat eta hainbat familiatako haurrak kanpoan gelditu dira.

Gainera, ez da gauza bera gertatzen Iruñean, non haur eskola bat baino gehiago dauden; edo hemen Malerrekan, eskualde osoan haur eskola bakarra dagoen. Kanpoan geldituz gero, aukerarik gabe gelditzen gara.

Ez al da garaia Malerreko haur ttikiak eta hauen familien beharrak asetzeko, kalitatezko zerbitzuak eta baliabideak paratuz?

Hau al da familia gazteak haurrak izatera animatzeko eta jaiotze tasa igotzeko modua? Oztopo gehiago paratuz?

Aurten, gure ttikiak izan dira kaltetuak, baina ez dugu hau nahi hurrengo belaunaldietarako. Horregatik, irtenbide bat eskatzen dugu.

Zuen erantzunaren zain, adeitasunez.

Aurtengoan ez da atea irekiko

ARANTXA EZKURRA

MENDI ABESBATZAREN IZENEAN

Kasik urtea joan da Doneztebe bortizki astindu zuen udatik. Hurbiletik zauritu gintuzten Fede, Joxe eta Ainararen

heriotzek. Bereziki gogorak azken bi hauek, haien gaztetasunaren tamainakoa izan baitzen ustekabea eta utzi zuten atsekabea.

Herriko alor guztietan sumatu dugu haien falta: kirolean, eskolan, dantzan, txistuan... Eta baita abesbatzan ere. Abesten dugun kontzertuetan, beti gogoan ditugu hain hurbileko genituenak.

Sanpedroak ate joka. Besta alaiak izaten dira Doneztebeak, ez bairik gabe. Baina aurtengoan ekitaldi guztiek orban nabarmena izanen dute, gehienon burutan Joxe eta Ainara egonen baitira uneoro. Zer erranik ez txistularien joaldietan, Errekaren dantza emanaldian edota Trapatan Dantzan. Haien sustatzaile, parte hartzaile, laguntzaile ziren biak ala biak.

Mendi Abesbatzako kideok atsekabez ikusiko dugu aurten ez dela atea irekiko. Azken urteetan abesbatzako kide ez bazen ere, beti hurbilean genuen Joxe eta sanpedroetan faltarik gabe bisita egiten zigun. Meza nagusia hasita zegoela, Donezteben hain maitatua den Hilarión Eslavaren *Tu es Petrus* ederraren aitzinetik koruko atera hurbildu eta berezkoa zuen alaitasunaz gurekin abesteko baimena eskatuko zuen Joxek, halakorik behar ez zuela ongi jakin arren. Eta hantxe sumatzen genituen bere kantua, poztasuna, gizatasuna, konpainia ezin gozagarriagoak.

Ainara eta Joxe gogoan, besta zoriontsuak opa dizkizuegu doneztebarrei eta bertaratzen zaretenoi, jakin bai baitakigu udan zeruari gehitu zitzaizkion bi izarrak begira izanen ditugula.

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eu



948 63 54 58

Zaindu maite duzun hori...

Kalko ustelak

'*Alfer batzuk zarete' edo 'Alfer hutsak zarete'?

Gaztelaniaren eraginez, maiz, izenondoei balio enfatikoa emateko, oker erabiltzen dira *bat* eta *batzuk*; horrelakoetan, hobe da *huts* hitza edo gisakoren *bat* erabiltzea:

- ?Inozo **batzuk zarete!** > Inozo hutsak/galantak zarete.
- ?Alfer **batzuk dira** arduradun horiek > Alfer hutsak dira arduradun horiek.
- ?Zu tonto **bat zara** > Zu tontoa zara / Zu tonto hutsa zara.
- ?Lapur **batzuk dira** > Lapurrak dira, gero! / Lapur galantak dira.

* Izartxoaren dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude. Eta ? zeinua duten adibideen gramatikaltasuna zalantzakoa da.

Osatu bikoteak

AIZKATU	APEZ
AUZAPEZ	ARNASESTUKA
BURRUNBA	SASKIA
ABADE	ALKATE
HATSANKA	ZARATA
ESPORTA	UXATU

Zein da zuzena?

'*Batzuetaz' edo 'Batzuez'?

Kasu instrumentalean (ZEREZ kasuan), pluraleko atzizkia -z da, ez -taz:

- *Arazoetaz > Arazoez.
- *Amaiaetaz > Amaiaz.
- *Hainbat gauzataz > Hainbat gauzaz.
- *Hori egin dutenetaz ari dira > Hori egin dutenez ari dira.

Bide batez, *batzuk* zenbatzailearen plurala ez da **batzuetaz*, *batzuez* baizik.

Nola erran?

Amestu ≠ amets egin

Amestu eta *amets egin* sinonimoak dira 'zerbait biziki desiratzea' adieran; alegia, desiratzen den hori maiz irudikatzea. *Irrikatu* dute sinonimo, adiera horretan.

- Hau ez da guk amestutako bizitza.
- Umeak hainbertze aldiz amets egin duen eguna.
- Anitz gauza egin behar duela amesten du eta deus ez du egiten.


Amets eginek, ordea, badu *amestuk* ez duen adiera bat: 'lotan, irudimenak, gertaerak edo irudiak sortzea; ametsetan egitea'.

- Erne dagoenak ez du ametsik egiten.
- Ez dut nik horrelako amets beldurgarririk egiten.



Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...

 info@ttipi.eus

 744 48 43 61

Oharra:
Asmatu al zenuen 856. aldizkariko hieroglifikoa? Eultze da erantzuna. Inguruko herri batzuetan eultze deitzen diote erlauntzari.

Euskal Herria alderik alde gurutzatzeko prest

Uztailaren 1ean hasita, Atharratzetik Getxorako bidea osatuko dute Euskarabenturaren zarpigarren espedizioa kideek. Euskal Herriko zazpi probintzietako eta diasporako 127 gaztek hartuko dute parte esperientzian, eta horietako hiru dira eskualdekoak

A. LARRETxea

Motxilak bizkarrean eta kamiseta laranjak soinean. Halaxe pasako dute uda Euskal Herriko luze zabaleko eta diasporako 127 gaztek. Euskarabentura espedizioaren zarpigarren aldia egingen dute aurten, Atharratzen hasi eta Getxon bukatuta. Bidean 400 kilometro osatuko dituzte, gehientsuenak oinez. Beraiekin batera 30 laguneko taldea ariko da gidari eta bertzelako lanetan.

Atharratzen hasiko dute bidea, eta hala Zuberoan aitzia-



Parte hartzaileak 2022ko edizioan.

neko edizioetan baino etapa bat gehiago egingen dute. Euskal Herriatik pasatzen diren Done Jakue bidearen hiru bideak jarraituko dituzte gero. Hasteko frantses bidea Mauletik Iruñera, gero barnealdeko bidea kontrako norabidean Añana-Gesaltzatik Baionara eta azkena, kostaldeko bidea, Baionatik Getxora.

Tartean, eskualdeko lurretan ere ibiliko dira parte hartzaileak: uztailaren 18ko arratsaldean ailegatuko dira Lesakara, Oiartzunen barna. Lesakan

pasako dute arratsa, eta bihar-munean Lesaka eta Urdazubi arteko bidea osatuko dute. Arratsa Urdazubin pasata, Amaiurrera arteko etapa osatuko dute oinez. Handik, Baionara joanen dira.

Oinez ibiltzeaz eta dozenaka leku ezagutzeaz gain, hainbat gai landuko dituzte parte hartzaileek. Aurten, bertzeak bertze euskara batua eta euskalkiak, emakumea eta kirola, eta utopia. Hain justu, gai horiei buruzko lanak aurkeztu behar izan dituzte espedizioan parte hartu duten gazteek aukeratuak izateko.

Denera 127 parte hartzaile izanen dira eta horien artean zarpigarren edizioan hiru dira eskualdekoak: Garazi Belda Xurio zugarramurdiarra, Laiene Mayora Oteiza gazteluarra eta Uxue Aizkorbe Herrera goizuetarra. Espedizioa hasi aitzinetik elkartu dira TTPI-TTAPAREkin espedizioari buruzko kontuak kontatzeko.

«Espero dut kontent itzultzea eta espedizioa maitatzea»

GARAZI BELDA XURIO EUSKARABENTURAKO PARTE HARTZAILEA

17 urte ditu Garazi Belda Xurio zugarramurdiarrak, eta Euskarabentura espedizioa kidea izanen da aurten. Iaz ere aukeratu izan zen Getxo arteko bidea oinez osatzeko, baina hasi baino bi hilabete lehenago zauritu eta ezin izan zuen parte hartu. Berriz aurkezteko erabaki hartu du aurten iaz espedizioan parte hartu zuten lagunak animatuta, eta lana prestatuta, bigarrenaz aukeratu dute Euskal Herria oinez gurutzatzeko.

Iaz artelan bat aurkeztu zuen, eta aurten aldiz testuaren aldeko apustua egin du zugarramurdiarrak: «Euskara batua

eta euskalkiak gaia aukeratu dut eta nik euskalkiekin dudan harremanari buruz idatzi dut», azaldu du. Lana osatzea prozesu «interesgarria» izan dela dio: «Orain arte ohartu ez nintzen gauza batzuetaz ohartzeko balio izan dit», kontatu du. Idatzizko testu bat prestatzearen aldeko apustua egin du, lana sortzeko orduan «errazena» zelakoan.

Seaskak Baionan duen Bernat Etxepare lizeoko ikaslea da zugarramurdiarra eta bazuen aurten bigarren aldiz aukeratu izateko esperantza: «Izena eman nuen sasoiari Saran bizi nintzen, eta bane-



UTZITAKOIA

kien hautatua izanen nintzela Iparraldean izena ematen dutenak hautatuak baitira normalean».

Espedizioa hasteko oraindik egun batzuk falta diren arren, dagoeneko hasia da prestatzea lanetan, bai materiala erosten, eta baita fisikoki ere: «Mendira joaten hasi naiz, bereziki Euskarabenturarako prestatzeko», kontatu du. Hala ere, oraindik ez da urduritu:

«Momentuko aski lasai naiz, eta uste dut espediziora ere lasai joanen naizela. Hala ere, ikusiko da momentua etorri ahala. 127 parte hartzaileen artean, gainera, baditu ezagunak dituen batzuk: «Badituzte lagun franko joanen garenak, lizeotik hamar bat ezagun», kontatu du. «Hori ere abantaila da», osatu du.

Bertzelakoan, gogotsu dago uztailaren 1a ailegatu eta Atharratzen bidea hasteko: «Espektatiba haundirik gabe joan nahi dut, abenturara, baina espero dut ongi joatea, lagun berri aunitz egitea, leku berriak ezagutzea eta ezagutza berriak lortzea».

Aitzineko urteetan parte hartu duten esperientzia onek ere lagundu dute zugarramurdiarra motibatzen: «Lagun batzuk joan den urtean egon ziren eta aski kontent itzuli ziren handik, eta espero dut nik ere maitatzea».

«Lan ona egin nuenez, banuen esperantza aukeratua izateko»


LAIENE MAYORA OTEIZA EUSKARABENTURAKO PARTE HARTZAILEA

DBHko laugarren maila bukatu berri du Laiene Mayora Oteiza gazteluarrak, eta heldu den urtean Lekarozen batxilergoa ikasten hasi aitzinetik Euskarabentura espedizioan pasako du uztaila. «Jendea ezagutzeko, Euskal Herriko txoko diferenteak ezagutzeko eta mendian ibiltzeko» eman du izena, «esperientzia interesgarria» dela iritzita.

Euskarabenturan parte hartzeko aitzinetik lan bat aurkeztu behar izan du eta, bere kasuan euskara eta euskalkiei buruzko testua bat osatzea erabaki du: «Artikulu historiko

bat idatzi dut: euskara batua zergatik sortu zen, sorrera nolakoa izan zen eta bertako euskalkiei buruz aritu naiz, eskualdeko euskalkiez eta beraien garrantziaz».

Testuan informazioa ematez gain bere iritzia ere eman du Mayorak: «Interesgarria iruditzen zait euskara batuak euskalkiekin batean duen garrantzia», azaldu du. «Gaur egun euskalkiak aunitz erabiltzen dira eta horrek bakoitzaren nongoa den identifikatzen laguntzen du, eta uste dut hori oso garrantzitsua dela», gehitu du.



UTZITAKOIA

Aurkeztutako lanarekin «kontent», bazuen esperantza espediziorako aukeratua izateko. «Parte hartzaileak eskualdeka aukeratzen dituzte, eta ez nuen aditu hemen dik inor apuntatua zenik. Lan ona egin nuenez banuen esperantza aukeratua izateko», azaldu du. Pozarren hartu zuen aukeratua izanaren berria: «Email bat bidali ziguten aukeratua nintzela erranez, eta

aunitz emozionatu nintzen, esperientzia bizitzeko gogotsu nago».

Uztailaren 1ean hasiko dute bidea, eta gogotsu dago gazteluarrak «zer egingen dugun ikusteko eta jendea ezagutzeko». Oinez gurutzatuko dute Euskal Herria eta «ongi» moldatuko dela espero du, maite duelako mendira joatea eta leku berriak ezagutzeko. Euskara mintzatzea du Euskarabenturako helburua, eta baita lagun berriak egitea eta leku berriak ezagutzen disfrutatzea ere.

Erosi beharrekoak erosita, motxila prest, gogotsu, eta aldi berean urduri dago: «Pentsatzen dut eguna hurbildu ahala, eta batez ere azkeneko egunetan urduri jarriko naizela, gehien bat lehenengo egunagatik. Baina uste dut lehen eguna pasatzean urduritasuna joanen dela eta aunitz disfrutatuko dudala».

«Euskal Herri osoko jendea ezagutzeko aberasgarria izanen da»

UXUE AIZKORBE HERRERA EUSKARABENTURAKO PARTE HARTZAILEA


17 urte ditu Uxue Aizkorbe Herrera goizuetarrak eta batxilergoa ikasten ari da Leitzako Amazabal ikastetxean. Lehenengo aurkeztu du aurten hautagaitza Euskarabenturan parte hartzeko eta Atharratze eta Getxo arteko bidea osatzeko 127 gazte aukeratueta-ko bat izan da.

Horretarako utopia gaitzat hartuta abesti bat osatu du goizuetarrak: «Utopia iruditu zitzaidan gairik interesgarriena, eta trikitiarekin erratasuna dudanez, abesti bat egin dut», kontatu du. Abestian, utopia zer den kontatu eta kontzeptua irudikatzen saiatu

da: «Ezinezkoa den zerbait, baina, hala ere gauzak egitea bultzatzen gaituena», azaldu du.

Ez da trikitia lagun egin duen lehen sorkuntza lana eta hasieran abestia egitea «pixka bat» kosta zitzaion arren, lehen estrofa egindakoan «erraz» aritu da. Pozik gelditu da lanarekin, are gehiago ikusita gurasoak «zein harro dauden». Ez zuen espero hautatua izatea, eta sorpresa izan den arren, «oso pozik dago».

Euskaraz gehiago hitz egiteko eman du izena espedizioan Aizkorbe: «Etxean ez dugu euskaraz egiten, lagu-



UTZITAKOIA

nekin bakarrik egiten dut, eta batzuetan nahi gabe gaztelanira pasatzen naiz. Ohitura hori aldatu nahi dut Euskarabenturan», kontatu du.

Euskaraz aritzeko ohitura lortzeaz gain, espediziorako bertze asmo batzuk ere badi- tu goizuetarrak: «Uste dut asko ikasiko dudala: hainbeste herritan egonda leku horietako ohiturak ikasiko ditugu, eta espero dut lagun asko egitea.

Euskal Herri osoko jendea ezagutzeko oso aberasgarria izaten ahal da», azaldu du.

Uztailaren 1ean hasiko den zeharkaldirako gauza ia denak prest ditu dagoeneko Aizkorbe: «Zapatilak ere ibili ditut han hanketako minik ez izateko», dio. Izan ere oinez ibiliko dira egunero-egunero, baina egiteko horretan ongi moldatzeko esperantza badu: «Beharbada hasieran hainbeste kilometro egitea kostako zait, baina uste dut gorputza gero ohitu egingen dela eta ongi moldatuko naizela».

Euskarabenturarako gauzak denak prest, urduritasuna kudeatzea izanen da hasi aitzineko azken egunetan egitekorik zailena: «Eguna iristean oso urduri egonen naiz. Hasieratik, autobusean sartzen garenetik, bakarrik joanen naiz, eta hori nahiko beldurgarria da niretzat. Baina gero ederki moldatzea espero dut!».

«Leuzemia ezkutuan dago eta ezinbestekoa da ikusgarri egitea»

BEGOÑA ARRIZURIETA BILDARRATZ LEUZEMIARI BURUZ

Duela sei urte diagnostikatu zioten leuzemia eta orduan ikasi zuen gaixotasun horren atzean ezkututzen den guztia: «oso prozesu gogorra da, fisikoki eta mentalki mugaraino eramaten zaituena».

ENERITZ IRAOLA LEITZA

Ezer gutxi zekien Begoñak leuzemiari buruz, bere azal eta mamitan ezagutu zuen arte. 2018ko apirilean hasi zen ipurtezurreko minez eta uztailean 24an esan zioten leuzemia zuela. Prozesu luze eta gogorra hasi zuen orduan. Zazpi hilabetera egin zioten bizkarrezur-muineko transplantea eta geroztik bi urtebetetze festa ospatzen ditu: «jaio nintzenekoa eta transplantea egin zidatenekoa. Leuzemiatik bizi-rik ateratzea, berriz jaiotzea bezalaxe baita».

Nola hasi zen guztia?

2018ko apirilean ipurtezurreko minez hasi eta handik bi hilabetera joan nintzen medikura. Ordurako, eskuineko hankarekin errenka ibiltzen nintzen. Analitikak egin eta plaka bat atera zidaten eta analitikan dena ongi zegoela eta plakan ez zela ezer ikusten esan zidaten. Botika sorta errezetatu eta etxera. Asteak aurrera egin ahala, gehiagora joan zitzaidan mina, ez zidan deusek kentzen eta geroz eta zuriagoa eta aahulagoanengoan. Uztailean, amari traumatologora lagundu nion eta bere traumatologoa konturatu zen ez nengoela ongi. Begira hasi zen eta egin zidaten plaka ez zela ongi ikusten ohartu zen, erradiografia bat egitera bidali ninduen, handik erresonantzia bat egitera... eta zerbait ez zegoela ongi konturatu ziren. Bata bestearen atzetik, proba

pila bat egin zizkidaten. Uztailean 24an ospitalean ingresatu eta biopsia bat egin behar zidaten, baina biopsia aurreko analitikan ikusi zuten zer zen gertatzen ari zena.

Nola eman zizuten berria?

Erabat ezustean harrapatu ninduen. Zeladorea etorri zen biopsia egitera eramatera eta mediku bat azaldu zen lasterka telefonoa eskuan zuela. Gelditzeko, ez zela biopsiarik egin behar esanez. Ederki! Pentsatu nuen nire baitan, ongi egonen naiz. Gelakideei ere esan nien etxera nindoala. Inuzentea ni! Ez nuen susmorik... Handik pixka batera, medikua eta probak martxan jarri zituen traumatologoa etorri ziren. Biak elkarriz begira, ni tartean, tenis partida batean bezalarenengoan. Orduan hasi ziren esanez, odolaren fabrika bizkar-muina da, oso garrantzitsua da eta fabrikak huts egiten duenean organismo guztiak huts egiten du. Zer daukat? Izan zen nire galdera. Ohartu nintzen kontua apaindu nahian zebiltzala eta gauzak garbi esateko eskatu nien. Halaxe esan zidaten, leuzemia daukazu eta nik ez nekien hitz horren atzean zegoen guztia.

«PIXKANAKA IKUSI ETA IKASI NUEN LEUZEMIA IZATEA ZER DEN»

Zein izan zen zure erreakzioa?

Ez nuen erreakzionatu, momentuan blokeatuta gelditu nintzen. Hala ere, buruan nire pelikula egin nuela uste dut. Pentsatu nuen, kimioa, etxera, botaka egin... horixe zen minbiziari buruz nekien gutxia. Inguruan ez nuen leuzemia kasurik ezagutzen. Ez nintzen kontziente zer heldu zitzaidan. Pixkanaka ikusi eta ikasi nuen leuzemia izatea zer den.

Nola izan zen prozesua?

Logela bat erreserbatu zuten niretzat eta hasieratik esan zidaten neukan leuzemia motari izen-abizenak jarri behar zizkiotela. Leuzemia linfoblastiko larria Philadelphia positiboa zen nire diagnostikoa. Aurreratu zidaten bizkarrezur-muineko transplantea egitea beharrezkoa izanzen zela, baina horren aurretik kimioterapia tratamendu gogor bat egin beharra zegoen eta gorputzak nola erantzuten zuen ikusi. Gainera azaldu zidaten tratamenduak hiru fase dituela. Lehenbiziko faseak, hilabeteko iraupena du eta ingresatu, kimioterapia desberdinak hartu eta dena ongi bazihoan hilabetea pasatzean etxera bidaliko nin-

«EZ NINTZEN KONTZIENTE IZAN ZER HELDU ZITZAIDAN»

duten hamar bat egunetarako. Hurrengo kimioterapia sesiorako indarrak hartzeko izanzen etxean pasa beharreko denbora hori. Ez zidaten besterik esan eta prozesu guztiak zenbat iraunen zuen galdetu nienean, epeak jakin nahian hasi nintzenean, ez ditut ahaztuko medikuak esandako hitzak: 'ahaztu zure bizitzaz, zuk orain ez duzu bizitzarik. Beste norbait arduratuko da kanpoan duzun hortaz'. Hortik aterako zarela entzuteko beharra duzu zuk, baina inork ez dizu halakorik esaten. Ezin dutelako hala izanzen dela ziurtatu. Asko dira transplantea ailegatu aurreko prozesuan, bidean, gelditzen direnak.

Alderdi psikologikoa landu zuten?

Medikuen lehenasuna zure bizitza salbatzea da. Zure bizi mentala ez da hor sartzen. Nik ez nuen inolako babesik izan. Psikologoa lau astetara etorri zen eta aurrenetik etorri behar lukeela uste dut, jasotzen duzun kolpea izugarria delako. Espero dut azken urte hauetan zertxobait hobetuko zela eskaintzen duten arreta psikologikoa, bazegoen eta zer hobetua. Prozesuak iraun zuen bitartean hiru bat aldiz egon nintzen ni psikologoarekin. Etorri eta galdetzen zidan, zerbait kontatu nahi otenion... eta zerkontatu behar diozu zuretzat bost bat minutu baino ez dituenari?

Kimioterapia uste baino gogorragoa izan zen?

Bai, berez gogorra zen prozesua are gehiago zaildu zelako, kimioterapia sesio bakoitzak ondorioren bat utzi zidalako Lehenbiziko sesioaren ondoren hesteak gelditu zitzaizkidan, bigarrenean polineuropatia bat eragin zidan hanketara eta barrendik hankak erabateko mugimenduan zeudela sentitzen nuen. Batean eta bestean, jasanezina zen mina. Hirugarrenean mukositisia izan nuen eta ezin nuen ez jan eta ez edan. Horrela, hilabeteko ospitaleratzeak izan behar zutenak gutxienez



Begoña Arrizuri, bizkar-muineko transplantea egin zioten 2019ko otsailaren 28an. GORETTI LOIDI

berrogei egunetara luzatu ziren eta etxean pasa beharreko atsedean eta indartzeko egunik gabe gelditzen nintzen. Azkeneko nahiago izaten nuen etxera joan baino ospitalean gelditu, han egoteak segurtasuna ematen zidalako.

Zer izan zen gogorrena?

Niretzako okerrera sentitu nuen bakardadea izan zen. Bisitak badituzu, baina bakarrik zaude. Gauak oso luzeak izaten dira: isiltasun hori izugarria da. Ospitalean telebista pizten nuen isiltasunari aurre egiteko, gauetan beldur eta mamuak hasten zirelako dantzan. Bederatzietatik aurrera mortala izaten zen. Barruan duzun ezinegon hori. Inork ezin dizu ziurtatu hortik

aterako zaren edo ez. Badakizu prozesua oso gogorra dela. Egunerokoan ikusten duzu. Prozesua oso luzea dela esaten dizute eta pentsatzen duzu, hilabete bat? Baina askoz luzeagoa da kontua. Diagnostikoa jakin eta zazpi hilabetera egin zidaten transplantea eta hori egindakoan ere ez da dena bukatzen.

Beldurra sentitu zenuen?

Kimioterapia hartu bitartean prozesuaren lehenbiziko za-

**«ALDERDI
PSIKOLOGIKOA
GOGORRAGOA DELA
IRUDITZEN ZAIT»**

tian, uste dut ez nintzela kontziente izan, ez nuen denborarik pentsatzeko ere. Muga-mugan nengoen, hilotz bat nintzen. Transplanteaz hitz egiten hasi nintzenean, orduan bai hasi nintzen beldurra sentitzen. Alabarekin hitz egin nuen, bueltatzen ez banaiz zer egin behar zuten... Orduan izan nintzen kontziente. Hain ahula ikusten zara, ez bakarrik fisikoki. Psikologikoa gogorragoa dela iruditzen zait. Min

**«MUGA-MUGAN
ZAUDE ETA
BORROKA
ETENGABEA DA»**

fisikoa nolabait arintzeko modua duzu botikarekin, baina psikologikoa ezin da besterik gabe tapatu.

Transplantea egiteko emailea lortzea zen hurrengo pausoa.

Anai-arrebak dira emailerik hoberenak. Gizonezkoa eta zenbat eta gazteagoa izan hobe, emakumeok aldaketa gehiago izaten ditugulako hormonon eraginez. Gu sei senide gara eta horrek aukera gehiago jartzen zituen mahai gainean. Azaroan egin zizkieten probak, ikusi zutenean tratamendua ongi onartzen ari nintzela. Zerbaitek ongi atera behar zuten lehenbizikoan eta emailea lortzeko orduan, zorte izugarria izan nuen. Bost anai-arreba ditut eta hiru ziren bateragarriak. Azkenean, anaia gazteena izan zen emailea. Hala esaten dit anaiak, 'nik eman nizun bizia eta zaindu'.

Familian topatu zuten zure emailea, baina ez baziren bateragarriak?

Gure kasuan ez zen beharrezkoa izan, baina badago aipatu nahiko nukeen fundazio bat, Josep Carreras fundazioa. Emaileak lortzeko lanketa oso garrantzitsua egiten dute eta munduko bizkarrezur-muin emaile guztien bankua kudeatzen dute. Emaile kopurua igotzen ari da, baina badago oraindik ere zer landu. Jende asko ari da hiltzen emailerik ez dutelako eta horrek oso gogorra izan behar du.

Zein oroitzen duzu transplanteaz?

Abenduan bidali ninduten etxera eta otsailaren 28an egin zidaten transplantea. Bi hilabete horiek oso luzeak egin zitzaizkidan. Transplantea bera oso desatsegina da. Hiru erizain eta medikua etorri eta dena prestatu zuten aurrean: tresneria, maskarak.. zeure buruari galdetzen diozu, zer egin behar ote dute horrekin guztiarekin. Oso gogorra izan zen, baina bizirik nago.

Jarraipen bat egin zizuten gero?

Transplantea egin ondoren astero joan behar izaten nuen ospitalera. Analitika eta →



Liber proiektua jarri du martxan Begoñak. GORETTI LOIDI



Begoña, Goretti eta Jon Leitzako azokan jarri zuten postuan. ENERITZ IRAOLA

→ froga pila bat egin zizkidaten dena ongi ote zihoan ikusteko. Ez dira nolanhiko frogak: intratekala, puntzioak... Ikusi behar da gorputzak nola erantzuten duen. Zenbat gelditzen den zure muinetik eta zenbat duzun berritik. Defentsak jaisteko botikak hartu behar dituzu. Egunean, hogeita hamar pastilla hartzera iritsi nintzen. Transplantea egin ondotik sei bat hilabete behar ditu zure gorputzak muin berrira egokitzeko eta tarte horretan, zure fabrika eta odol guztia aldatzen da. Sei hilabete pasa zirenean, hamabostean behin izaten nituen azterketak. Gero hilabetero, hiru hilabetetik behin eta orain sei hilabetean behin egiten dizkidate. Lehen-biziko bi urteak odisea bat dira. Zenbat erresonantzia, zenbat ekografia... kontua galzten duzu azkenerako. Baina emaitza guztiak ongi ateratzen direnean zulotik ateratzen ari zarela ikusten duzu.

Zer ikasi duzu prozesu honetatik?

Horrelako bizipen bat izateak aldatu egiten zaitu. Lehen ere ez zitzaidan askorik inporta jendeak esaten zuena, orain gutxiago. Filtro guztiak galdu ditut. Hankak lurrean jartzeko ere balio izan dit. 43 egun pasa gela batean ingresatuta, han-

dik atera gabe, leihotik begiratu, jendea ikusi, euria, hostoak erortzen... eta zuk ez nabaritzea ez haizea, ez euria, ez hotza eta ez beroa. Badakizu zer den gurpildun aulkian kanpora atera eta haizea nabaritzea aurpegian? Gela horretan giltzapetuta egoteak bizia ulertzeko modua aldatzen dizu.

Nondik atera zenuen aurrera egiteko indarra?

Seme-alabek, familiak... eman zidaten beharrezko indarra. Aurrera egiteko motibazioa ziren. Ikusten nuen horren guztiaren parte izaten segi nahi nuela, ez nuela hori guztia utzi nahi. Borroka etengabea da kontziente zarelako zure gorputzak momentu batean ezinen duela gehiago jasan. Kaskagogor xamarra naiz eta horrek ere lagundu izanen du. Pentsa, transplantea egin eta hurrengo egunean bizikleta gainera igo nintzen, kirola egitea garrantzitsua zela esan zidatelako.

Zer bota duzu faltan?

Laguntza ekonomikoa. Lana ezin duzu egin eta inork ez dizu errekonozitzen ezintasun hori. Pentsa, berrehun euro gastatzen nituen hilabetean botiketean. Leuzemiak betirako izanen diren ondorioak utzi

dizkit gorputzean. Ezin dut denbora askoan eserita edo zutik egon. Eskailerak mantso-mantso igotzen ditut, ito egiten naiz eta hankek ez didate laguntzen. Egunez egiten dudana, gauetan nabaritzen dut. Hankak gogortu egiten zaizkit, bizkarreko mina izaten dut maiz. Erdi hilean ez bazaude ez dizute ematen ezintasunik. Lehenbiziko urte luzea pasa nuen ezertarako gauza ez nintzela. Azkeneko bi urteetan ari naiz pixkanaka buelta ematen. Gaixotasunari berari ikusgarritasuna emateak gauzak zertxobait aldatuko lituzkeela uste dut.

Ikusgarritasuna zein zentzutan?

Askotan amorrazioa ematen dizu minbizi mota batzuetara zenbat bideratzen den ikusteak. Minbizi batzuei buruz zenbat hitz egiten den ikusteak eta beste batzuei buruz zeinen gutxi. Leuzemia gizartean gordeta bezala dago, existituko ez balitz bezala da. Leuzemia ez dakigu ongi zer den. Nik ere duela sei urte ikasi nuen, niri tokatu zitzaidanean. Minbizi entzutean, kimioterapia, botaka egin eta etxera... hori da burura etortzen zaizun lehenbiziko gauza, baina askoz gehiago dago egin beharreko bidean. Ezjakintasun handia

dago. Tratamenduak, egiten dizkizuten frogak... leuzemiarren kasuan, oso gogorrak dira. Hori bizi izan duenak ere ez du kontatzen eta kontatzen ez bada, ezkutuan gelditzen da. Nik egia esan, eskertu izanen nukeen bere garaian gaixotasun honi buruz gehiago jakitea. Badakigu badirela prozesua gaintitzen ez dutenak, baina izaten dira ongi bukatzen diren istorioak eta horiek kontatu egin behar dira. Esperantzari eutsi nahian, aurrera egiteko indar edo helduleku bila ari denak, guztiaren beharra duelako.

Ilusio berri bat duzu orain.

Liber izeneko proiektua martxan jartzen hasi nintzen udazkenean, Goretti alaba eta Jon ilobaren laguntzarekin. Etxetik kanpo lanerako aukera askorik ez nuela ikusita, etxetik poltsak egitea aukera polita izan zitekeela pentsatu nuen. Betidanik izan dut josteko ohitura eta irakasle lanean ere ibili nintzen hainbat urtez. Egindako produktuak azoketan eta sare sozialen bidez hasi naiz pixkanaka saltzen. Ilusioz hartu dudana proiektua da. Helburu eta amets berriak izatea garrantzitsua delako. Oraindik ere asko dugarako bizitzeko.



Inoiz baino gehiago bertako aukerak eta zerbitzuak, 0 KM-koak



MARIA TORRES USTARIZ
AUTXITXIA GASNATEGIA - ELIZONDO

«Bertako produktuak kontsumitzean gure bizimoduan inbertitzen dugu»

Duela bi urte hasi zen Maria Torres Autxitxia gasnategian lanean, eta joan den urtean hartu zuen Ramonen lekukoa. Etxean gasna egiten aritua bazen ere, «lan egiteko moduak ez du zerikusirik. Esne gehiago erabiltzen da, prozesu osoaren trazabilitatea bermatu behar da, baldintzak bete, erregistroak...». Gasnak, gaztanbera eta zenderena saltzeaz gain, «dendan Baztango ekoizleentzako produktuak ditugu; zukuak, konpota, arroltzeak, behi gasna, ardo xuria, sagardoa...

bertako produktuak kontsumitzean, gure bizimoduan inbertitzen ari gara; jasagarria, tradizionala eta lurrari lotua». Bisita gidatuak ere eskaintzen ditu, «gasnagintzak gibelean duen lana erakutsi eta jendeak baloratu dezan».



BIXENTE GARZIA
AXURI'ARTE ELKARTEA - SARA

«Hegoaldeko artistekin harreman gehiago izan nahiko genuke»

2017an sortu zuten Axuri'Arte elkartearen Sara: «hainbat artista elkartu ginen herrian erakusgela bat sortzeko helburuarekin. Herriari bizia eta kultura eman nahi genion. Herriko Etxeari esker leku bat lortu genuen eta geroztik artista eta artisau gehiago sartu dira elkartearen; orain 11 gara». Sarako eta inguruko herrietako sorkuntza mota guztiak biltzen dituzte bertan; «margoak, buzingintza, bitxiak, zur lanak, larru lanak... eskaintza aski zabala dugu». Gainera, «zera-

mikako kurtsoak egiteko tailerra ireki dugu, eta jende anitz etortzen da». Iparraldeko obra ugari badituzte ere, «Hegoaldeko artistekin harreman gehiago izan nahiko genuke, eta elkartearen kide egitera animatu nahiko nituzke».



TRINI MIKELARENA PEÑA
ARMI GALERIA - BERA

«Herriak aunitz baloratzen du arteari ematen diogun espazioa»

2020an ireki zuten Trini Mikelarenak eta Jokin Armanek Armi galeria Beran, «lehen Hondarribian genuen, baina Covidarekin hona etorri ginen». Olio pinturak, akuarelak, pastelak, eskulturak, marrazkiak... bi artistek lan ugari dituzte ikusgai. Orain Udako Elkarrekiko Erakusketa antolatuta dute abuztura arte, eta haiekin batera parte hartu dute Lesagibel, Juan Txillida, Xabier Sagarzazu, Mensu, Helena Elbusto eta Agustín Tife artistek. Galerian gainean bizi direnez, «beti

dugu irekia: goizetan 11:30etik 13:30era eta arratsaldetan 16:00etatik 19:30era». Azaldu dutenez, «bisitariak harriturik gelditzen dira, eta kontent joaten dira. Herriko etxeak ere aunitz baloratzen du arteari ematen diogun espazioa».



MARIE PIERRE AGERRE
URDAZUBIKO TURISMO BULEGOA

«Urdazubin egun batean egiteko eta ikusteko jarduera ugari ditugu»

Urdazubi bisitatzen dutenek ikusteko eta egiteko ugari dagoela atzemanen dute; «zaharrena monasterioa da, eta bertan eliza, euskal artista garaikideen erakusketa eta herriaren museoia ikus daitezke. Kanpoko planak bilatzen dituztenentzako lezeetako bisita arras interesgarria da, historia haundiko lekua baita». Herrian bertan, berriz, «animalien babeslekua dugu pertsonekin egotera ohituta daudenak: loroak, otsoak, surikat... Horrez gain, martxan

segitzen duen XVIII. mendeko ur errotan bisitak egin ditugu. Herriko kanalak eta etxe indianoak ere ikusgarriak dira». Paseatu nahi dutenentzako, berriz, «ibilbide ugari ditugu, eta bizikleta elektrikoak alokatzeko aukera eskaintzen dugu».



EH Bildu nagusi abstentzio handiko hauteskundeetan

Hegoaldeko eremuan EH Bildu izan da lehenbiziko indarra eta Saran eta Senperen Frantziako eskuin muturra

TTIPI-TTAPA

Titular bat baino gehiago utzi dituzte ekainaren 9an egindako Europako Legebiltzarrerako hauteskundeak. Bertzeak bertze, ultraeskuinaren goratze handia, abstentzio altua, Frantziako Estatuan hauteskundeak eginen dituztela... TTIPI-TTAPAREN eremuan ere bada zer kontatu.

Hegoaldeko eremuan EH Bildu

Hego Euskal Herriko alderdian, EH Bildu izan da boto gehien bildu dituen hautagaitza, alde handiarekin gainera. 2019ko hauteskundeekin konparatuz, mila boto baino gehiago galdu ditu, baina bere nagusitasuna berretsi du. PSOE izan da bigarren indarra, 84 boto gehiago lortuta, eta PP hirugarrena 43 boto gehiagorekin. Geroa Baik kolpe handia hartu du, bigarren indarra izatetik laugarrena izatera pasatu baita, bi mila boto baino gehiago galduta (876 boto lortu ditu aurten).


Herriz herri ia erabatekoa izan da EH Bilduren garaipena. Urrozen eta Urdazubin izan ezik, gainerako guzietan ira-

bazi du. Bi herri horietan, PSOE nagusitu da, EH Bilduri boto pare bateko alde aterata.

Lapurdin eskuin muturra

Lapurdin, ia herri guzietan irabazi du Marine Len Penen RN Batasun Nazionala alderdiak, baita Saran eta Senperen ere. Zehazki, Lapurdiko hiruzpalau herritan bakarrik ez da gailendu Le Penen eskuin muturreko alderdia. Saran bigarren indarra Emmanuel Macronen Renaissance alderdia izan da (lehen Errepublikak Martxan), eta hirugarrena PS-Plaza Publikoa. Senperen, berriz, eskuin muturraren ondotik, PS-Plaza Publikoa izan da bigarren indarra eta hirugarrena Renaissance. 2019ko bozetan bi herrietan Macronen hautagaitza izan zen nagusi, eta aldi honetan, beheititze handia izan du.

Emaitzak ikusita, Macronek hauteskundeak iragarri ditu. Hala, Ipar Euskal Herrian, tartean, Saran eta Senperen, berriz hauteskundeak izanen dituzte: lehen itzulia ekainaren 30ean eta bigarrena uztailaren 7an.



Eskuin muturraren goratzea

Eskuin muturra lehenbiziko indarra izan da Ipar Euskal Herrian lehenbizikoz, eta Batasun Nazionala alderdiak, adibidez, 2019an baino 12.000 boto gehiago bildu ditu. Baina Hego Euskal Herrian ere agerikoa izan da goititzea, eta datuak dira erakusle: 2019an 27.922 boto bildu zituen Vox alderdiak, eta aurten 40.586 boto hartu ditu. Ez da hori bakarrik. Albise Perezen eskuin muturreko Bukatu da Festa hautagaitzak 22.978 boto bildu ditu. Eskualdean, 217 botorekin Vox bosgarren indarra izan da (2019an baino 75 boto gehiago). Eta Bukatu da Festa alderdiak 75 boto bildu ditu. Eskuin muturreko bertze alderdi batzuek ere botoak hartu dituzte eskualdean.

Abstentzio handia

Abstentzioa izan da Europako azken hauteskundeetako bertze protagonista. 2019an abstentzioa % 29,91koa izan zen, eta aldi honetan, % 53,20ra igo da botorik eman ez dutenen kopurua. Hala ere, kontuan izan behar da orduan bertze hauteskunde batzuekin batera egin zirela Europakoak. Goizuetan izan da abstentziarik baxuena, % 40,37koa; Iturenen % 43,93koa, Senperen % 49,05ekoa eta Urdazubin % 50ekoa izan da. Gainerako guzietan errolatuen erdiak baino guttiagok eman du botoa, zenbaitetan hamarretik hiruk bakarrik. Konparazio batera, Beintza-Labaienen % 72,63koa izan da abstentzioa eta Ezkurran % 73,02koa.





**EH BILDU-K 2.600
BOTO ATERA DIZKIO
BIGARREN IZAN
DEN PSOE-RI**

**SARAN ETA
SENPEREN
LE PENEN ESKUIN
MUTURRA IRABAZLE**

**GEROA BAI-K IA
2.300 BOTO GALDU
ETA LAUGARREN
INDARRA IZAN DA**

**ABSTENTZIOA
% 53,2KOA IZAN DA,
2019AN % 35,2KOA
IZAN ZEN**

Europako hauteskundeak emaitzak herriz herri

Lapurdi



	Errolda	Parte hartzea	Abstentzioa	Baliogab.	Zuriak	Batasun Nazionala	Renaissance	PS-Plaza Publikoa	Landa Aliantza	Europa Ekologia	Errepubl.	Bertzeak
SARA	2.129	1.039	1.090 (% 51,20)	23	28	197	161	129	177	64	63	197
SENPERE	5.635	2.871	2.764 (% 49,05)	45	54	727	395	406	317	178	167	582
Denetara	7.764	3.910	3.854 (% 50,13)	68	82	924	556	535	494	242	230	779

Nafarroa



	Errolda	Parte hartzea	Abstentzioa	Baliogab.	Zuriak	EH Bildu	PSOE	PP	Geroa Bai	Vox	Sumar	Bertzeak
ARANO	89	40	% 55,06	0	0	30	5	0	1	0	0	4
ARANTZA	471	225	% 52,23	1	2	155	30	7	23	2	1	4
ARESO	210	94	% 55,24	2	0	52	17	6	11	0	2	4
BAZTAN	5.995	2.588	% 56,83	8	29	1.138	496	408	196	79	48	186
BEINTZA-LABAIEN	190	52	% 72,63	0	0	16	11	12	7	0	3	3
BERA	2.776	1.255	% 54,79	4	13	534	342	118	94	28	55	67
BERTIZARANA	492	238	% 51,63	4	2	99	71	14	17	9	6	16
DONAMARIA	362	176	% 51,38	2	4	82	30	19	30	3	1	5
DONEZTEBE	1.305	562	% 56,93	1	5	196	139	104	52	20	7	38
ELGORRIAGA	178	86	% 51,69	3	3	48	13	7	10	0	0	2
ERATSUN	137	56	% 59,12	0	0	18	15	7	10	1	0	5
ETXALAR	639	277	% 56,65	0	2	133	51	29	36	10	3	13
EZKURRA	126	34	% 73,02	0	1	13	9	6	3	0	1	1
GOIZUETA	545	325	% 40,37	2	4	255	21	12	27	2	2	0
IGANTZI	471	222	% 52,87	2	4	109	44	11	36	4	6	6
ITUREN	387	217	% 43,93	0	1	133	38	13	16	5	2	9
LEITZA	2.285	1.138	% 50,20	5	7	712	172	92	96	15	11	28
LESAKA	2.176	989	% 54,55	9	11	449	211	69	144	14	25	57
OIZ	114	43	% 62,28	0	0	21	12	2	6	2	0	0
SALDIAS	98	45	% 54,08	0	0	25	9	5	3	0	0	3
SUNBILLA	583	264	% 54,72	2	4	125	67	18	31	7	3	7
URDAZUBI	306	153	% 50,00	0	2	44	46	37	9	12	0	3
URROZ	142	44	% 69,01	0	0	11	13	8	5	1	1	5
ZUBIETA	225	103	% 54,22	0	2	73	13	4	6	0	3	2
ZUGARRAMURDI	193	88	% 54,40	1	5	37	19	11	7	3	1	4
Denetara	20.495	9.314	% 55,77	46	101	4.508	1.894	1.019	876	217	181	472



Dagoeneko hasi dituzte pintaketa eta moldaketa lanak. UTZITAKOIA

Eztegara frontoian moldaketa lanak egiten ari dira

Bertze lan batzuen artean, frontoia beltzez margotuko dute. Lanak hasiak dira dagoeneko, eta hilabetez luzatuko dira

A. LARRETxea

Udala Eztegara frontoian hainbat moldaketa lan egiten ari da. Lanak hasiak dira dagoeneko, eta hilabetez luzatzea espero dute.

Alde batetik teiltatua mantentze lanak egiten ari dira eta baita erretanak garbitzen ere. Azken haizeteetan hainbat kalte izan ziren bertan. Horrekin batera, kantxa ere margotzen ari dira. Batez ere eskuin partean eta errebotean dauden kalteak saneatu dituzte eta margoketa integral bat egiten dute. Beltz satinatuz margotuko dituzte hiru paretak, txapak

horiz eta goiko aldea urdinez. Herriko logo berria ere paratuko dute, frontoiaren izenarekin batera. Eserlekuen gibelako paretak ere margotuko dute. Ostatua tresneria berriz hornitzen ari da pilota eskola, eta ostatua ireki eta itxeko modu bat ere paratu dute. Azkenik, frontoiaren kanpoaldean hegoaldeko fatxadak, hartxintxarrak erortzeko arriskua ekiditeko, mantentze lanak egingen dituzte.

Udalaren hitzetan, «Eztegarak merezi du itxura aldaketa, frontoi ederra baita bere tamainagatik eta ezaugarriengatik».



UTZITAKOIA

Lagun Handiak elkarteko irteera

Lagun Haundiak erretiratuen elkarteko kideek Azpeitira irteera egin zuten ekainaren 6an. Goizean trenaren museoa ikusi zuten, eta lurrinezko trenean ibiltzeko aukera ere izan zuten. Loiolan bazkaldu ondotik, arratsaldean Zestoara joan ziren eta Ekain Berri museoa ikusi zuten. Egun ederra pasa zuten.

Iñaki Gogortza Billabona 'Botxo' omendu dute Otsandan

TTIPI-TTAPA

Maiatzean zendu zen Iñaki Gogortza Billabona *Botxo* eta ekainaren 16an agur ekitaldia eta omenaldia egin zioten Otsandan. Herri mugimenduetan berarekin batera aritutako aunitzen ahotsak eta bizipenak aditzeko aukera izan zen.

Bertzeak bertze, Bortzirietako Euskara Mankomunitateko kideak, Berako EH Bildukoak eta ezker abertzalekoak, Harrera Sarekoak, LABekoak eta pentsionisten mugimendukoak mintzatu ziren. Hainbat mu-



Omenaldiaren une bat. A. AGIRRE

sikari ere aritu ziren, eta aurrerakia ere dantzatu zioten. Lore eskaintza egin zioten eta ekitaldia bukatzeko *Internazionala* eta *Eusko Gudariak* kantatu zuten.

**GARBIKETA ZENTROA
AUTOZERBITZUA
DANTXARINEAN**

Lavandería Autoservicio Laundry

MERKATUKO MAKINARIK BERRIENAK

- 2 garbigailu 8 kilora arte
- 2 garbigailu 14 kilora arte
- 4 lehorgailu 14 kilora arte

Ordainketa: **Speed Queen** app-aren bitartez egin daiteke

+34 948 599 236 • www.josenea.es • centrauto@josenea.es
 Egutegia 7/7 irekita, 08:00 - 20:00
 Josenea Zone Auto (Dantxarineko muga) Ctra. N-121-B Km 72,5 Dantxarinea Nafarroa.

Udako ordutegia martxan liburutegian

Uda ailegatzearekin batera, liburutegian ere udako ordutegia izanen da. Ekainaren 17an hasi ziren lanean ordutegi berriak eta irailaren 13ra arte 08:30etik 14:30ak arte egonen da irekia. Tartean, oporraldia dela eta, itxita egonen da egun batzuz.

Aparkaleku berde gehiago paratu dituzte Toki Onan

Kanttonberriko lanak tarteko, Toki Onako aparkaleku arautu guztiak berdeak izanen dira kontraktorik jakinarazi arte

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 17tik aitzinera, eta Kanttonberriko lanak tarteko, egoiliarrentzako diren aparkaleku berde gehiago paratu dituzte Toki Ona Institutu pareko aparkalekuan. Hemendik aitzinera, eta kontraktorik jakinarazi arte, Toki Onako aparkaleku arautu denak autoan bineta berdea dutenentzako izanen dira.

Kanttonberriko lanak «erritmo onean»

Aitzinera segitzen dute Kanttonberriko lanek, eta udalak

adierazi duenez, «aurreikusitako erritmoan» ari diralanean. Kanttonberriko ekialdean egonen den karrika berria eta San Jose egoitza aldera doana berritzeko lanak bukatzen ari dira dagoeneko.

Ekainaren akabailan karrikaren hegoaldean ariko dira eta karrikaren iparraldera sartzeko ahalko da Legia karrikatik. Hala ere, udalak eskatu du «kontu handiz ibiltzeko», lanean segitzen baitute. Oraingoz Kanttonberri eskuragarri dauden plaza berdeak eta urdinak erabiltzeko aukera izanen da.

Ortziralera arte eman daiteke izena turismo teknikari izateko lan deialdian

A. LARRETXE

Udalak turismo teknikaria kontratatatzeko lan deialdia atera du. Kontratua sei hilabetekoa izanen da, uztailearen erdialdean hasi eta 2025eko urtarril erdi aldera artekoa, eta bertze hainbat egitekorekin batera, herriko turismo

plana idatzi beharko du aukeratuak.

Hautagaitzak ekainaren 28ra arte aurkezten ahal dira, eta turismo ikasketak izan eta euskara jakin beharko dituzte izangaiek. Idatzizko proba eta proba praktikoa egin beharko dituzte.

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Ansonea ostatu · jatetxea
T. 948 63 01 07 Foruen plaza, 1 · BERA



Porrotx eta Marimotots udaleko eta Barraskiloko kideekin. UTZITAKOA

185 haur elkartu dira Porrotxen eta Marimototsen emanaldian

A. LARRETXE

Barraskilo Gazte Taldeak eta udalak elkarlanean antolatuta, Porrotx eta Marimotos pailazoen *Zorionak Marimotots* antzerkia egin zuten ekainaren 13an Kultur Etxean. 185 lagun elkartu ziren pailazoen abestiak kantatzeko eta dantzatzeko asmoz.

Gainera, emanaldien bukaeran, pailazoen intxaurren doak oparitu zieten bertaratu ziren haurrei eta heldu den egunetan denek elkarrekin landatzeko aukera izanen dute. Barraskiloko sare sozialetan jakinaraziko dute noiz landatuko duten intxaurren doak.



TTIPI-TTAPA

Transpirenaica Social Solidariari harrera

Harrera egin diote aurten ere Transpirenaica Social Solidaria ekimenari. Gizarte bazterkeria arriskuan dauden gazteak gizarteratzeko proiektua da eta herrian egin zuten geldiadia. Musika doinu hartu zituzten eta alkateak zapi gorri bana oparitu zien.

Zalain Eramateko janaria astelehenetik ortziralera
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info



Langileak Otsango industrialdeko zerrategian egindako elkarretaratzean.

Echeveste Hermanos zerrategian greban segitzen dute

Hitzarmen duina eta zenbait kasutan 2020. urtetik «izoztuta» dauden soldatak KPIren arabera eguneratzea eskatzen dute

AITOR AROTZENA

Echeveste Hermanos zerrategiko langileak mobilizazioa egiten ari dira, hitzarmen duina eta zenbait kasutan 2020. urtetik «izoztuta eta eguneratu gabe» dauden soldatak KPIaren arabera eguneratzea eskatuz. Bi orduko lan utztekin hasi ziren, gero lau ordukoak eta zuzendaritzarekin solasaldiren bat izan badute ere, oraindik soluziobiderik eman ez dietenez, hau idazterakoan erabateko geldialdian daude, txanda guztietan.

24 langile dituen zerrategiko ateak itxiak daude, beraz, eta

horretaz gain, langileak gau eta egun daude Luberrondoko bidegurutzetan, enpresak Katazpegin duen bertze muntaia lantegira joan daitezkeen kamioien joan-etorria geldiarazteko. Jose Gregorio Etxeberria, lantegiko ELAko ordezkariak aipatu digunez, «zuzendaritzarekin saiatu gara hori negoziatzen, baina ez digute deus erraten eta, azkenean, sindikatuarekin adostu eta mobilizazioetan hasiak gara, ea zerbait lortzen dugun». Soluziorik ez bada, mobilizazioekin segitzeko «indarrarekin» daude langileak.



Fagoaga Bagordin lortutako dominekin eta eskopetarekin. A. AROTZENA

Nafarroako Skeet olinpiko txapelketa irabazi du Antonio Javier Fagoagak

Nafarroako skeet olinpiko txapelketa jokatu zen ekainaren 1 eta 2ko asteburuan Bagordin, Baztanen. Joan den urtean bezala, Nafarroako txapeldun suertatu zen Antonio Javier Fagoaga lesakarra. 65 urterekin tiralari beterranoena zen arren, asteburu berean jokaturako Espainiako Erregearen Kopan ere hirugarren izan zen Fagoaga.

Bereziki azpimarratzekoa da Espainiako Erregearen Kopan egindako lana, txapelketa irekia baitzen eta gaur egun Espainiako selekzioarekin aritzen diren hiru tiralariez gain, Frantziakoren bat eta goi mailako gehiago ere bazirelako. Gainera, azken tiraldiak bitarte sailkapenaren buruan zegoen Fagoaga, Espainiako txapeldun eta munduko txapeldun ere izandako batzuen aitzinetik. Azken txandan,

ordea, bi plater huts egin zituen eta hor joan zitzaion garaipena. Halere, hagitx kontent dago Antonio Javier Fagoaga. Beti izan du gustuko plater tiraketa eta bere adinarekin, «erreflejoak eta motrizitate fina lantzeko» ongi datorkion ariketa da, «baita norbere burua estimatzeko ere».

Uztailaren 6an eta 7an Cantoblancon (Madril) jokaturako Espainiako Kopan parte hartzeko da. «Sanferminetako bi egun, tartean *Zubigainekoa*, galtzeak pena ematen dit, baina joan beharko dugu!» dio Antonio Javier Fagoagak.

ESPAINIAKO KOPAN PARTE HARTUKO DU UZTAILAREN 6-7AN MADRILEN



· INGENIARITZA ELEKTRIKOA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450

· BOLETIN INDUSTRIA
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Legia, 23 - BERA



Salgai dauden pisuak bilatzen ditugu
Pisuren balorazioa doan eta konpromisorik gabe

943 930 025 | Prudencia Arbide, 2 • 20304 IRUN | www.3hiruhome.com



BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK



TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN



facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

LESAKAKO BESTAK 2024

Egitaraua



Uztailak 5, ortziralea

18:00etan Tantirumairu Euskal Folklore Taldearen dantza erakustaldia pilotalekuan. **22:30ean** Plaza Zaharrean kontzertuak: Ibil Bedi, Añube, DJ Fifi&Fefa.

Uztailak 6, larunbata

10:30ean Lesakako Erraldoi eta Buruhandien konpartsaren kalejira. **12:00etan** Herriko Etxetik piztuko den altxaferoaren ezta emanen die hasiera aurtengo beste. Ordu berean txistulariek, soinulariek, trikitilariek, ElutxaTxarangak eta haur ttikien danborradak girotuko dituzte herriko karrikak euren soinu alaiekin. **17:00etan** Arkupe Pilotazale elkarteak antolatutako I. Benito Tainta lau eta erdiko pilota txapelketaren finalak udal pilotalekuan. **20:00etan** Altxaferoa bota ondotik danborrada nagusia abiatuko da, Lesakako Erraldoi eta Buruhandien konpartsa, danbor-jole, Lesakako Banda eta guzti, herri erdigunetik itzulia emanez. **23:00etatik aitzine-ra** Trikidantz taldearen emanaldia Plaza Zaharrean. **Ondotik** Endara DJ.

Uztailak 7, igandea

08:30ean Ezpata dantzarien meza ixila. Joan-etorria Txistulari taldearen laguntzaz egingen da. **10:30ean** Udalbatza bertze agintariekin, Ezpata-dantzari eta Musika Bandarekin batera, herriko ikurrak aitzinean dituztela, abiatuko dira Herriko Etxetik elizara, Meza Nagusira. Bertan, Lesakako Abesbatzak parte hartuko du. Meza ondotik, Fermin Zaindariaren irudiarekin herri erdigunetik prozesioa egingen da. Ondotik, Udalbatza, lehen aipatutakoekin, mezara joan diren moduan jaitsiko da Eskolttikira, Onin errekarren bi aldeetan egiten den Zubigainekoa dantza ikustera. Honen ondotik, Bandera-arbola doinuari dagokion ikurrin-agurra zubi gainean. Agur edo dantza bera Plaza Zaharrean, ikurra Herriko Etxera igan aitzinean. **18:00etan** Bezperak; Elizara joan-etorria Meza Nagusira bezala egingen da. Bezperetan, Lesakako Abesbatzak kantatuko du. Bezperak bukatu ondotik, eta ohiturari jarraiki, herriko dantzariak Zantzomonona, Esku dantza, Aureskua eta Jota eta Porrusalda dantzatuko dituzte. →

HERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

ONGI PASA BESTAK! 948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

Zelai Ind., 42 Bera.

TRANSPORTES IRIGOYEN
ONGI PASTA BESTAK
629 592 215 - Biurrana auzoa, 1 - LESAKA

IÑAKI JANARIDENDA
- ONGI PASA BESTAK -
Arretxea, 12 • LESAKA • 948 638 287

LIDERA
HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL
astelehenetik ortziralera
08:00-13:00
15:00-20:00
larunbatetan goizez

GOZATU SANFERMINAK!

Iturrunzubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA (Na)
Tel. 722 662 478 | lidera@hortzklínika.es
@liderahortzklínika

OTSANGO
Astelehenetik asteazkenara: **08:00-21:00**
Ortzegunetik larunbatera: **08:00-00:00**
Igandeak itxita

**Menuak
Bokatak
Errazioak
Plater
konbinatuak**

Otsango ind.
LESAKA 948 396 480

ONGI PASA BESTAK!

ONGI PASA BESTAK!



◀◀◀◀ H I R U K I D E ▶▶▶▶

Eguzki panelak ◀▶▶▶ Iturgintza
 Industria mantenimendua ◀
 Aire egokitua ◀

T./F. 948 625 395
 Alkaiaga ind. • Alasta, 4-6 Behea • 31770 LESAKA

ongi pasa bestak!



IZARRA OKINDEGIA

PLAZA ZAHARRA 12~13
 31770 LESAKA NAFARROA
 TEL: 948 637 855

Zegoxoa

GORA SAN FERMIN!
Besta onak opa dizkizuegu!

BERA Kanttonberri, 3 t. 948 630 381	LESAKA Plaza Zaharra, 17 t. 948 637 294	
ELIZONDO Santiago, 47 t. 948 580 859	DONEZTEBE Zazpigurutze, 4 t. 948 451 332	LEITZA Landabekoa, 2 t. 948 610 612



ARRANO
ostatua
Albistur 13, Lesaka. 948 627 597

KROKETAK, PINTXOAK, BOKATAK,
 ENTSALADAK, PLATER KONBINATUAK
 ta giro bikaina

PRESO TA IHESLARIAK ETXERA!



19:00etan Plaza Zaharrean, bertso saioa, Arrano Elkarteak antolatua. Bertsolariak: Ekhiñe Zapiainen agindupean: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Jone Uria, Josu Sanjurjo eta Kattin Madariaga. **21:00etan** Larrain dantza Lesakako Gaitariekin Plaza Zaharrean. **00:00etan** Musika Plaza Zaharrean Eztitan taldearekin.

Uztailak 8, astelehena

08:30ean Diana Lesakako Gaitariekin: Plaza-Ote-Ikastola-Koskontako Bidea-Andra Mari egoitza. Peñen gosaria. **10:00etan** Peñen danborrada Elutxa txarangarekin, **12:00etan** betizuak Plaza Zaharrean Elutxa txarangarekin. **18:00etan** peñen elkartzea Elutxa txarangarekin, peñen jaitsierarako. **20:00etan** Sakatu Elektrotxaranga. **00:00etan** Itzal taldea Plaza Zaharrean.


Uztailak 9, asteartea

08:30ean Diana Lesakako Gaitariekin gasolindegitik plazara. **10:30ean** haur eta gurasoen danborrada. Ondotik, buruhandiak eta haurrentzako entzierroa. **12:00etan** betizuak Plaza Zaharrean Elutxa txarangarekin. **16:00-19:00** haur ikuskizunak

Eltzeta Plazan. Ondotik, apar besta. **17:00etan** esku pilota partida profesionalak frontoian. **19:00etan** Elutxa txaranga karrikaz karrika. **20:00etan** DJ Xaibor emanaldia Plaza Zaharrean. **22:00etan** Zezensuzkoa. **00:00etan** DJ Xaibor emanaldia Plaza Zaharrean.

Uztailak 10, asteazkena

08:30ean Diana Lesakako Gaitariekin, Martxanpaitatik plazara. **10:30ean** Ahaurrentzako *Up!!* zirku eta umore ikuskizuna Harriondoan. Ondotik, haurrentzako entzierroa Harriondoatik Plaza Zaharrera. **11:00etan** Andra Mari Zahar Etxeko lorategian, Bankako Menditarrak. Ondotik, Alondigiko arkupeetan. San Fermin Jubilatua eta Pentsionisten Elkarteak antolatua. **12:00etan** betizuak Plaza Zaharrean, Elutxa txarangarekin. **13:45ean** herri bazkarira kalejiran Elutxa txarangarekin. **14:30ean** herri bazkaria Eltzeta Plazan. Ondotik, musika emanaldia Andoni Mitxelenaekin. **18:30ean** Txakaindik jaitsiera Zortziko doinuarekin. **20:30ean** Puro Relajo musika taldea Plaza Zaharrean. **00:00etan** Jai-Hilak Elutxa txarangarekin.



BAR · RESTAURANTE

KASINO

OSTATU · JATETXEA

Jai alai eta pozgarriak izan itzazue

PLAZA ZAHARRA, 14
 TEL: 948 637 152
 948 637 287

TRANSPORTES
bidasoa



Besta zoriontsuak opa dizkizuegu Lesakar guztiei!

Zerbitzuaren fidagarritasuna · Flota handia eta modernoa · Soluzio logistikoak



ADMINISTRAZIOA ETA ZERBITZU ZENTRALAK

Alkaiga ind. Ziobi kalea - LESAKA (Nafarroa)
Tel. 948 637 901 | administracion@transbidasoa.com

DELEGAZIOAK

ARABA BARTZELONA BIZKAIA GUADALAJARA
PONTEVEDRA SEVILLA VALENTZIA

GORA SANFERMINAK
borobildu
 lagunak diren lekuan,
 beti dago besta!

urtek
 water technologies · uren tratamenduak
 Ongi pasa bestak!!
 POTABILIZAZIOA, DESMINERALIZAZIOA,
 DESKALTZIFIKAZIOA, OSMOSIA, FILTRAZIOA,
 BERRERABILPENA, DEPURAZIOA,
 PRODUKTU KIMIKOAK, INSTALAZIOEN MANTENUA
 T. 948 638 188 | urtek@urtek.org | www.urtek.org

GESTETIKA
MIGARZABAL
 Ongi pasa bestak!
 Albistur 17, LESAKA · 948 637 280

ITURBENA ONGI PASA BESTAK
 kafetegia
 Koskontako bidea 5, behea - LESAKA

Gora San Fermin!
kattagorria
 EUSKAL JANTZIAK
 BEHEKO PLAZA 10. LESAKA · 948 627 514
 WWW.KATTAGORRIA.COM

«Ikastolaren 50 urteko ibilbidea ordezkatu nahi dugu txupinazoan»

TANTIRUMAIRU IKASTOLA 50. URTEURRENEAN TXUPINAZOAN



Tantirumairu ikastolak 50 urte bete ditu aurren eta hori kontuan hartuz, Sanferminetako txupinazoa pizteko ardura eman dio Besta Batzordeak. Aitzinetik, San Joan bezperako edo udako solstizioko bestako sua ere piztekoa zuten. Beraz, ospakizun ekitaldiz bete ia zuten mende erdiko ikasturtea, azken "traka" ederrekin bukatuko dute. Oraindik bestetako lehen suzuria piztuko duten eskuak zeinenak izanen diren erabaki gabe dutela, Tantirumairu ikastolako guraso, irakasle eta langileek osatzen duten batzordearekin izan gara.

1974-75 ikasturtean abiatu zen Tantirumairu ikastola, zazpi ikaslerekin. «Hori izan zen abiapuntua –diote batzordeko kideek–, eta lehen mugarririk garrantzitsua 1988ko Nafarroa Oinez izan zen. Horrek ekarri zuen Otxogorriena eraikina erabat berri-tzea, lehen herrian barnasakabanatuak zeuden ikasgelak eraikin horretan bateratzea eta 1991n, legeztapena. Horrek, bai ekonomikoki, baita familiariztat ere, lasaitasuna eta segurtasuna ekarri zuen. 2017ko Nafarroa Oinez ere garrantzitsua izan zen, horrek ekarri baitu Intxaurrenea, bigarren egoitza, eraiki ahal izatea eta bi urteko gelaren legeztapena. Tartean, 25. urteurreneko ospakizuna ere goratu beharko genuke, liburua argi-

taratu zen eta ospakizun polita izan zen. 25+25, ailegatu gara 50era».

Mende erdia hainbat ekitaldirekin ospatu dute eta balorazio hagitz ona egin dute: «Urte guztia borobildu nahi izan dugu eta ekitaldi bakoitzean begirada talde batengan paratu dugu. Hiru ekitaldi nagusi egin dira eta bakoitzean talde bat izan da protagonista. Ikasturte hasieran, urrian, Intxaurrenea eta Tantaia aurkeztu genituen eta lehendabiziko guraso eta bazkide sortzaileak izan genituen gogoan, haiek izan zuten indarra eta adorea hau sortzeko. Tantaia irudikatzen du elkarlanean eraikitako zerbait, deus ere ez dagoen toki batetik altxatutakoa, proiektu bat, amets bat izan daitekeena. Enbor horretatik adarrak atera ziren eta, horregatik, apirilean ikasle ohiak izan ziren protagonista eta ikasturte bukaerako jaialdian eta bazkarian, gaur egungo ikasle eta familiak, azken adaxkak. Balorazio hagitz positiboa egiten dugu, batzordearekin elkarlanean talde bat aritu da ekitaldi hauek antolatzen. Gauza xumeak izan dira, baina bihotzera iristen direnak. Sor-kuntza lan bikaina egin dute eta hagitz eskertuak gaude. Parte-hartze handia izan da eta hagitz ospakizun politak izan dira».

San Joan sua eta txupinazoa

50. urteurreneko ospakizunak ikasturte bukaerako jaialdiarekin bukatuko zirela uste zuten, «baina badi-rudi herriak ere bertze zerbait eskaini digula», aipatu digute. «San Joan sua piztearena erabat lotzen dugu euskararekin eta gure burua ere hala sentitzen dugu, euskararen transmisio lan horretan eta errekonozimendu bat bezala hartu dugu. Eta txupinazoarena, herri mailan, kulturen, herrigintzan... egindakoaren aitor-tza bezala». Ilusio handiarekin hartu dute eskaintza, «ohore bat da, urte aunitzetako lan aunitzeri egiten zaion

errekonozimendua da. Bai San Joan bezperakoa, baita sanferminetako txupinazokoa, sentitzen dugu 50 urtetako lana saritzen dela. Orduan, moduren batean nahiko genuke ordezkatu 50 urte horietako ibilbidea eta horretan saiatuko gara. Ikastolako komunitate guztia ordezkatur sentitzea nahi dugu».

Jende horrek guztiak, bakoitzak sanferminak bizitzeko bere modua izan du, baina urterik urte ikastolak sanferminetan paratzen duen ostatuan lanean bildu dira gehienak. Aurten ere ez dute hutsik eginen: «Horren ardura bosgarren eta seigarren mailako gurasoek eramaten dute eta aurten ere, azken bizpahiru urtetan bezala, ikastolaren ostatur frontoian izanen da. Jakin badakigu ekonomikoki diru-sarrera bat suposatzen duela ostaturak, baina gero, egia da, guretzat garrantzitsuagoak diren bertze onura batzuk ikusten dizkiogula ostaturari: hor badugu elkargune bat, badakigu non dagoen, euskarari eta euskarazko musikari

arnasgune bat eskaini nahi diogu, garai bateko eta oraingo familiak non elkar gaitezkeen... Sanferminetan ikastolaren presentzia baloratzen dugu, ekonomikoki bai, baina batez ere elkargune hori baloratzen dugu. Egia da denontzat lana dela, baina auzolanari alderdi positibo aunitz ikusten dizkiogu, batez ere, gure seme-alaben eredia hor dagoelako. Gaur egun guraso diren aunitzek beraien gurasoengandik ikasi duten zerbait da eta hori baloratzen dute eta hori nahi dute beraien seme-alabentzako ere».

Bukatzeko, «herriari hagitz eskertuak» daudela azpimarratu nahi dute, «horrelako aukera, ohorea eta ardur eman digulako».

«MENDE ERDIAN EGINDAKO LANA SARITZEN DELA SENTITZEN DUGU»



Lesaka - Bera 

AUTOESKOLA

Ongi pasa bestak!

Eztegara, 12 • BERA Iturrunzubiko plaza, 8 • LESAKA
948 630 652 948 637 870



gure baserriko esnearekin **LESAKA**n egindako gazta

bertakoa, familiarra, tradizionala, naturala...

AGORLEKU BASERRIA
Izotzaldea 7 auzoa
Lesaka

Ongi pasa bestak!

 Tel.: 670 74 95 49 | info@agorleku.eus | www.agorleku.eus

semper **autoeskola**

ESKINTZA BEREZIAKI!

Ikastaro teorikoa nahiz praktikoa euskaraz!

- INFORMATU ZAITEZ -

Eztegara pasealekua, 26 Plaza Berria, 7
BERA LESAKA
T. 948 630 298 T. 948 638 299

e-posta: semperautoeskola@gmail.com
ongi pasa bestak!

GORA SAN FERMIN!




Zure konfiantzazko loradenda, beti bezala aholkatzeko prest!

Otsango auzoa • **LESACA** • T. 948 637 826

asegi asesorias 

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 F. 948 580 648	Eztegara pasealekua, 22 31780 BERA T. 948 631 108	Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 - F. 948 451 304	Eltzeta, 20 31770 Lesaka T. 948 638 077
---	---	---	---



KONTABILITATEA
ZERGAK
AUTONOMOAK
LABORALA-NOMINAK-KONTRATUAK
AHOLKULARITZA JURIDIKOA
ERRENTA AITORPENAK
ESKRITUREN TRAMITAZIOA
(HERENTZIAK, SALEROSKETAK...)
KONTRATU PRIBATUAK
GESTORIA LANAK

ONIN
AGENTZIA

Ongi pasa bestak!

Bittiriako Plaza 8, Lesaka (Nafarroa) 948637359-688665581 onin@oninagentzia.com



haurrentzako arropa denda

**ONGI PASA
SANFERMINAK!**

T. 948 627 583
Arretxea 20, Behea
LESACA



Bittiria 2B, Lesaka
info@intzurioptika.com
☎ 948 627 550
📷 @intzuri_optika

INTZURI
optika

Ongi pasa bestak!

Sanferminetan
otordu goxoak
prestatzeko
...



suma

Ongi pasa bestak !!

Plaza Berria, 10
T. 948 637 335

LESACA
gara



Lesakako Udalak besta zoriontsuak opa dizkizue.



LESAKAKO
UDALA

«Herri besten izaera da sanferminei indarra ematen diena»

ENEKO FERNANDEZ MARITXALAR KULTUR ETA KIROL ZINEGOTZIA



kin lotzea komeni da. Urtarril aldera martxan jartzen gara aukerak baloratuz eta lehenengo urratsak emanez. Normalean Besta Batzorde irekia martxo-apiril aldera deitzen dugu, egitarauarekin lotutako alorrak aipatzeko, batik bat. Ohartu gara beranduegi dela zenbait gauza antolatzeko (musika talde gehienek ordu-rako kontzertuak lotuta dituzte...) eta datorren urtean Besta Batzordea ere urtarrilean hasiko da lanean».

100.000 euroko aurrekontua

Aurten 100.000 euro inguruko aurrekontua izanen dute Sanfermin guztietarako (programazioa, garbiketa, komunen alokairua... dena barne), «iazko urtearekin konparatuta gorakada bat eman da, 10.000 euro ingurukoa, kontuan izanik aurten egun bat gehiago dugula, uztailaren 5ean hasiko baitira bestak Tantarumairu Dantza taldearen emanaldiarekin eta Rock kontzertuarekin». Diruak baldintzatzen du ekar daitezkeen taldeak edo ekitaldiak, «baina ez zait iruditzen sanferminen xarma horretan oinarritzen denik. Zerbaitengatik ezagunak badira Lesakako bestak herri giroarengatik da, herri besten izaera da sanferminei indarra ematen diena. Eta hori presente dagoen →

Lan handia izaten da Herriko Etxean ere sanferminak antolatzea, Eneko Fernandez zinegotziak aipatu digunez: «Bortz eguneko egitaraua (aurten 6 egunekoa) duten besta batzuk ekitaldi ugari elikatu behar dira eta horrek antolaketan lan handia egitea suposatzen du. Programak ez du aldaketa handirik izaten urtetik urtera baina gauza guztiak denborare-

Pinpirin
 PELUQUERÍA ILEAPAINDEGIA
Besta onak pasa Itzazu!!
 Plaza Zaharra, 26 • Lesaca
 T. 948 63 80 37

Etorri Lesakako instalaziora, eta gozatu dauden aukerekin!

ONGI PASA SANFERMINAK!
 LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA
 T. 948 637 400 • kiroldegia@lesaca.eus
 www.lesakakoudalkiroldegia.eus

- Estetika
- Hialuronikoa
- Protesiak
- Endodontziak
- Inplanteak
- Hortz zuritzeak
- ...

LÁCAR
 CLÍNICA DENTAL - HORTZ KLINIKA

Betiko lekuan eta betiko moduan jarraitzen dugu,
 Besta zoriontsuak opa dizkizuegu!

948637282 / 943623997
 Antoiu kalea, 7, Lesaca
 Aldapeta kalea, 2, 2.B, Irun

Domiko
 calefacción sostenible

ESTUFAS ETA KALDERAK
 Pellet eta egurrean espezializatuak

ONGI PASA BESTAK!
 www.domikorenovables.com | 639 914 455

XAGU LIBURUDENDA
LEJAKA
 lesaka@legarra.org
 948/638232

ERABILI HEMEN ZURE GAZTE KULTURA BONUA

#BonoJovenCultural
bonoculturajoven.gob.es



Antoiu
OSTATUA
 Goizeko 6etatik aitzinera idekia.

**GOSARIAK
 PINTXOAK
 BOKATAK
 ERRAZIOAK**

ONGI PASA BESTAK!

Antoiu, 17-LESAKA | 948 63 73 93 - 631 02 79 50

TRANSTXAKAIN
 TRANSTXAKAIN, s.l.
 JESUS ARAMBURU ALZUGARAY

MOTA GUZTIETAKO IBILGAILUAK

EROTXAKAIN S.L.

GAIKAKO HONDAKIN BILKETA

Gora San Fermin!

T. 669 840 198 / 948 638 052
 Faxa: 948 627 578
 Otsango Ind. 28 • LESAKA
info@transtxakain.com

bitartean, ikuskizun edo musika taldeen katxea bigarren maila batean gelditzen da». Aldaketaren bat ere bada programan eta gaiteroen dianek izanen dituzten ibilbide ezberdinez gain (orokorrean, saiatu gara musika taldeen ibilbide guztiak programan zehazten), bertze bi berrikuntza nabarmendu ditu Fernandezek: Larrain dantza herrikoa izanen da uztaillaren 7an, 21.00etan, bertso saioaren ondotik. Eta bertzetik, uztaillaren 9an zezensuzkoaz gozatzeko aukera edukiko dugu».

Bertsotan eta ezpatadantzari

San Fermin egunean lau aldiz ezpata dantzari ateratakoa da Fernandez, «eta esperientzia bereziki polita eta hunkigarria iruditu zitzaidan, herriko gazte guztiak, salbuespenik gabe, noizbait disfrutatu beharko luketena». Bertsolaria ere bada, eta uztaillaren 7ko plazako saioak egitarauan bere lekua egin duela eta harrera ona izaten duela nabarmendu du: «Egun berezia da San Fermin Eguna baina urteetako lanari esker lortu da bertsoak ere bere espazio propioa izatea betetan. Nik, oker ez banago, lau aldiz kantatu dut sanferminetako saioan. Berezia da herritarren aitzinean kan-

patzea, San Fermin egunean... Aitzineko egunean pixka bat zaintzea ere eskatzen du eta bezpera eguna izanik, ez da erreza izaten. Baina nik kantatutako bertso saioen oroitzapen ederak ditut». Sanferminzalea ere bada, noski, «gustatzen zaizkit bertako giroa, gustuko dut astetarteko giro herrikoa baina gustuko dut, era berean, asteburuetan etortzen den jende oldea eta sortzen den giroa. Latsaga peñako kide naiz eta egunik gustukoena ere hori da niretzat, Peñen eguna. Goizean elkartu, betizuen ondoren falta zaizkigun peñakideen omenezko brindisa, Arranon bazkaria, peñen jaitsiera... eta gero ahal duenak ahal duena. Beti da berezia». Bukatzeko, gonbidapena: «Lesakako sanferminak Herri Besten erakusgarri dira eta bai lesakar, bai kanpotar bestetako ekitaldietan parte hartzera animatzen ditut, giro onean eta ahalik eta ongien pasatzeko asmoarekin».

«PEÑEN EGUNA DUT GUSTUKOENA, BETI IZATEN DA BEREZIA»

muebles ORDOKI altzariak

Ongi pasa sanferminak!

Bittiria, 18 | LESAKA

www.mueblesordoki.com
info@mueblesordoki.com

948 638 076

Ainhoa Alzuguren Mitxelena **ongi pasa bestak!**

Abokatutza orokorrean
 Herentziak
 Alokairuak
 Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut.
 Deltu hiltzordua hartzeko.

Legia 42, BERA
 M. 630 97 21 89
ainhoaaltzuguren@gmail.com



JANARI
GURE SUKALDETIK ZURE ETXERA

San Pedro, 24 · 20304 IRUN
 ☎ 623 116 265
 📷 @janari_irun

GUK PRESTATU,

ZUK DISFRUTATU

Etxe(r)ako janaria
 Zure partez kozinatzen dugul!
 Menua, karta, tortillak,
 bizkotxoak...



Lesakara enkarguak ekarriko ditugu





MARKA GUZTIEN KONPONKETA
 MEKANIKA • ELEKTRIZITATEA • TXAPA • PINTURA
 Tel.: 948 62 55 55 • Fax: 948 62 55 05
 e-mail: zoansa@zoansa.com
 Banarta, 2 • Alkaiaga Ind. • 31789 LESAKA (Nafarroa)

E D A R I A K

Ongi pasa bestak!

MANUEL TABERNA S.L.

📍 Bidasoa, 76 - 31780 BERA
 ☎ 948 63 10 27 📞 670 598 560
 📧 info@tabernaedariak.eus
 🌐 www.tabernaedariak.eus



BIDASOA
 GURPILAK - GASOLINDEGIAK
 1999. URTETIK

**PARTIKULAR ETA GARRAIOLARIENTZAT
 ZERBITZU ANITZAK**

Ibilgailu guztietarako gurpil eskaintza bereziak
24h-ko asistentziak errepideetan
 **IAT aurreko zerbitzua dohainik**
Gasolindegia 24h irekita

**GASOLIOA
 ETXERA**
 eramaten dugu



☎ **609 446 693 - 679 204 872**
bidaso@neumaticosbidaso.es
www.neumaticosbidaso.es

Eska ezazu BIDASOA txartela erregaian deskontuak izateko

📍 **Alkaiaga Industrialdea**
 Ziobi Kalea 6
 31770 Lesaka (Nafarroa)
 948 625 663 - 636 293 125

**Ongi pasa
 bestak!**

📍 **Noain-Eskiroz Industrialdea**
 Y Kalea 10
 31110 Noain (Nafarroa)
 948 312 239 - 679 204 872

Ongi pasa bestak!

DANI
INSTALACIONES
VEINTIETEA
LESAKA

☎️ 📄 🕒 🔥
⚡ 💡 📞 📧

ELEKTRIZITATEA
SEGURTASUN KAMARAK
INTERFONOAK
SUTE DETEKZIOAK

T. 666 545 069
daniinstalaciones@gmail.com

Ongi pasa bestak!

Saioa Mitxelena
ETXEBIZITZEN AHOLKULARITZA

609 057 040
nereetxea@hotmail.com
www.inmobiliariasaiomioitxelena.com

JUBILATUEN OSTATUA
L.A.R.
SAN FERMIN

MENU BEREZIA - BOKATAK

Sanferminetan 24 orduz irekia

📞 631 837 959 - 948 62 75 12
Behoko plaza, 9 - LESAKA

«Janzkera zuzena nahi genuke bestetako danborrada guztietan»

AMAIA TELLETXEA MENDIGUTXIA DANBORRADAKO ZUZENDARIA

«Hiru danborretako zuzendariak, bezperakoa, peñen egunekoa eta haurren danborradakoa, udalarekin elkartu gara eta janzkeraren zuzentasunari buelta bat ematea beharrezkoa dela ikusi dugu. Ez dugu deus berririk eskatzeko asmorik, erabili behar den arropa zein den oroitaraztea adostu dugu, bertzerik ez», aipatu digu 2016tik bezperako danborrada zuzentzen duen Amaia Telletxeak. «Dantzariak bere janzkera, peña bakoitzak bere blusa eta buruhandiek beraien mozorroa duten moduan, danborradan parte hartzen dugunok ere badugu gure uniformeak, bertzeak bezain beharrezkoa. Danborrada parte hartu nahi duen guzientzat irekia da, goazen denen artean zaindu eta errespetatzera», dio. Eta zein da bada, janzkera egokia? «Garai batean gizonetakoek galtza xuri luzeak jartzen zituzten eta lehenbiziko emakumeak gona tolesdunarekin ateratzen ziren. Orain kontua ez da hain zorrotza. Soineko, kamiseta, galtza, gona... nahi dena ibil daiteke, baina erabat xuria, hori bai. Sokak, faja, painulu eta boneta gorriak jantzi behar dira. Danborrak ere Lesakako estilokoa behar luke: baxua eta xabala». Halere, garbi utzi nahi du aholkuak direla: «Ekintza herrikoia eta irekia izanik, jendeak



parte hartzea da garrantzitsuena. Orain ari garen bezala, urtero 200 danbor inguruk parte hartzen dute bezperako danborradan, ze polita! Halere, ez dugu ahantzi behar ohiturazko ekitaldi bat izanik, badituela bere arauak eta errespetatzen saiatu behar garela». Seriotasuna baino gehiago, fundamentua nahi dute: «Bezpera eguna da, denak bestarako gogo handiarekin egoten gara eta aunitz bazkaritik heldu gara danborradara. Alaitasuna, emozioa, go-goa, urduritasuna... nabaritzen da giroan, ez seriotasuna. Baina horrek ez du erran nahi fundamentuz egin ez daitekeenik. Goazen ohiturari bere garrantzia ematera, zaintzera».

JOISA

AROZTEGIA
MAKINA ERREMINTA
ERAIKUNTZA MEKANIKOAK

Barandak, balkoiak, atekak, hesiak, forja artistikoa, ...

T./F. 948 638 150
M. 646 774 117

www.talleresjoisa.com **ONGI PASA BESTAK!**
Otsango Ind. • 31770 LESAKA • talleresjoisa@hotmail.com

ALZUGARAI
ESKABAZIOAK

Hondaketa eta garraio lanak

T. 646 986 448

Nabaz auzoa
Guillen-borda
31770 Lesaka

ONGI PASA BESTAK!



Ekainaren 10ean egin zuten furgonetaren aurkezpena Etxalarren. UTZITAKOIA

JubiloteKaren garraiorako furgoneta egokitua erosi dute

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak CaixaBank eta Ibardin Merkataritza eta Ostalaritza Elkartearen laguntza izan du

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak aurrerapauso nabarmena eman du adinekoen bizi-kalitatea hobetzeko furgoneta egokitu bat erosita, landa-eremuek duten zailtasun handienetako bati erantzunez: sakabanatze handia eta garraio publiko falta. Garraio publikoaren gabezia hori bereziki nabarmendu da JubiloteKetan, adinekoentzako gunean, non garraio egokituaren eta irisgarriaren beharra funtsezkoa den. Behar horri erantzuteko, Mankomunitateak CaixaBank eta Ibardin

Merkataritza eta Ostalaritza Elkartearen laguntza ekonomikoa izan du, eta horregatik eskerrak eman nahi dizkiete. Gainera, Elkarrizan Taldeak ere bat egin du proiektuarekin. Xabier Etxarte, Mankomunitateko presidentea, ekimen honen garrantzia azpimarratu du: «Erakundeen arteko lankidetzeta eta komunitatearen inplikazioa ezinbertzekoak dira landa eremuetan ditugun oztopoak gainditzeko. Furgoneta egokitu hau erosita eta Elkarrizanen laguntzarekin, gure adinekoen bizi-kalitatea nabarmen hobetzen ari gara».

Substantzien kontsumoaz hausnartzea eskatu du Gizarte Zerbitzuak

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak «substantzien kontsumo ereduari edo kontsumo ezari buruzko hausnarketa egiteko» gonbita egin du, eta «bestetan nola gozatu pentsatu ez baduzu, ideia batzuk» proposatu ditu.

Adingabeei, alde batetik, substantzien kontsumoa «legeak galarazia» duela oroitarazi nahi izan die, eta horrez gain, «jakin badakizu garatzen ari diren gorputz, garun eta lagun talde baten jabe zarela». Hala, «aunitzetan adinez goizegi, informazio aunitziz gabe



UTZITAKOIA

Eskualdean ere Palestinarekin bat

Genozidioa Stop. Europa ez izan konplize lelopean Palestinaren aldeko manifestazioa egin zuten ekainaren 8an Iruñean, eta eskualdeko hainbat herritar hurbildu ziren. Bortzirietatik eta Baztandik autobusa antolatu zuten Iruñera joateko, eta argazkiko kuadrilla ederrak halaxe egin zuen.



UTZITAKOIA

Alkaiagako bizilagunekin bilera

Alkaiagako bizilagunekin bildu ziren Lesakako udal ordezkariak ekainaren 17an, auzoan egingen den ur zikinaren inguruko hobekuntza lanei buruz aritzeko. Lanak abuztuan hasiko dira. Zuzendaritza lanak Krean-ek eramanen ditu eta lanak Sasoi enpresak egingen ditu.

edo arrisku pertzepziorik gabe, edo lagun giroak xurgatuta, edo momentua bizi behar izatearen tentazioz, erabaki arriskutsuak hartzen ahal direla» ohartarazi du. Halakorik ez gertatzeko, «gelditu, pentsatu, erabaki eta erran!» aholkatu du: «Errespetu zaitzazela eta errespetu ezazu!». Adinez nagusiak direnei, berriz, «kontsumo legeen mugarik ez duten arren, ardurak eta bizi

esperientziak erakutsitako irakaspenak» hori dituztela aipatu nahi izan die Mankomunitateak. Horregatik eskatu die «zentzuz jokatzeko, eredu zara zure inguruko haurrentzat, gazteentzat, herritarrentzat eta bisitariarentzat». Gehiago ere bai: «Zure barreneko nahiak aditu, erran eta errespetarazi». Eta «kontsumorik gabeko bestak ere gozagarriak» direla gaineratu du.



Udaberriko txapelketan parte hartu dutenetako batzuk. OIHAN IPARRAGIRRE

Udaberriko XXII. pilota txapelketako finalak jokatu dituzte

Orain, 26 pilotari hasiko dira Etxalarko bestetako txapelketa jokatzeko eta abuztuaren 17an izanen dira finalak

IRUNE ELIZAGOIEN

Ekainaren 13an jokatu ziren Udaberriko XXII. txapelketako finalak. Txikienen mailan, Urtzi Olagarai eta Elaia Larretxeak 18-10 irabazi zieten Xuban Mendikoa eta Aner Garderi. Benjaminetan, Juel Igoak 22-6 irabazi zion Edur Ansonori. Alebinetan, Beñat Ansalasek 22-21 irabazi zion Noa Otazori. Infantiletan Erik Igoak 22-6 irabazi zion Iker Otxotekori.

Igoa Nafarroako txapeldun

Ekainaren 8an Nafarroako bikotekako txapelketaren fi-



Erik Igoa Nafarroako txapeldun.

nala jokatu zen Labriten. Erik Igoa Iñaki Leitzaraneekin aritu da txapelketa honetan, eta finalean 18-13 irabazi zieten Barañaingo Elizalderi eta San Romani.

Elkarrekin gantxiloa egiteko eguna ekainaren 28an

Ekainaren 28an elkarrekin gantxiloa egiteko aprobeztatu nahi dute, ortziralean 18:00etan Pello Apezetxea Kultur Etxe azpian. Helburua, atarian dagoen harrizko bankuko kuxina berritzea. Gantxiloa egiten ez dakiena ere joan daiteke, bertan ikastera.

Igerilekuetako udako denboraldia martxan da

Ekainaren 22tik irailaren 1era arte zabalik egonen dira igerilekuak. Bonuak jaso daitezke Rural Kutxako bulegoan edo Herriko Etxean, baina aitzinetik ordainketa egin behar da CaixaBanken edo Rural Kutxan. Bonua hartzeko nortasun agiria aurkeztu behar da.



MAIDER ANSALAS

Lehenengo frontenis txapelketa

Lehenengo frontenis txapelketa jokatu dute zenbait emakumek lagunartean. Hamahiru bikote aritu ziren kanporaketetan eta ekainaren 15eko final lehiatuan Maider Ansalas eta Ane Telletxea izan ziren txapeldun, Itziar Etxarte eta Ainhoa Berruetari irabazita.



AFRICA BERASAIN

Imanol Vicente txapeldun Mirandan

Ekainaren 8an jokatu zen XXX. San Juan trofeoaren lasterketa Mirandako autokros zirkuituan, Gaztela eta Leon eta Nafarroako txapelketetarako puntuagarria zena. Imanol Vicentek parte hartu zuen Carcross kategorian eta 21 parte-hartzaileen artean bera izan zen lehena. Zorionak!

F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

ELUTSĀ

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENUAK PINTXOAK - BOKATAK - RAZIOAK

Anduetzeta, 13 - ETXALAR T. 948 635 191

San Migel bestetako programaren azal lehiaketa deitu dute

Herritarrek lanak abuztuaren 9ra arte aurkez ditzakete eta irabazleak 150 euroko saria izanen du

ANA ETA ITZIAR

Igantzi Udalak sanmigeletako esku-programaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatu du aurtengoan ere. Lanak abuztuaren 9ra bitarte aurkez daitezke. Marrazkiz edoz argazkiz eginak aurkezten ahal dira lanak, 27x19 cm-ko neurriarekin. Derrigorrez, *Igantzi Sanmigelak 2024* testua agertu beharko da. Igantzin sortu edota bertan bizi direnek parte hartzen ahal dute. Lanak aurkezteko epea zabalik dago abuztuaren 9ra arte, honelako lehiaketetan ohikoa den sis-

tema erabiliz (Lana sobre batean sartuta aurkeztu behar da udal bulegoetan, izenburuarekin eta barrenean bertzeak datuak).

150 euroko saria

Saritutako azalaren egileak 150 euroko saria irabaziko du. Saritutako lana udalaren esku geldituko da eta bertzeak itzuliko dira, baina programan argitaratu ahal izanen dira. Epaimahaia Besta Batzordeko kideek eta herritarrek osatuko dute.

Patri Arburua euskaltzain urgazle izendatu dute

Euskaltzaindiak 21 ohorezko euskaltzain eta bederatzi urgazle gehiago izendatu zituen maiatzaren 31n Baionako Herriko Etxean egindako osoko bilkuran. Tartean, herriko Patri Arburua Etxeberria urgazle bezala izendatu zuten. Bejondeizula!



Patri Arburua euskaltzain urgazle.



ANA ETA ITZIAR

Elizateko lanak azkenean martxan

Hilabete mordoxxa geldirik egon diren Elizateko lanak, berriz ere martxan dittugu. Ekainaren 13an hasi ziren lanean hain xuxen ere eta hemendik aitzinera lau hilabete eta erdi izanen dituzte Asprosurr Bussines SL enpresako langileek lanak akabatzeko. 390.000 eurotan esleitu zuen lana udalak.

Ehiztarien urteko batzarrean junta berritu dute

Ehiztariak batzarra izan zuten ereiarioaren 16an Baratzondon eta junta berritzea ere egokitu zen. Bi urtez juntan egon diren Josetxo Etxarte, Jaime Sein, Jose Ramon Iguzkiagirre eta Mikel Altxu atera dira eta sartutakoak, berriz, Migel Eugi, Xabi Almandoz, Aitor Antxordoki eta Joseba Larzabal dira. Junta berritzeaz gain, urteko kuotak eguneratu zituzten, baita hilaren 22an eta 29an pistak garbitzeko auzolanerako deia egin ere. Urriak 1era bakoitzak bere postuak prestatu beharko ditu.

Eskolako Guraso Elkartearen aldaketak izan dira

Eskolako Guraso Elkarteak urteko batzar orokorra izan zuen ereiarioaren 13an. Hainbat gai eztabaidatu ondotik, junta berritzeko lana ere bete zuten. Ateratakoak Aiert Retegi, Amaia Iguzkiagirre, Ainhoa Antxordoki eta Eli Urbistondo izanen dira eta sartutakoak berriz Porttu-Telletea, Telletea-Sein, Hita-Aranguren eta Txoperena-Goñi familiak. Bertzetik, 24 hurrek parte hartuko dute uztailaren 1etik 19ra eginen dituzten udalekuetan. Bi begirale ari tuko dira lanean.



ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11



Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790.IGANTZI
T. 948 63 74 11
@zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es



ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com



Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa
eta dirulaguntzen gestioa

Herritar guziek parte hartzeko auzolana antolatu du udalak

Herritar bakoitzaren lanak zehaztu eta taldeak osatu ditu udalak auzolana «eraginkorragoa» izateko

NEREA ALZURI

Herrian bizi diren 18 eta 55 urte bitarteko guziekin behar izaten dute auzolana Arantzán, ezindu fisikoek, psikikoek eta zentzumenezkoek izan ezik. Ezta preso daudenek ere. Herritar bakoitzari urtean hamar orduko saioa tokatzen zaio. Bada, hori ongi antolatzeko asmoz, bertze pauso bat eman du udalak, eta goitik behegi egituratu du auzolana. Gisa honetara, «herritar guziak auzolanean aritzea» nahi du udalak.

Taldeak

Horretarako herritar bakoitzaren lanak zehaztu eta taldeak osatu ditu udalak, eta talde bakoitzeko arduradun bat izendatu du. Hala, udaleko auzolanetako arduraduna, taldeko arduradunarekin jar-



Herritarrek pareta garbitzen.

tzen da harremanetan eta taldeko arduraduna bere taldekideekin. Udalaren hitzetan, «lanak antolatzea aunitzez errazagoa eta eraginkorragoa izanen da».

Azken boladan egin diren auzolan batzuen berri eman du udalak: PR ibilbidearen mantentze lanak, GRaren garbiketa Goiko Meakatik, Petrisenetik Arruzpirako bidearen eta herri sarrerako paretaren garbiketak, bide bazterrak...



ESKOLAK UTZITAKO ARGAZKIA

Palestinarekin elkartasuna

Gure haurrak ere badira aldarrikapenarekin bat eginez, eta Palestinako haurrak eta nerabeak sufritzen ari direna bukatzeko eskatuz, eskolako ikasleek, irakasleek eta gurasoek argazkia atera zuten ekainaren 19an eskolako patioan. Gisa honetara, Palestinari elkartasuna adierazi nahi izan zioten.



Kattinek herriko bertso eskolan ari den Amets anaiaren eskuetatik hartu zuen saria.

Giro bikaina Euskal Herriko Eskolartekoaren finalean

N. ALZURI

Ekainaren 15ean bertso laritzaren gune izan zen herriko frontoia. Giro ederra izan zen 36. Euskal Herriko Eskolartekoan. 250 bertsozale bildu ziren eta eszenatoki gainean hamaika bertsolari aritu ziren kantari, tartean Kattin Madariaga Apaolaza herritarra. Aita aranztarra

duen Ainhoa Larretxea Agirre beratarra, berriz, aurkezle aritu zen. Haina Aizpuruak lortu zuen txapela eta Kattin ere ederki aritu zen. Aipatu duenez, «hagitz egun polita» izan zen. Herritarren aitzinean «urdu» zegola aitortu du, baina «eskolartekoa lagunartekoa izan zen, publikoak hurbil sentitu genuen».



Juntan egon direnak eta segituko dutenak. Argazkian ez dira denak ageri.

Guraso elkarteko juntaren erdia berritu dute

N. ALZURI

Ekainaren 18an guraso elkarteko juntaren erdia berritu zuten. Bi urtez juntan egon ondotik, Mendizabal-Maiz, Mutuberria-Pagola eta Ordoiki-Hualde familiak atera dira, eta gurasoen botoak kontatuta, horien partez, bertze hiru sartu dira: Eskudero-Almandoz,

Iguzkiagirre-Irigoien eta Mariezkurrena-Maiz. Sartu berriekin batera, bertze lauk segituko dute bertze urte batez juntan: Apezetxea-Goñi, Barrenetxe-Altzuri eta Ibarra-Bereau familiak. Junta berritzeaz gain, jangelako eta guraso elkarteko kontuak ere aurkeztu zituzten ekainaren 18ko bileran.

Haira Aizpurua Eskolartekoan txapeldun

Finaleko hamaika bertsolaritatik lau eskualdekoak izan dira: Haira eta Unax Aizpurua, Kattin Madariaga eta Kattalin Lizarraga

TTIPI-TTAPA ARANTZA

Saio ederra eta gustagarria. Halaxe izan zen ekainaren 15ean Arantzako frontoian jokatu zuten 36. Euskal Herriko Eskolartekoa. 250 bertsozalaren aitzinean, hamaika bertsolari aritu ziren, eta tartean, eskualdeko lau: Haira Aizpurua eta Unax Aizpurua saratarrak, Kattin Madariaga arantzarra eta Kattalin Lizarraga leitzarra.

Arabatik Hegoi Amabizka eta Iraide Onaindia aritu ziren; Baxenabarretik Nahia Etxeberri; Bizkaitik Kelmene Abaitua eta Ekhi Zuluaga; Gipuzkoatik June Aiestaran eta Joanes Azpillaga; Lapurditik Haira Aizpurua eta Unax Aizpurua eta Nafarroatik Kattin Madariaga eta Kattalin Lizarraga. Gai jarraile lanetan, berri, Ainhoa Larretxea beratarrak aritu zen eta epaile Ainhoa Arregi, Ainhoa

Sarasua, Aitor Jimenez, Jon Diaz de Mendibil eta Joseba Beltza.

Hasierako agurrak kantatu ondotik, finalaren lehenbiziko zatian, zortziko handian eta zortziko ttikian aritu ziren bertsolariak, binaka edo hirunaka. Horietatik seik lortu zuten bigarren faserako txartela: Haira Aizpurua, Kattin Madariaga, Nahia Etxeberri, Unax Aizpurua, June Aiestaranek eta Joanes Azpillagak. Bigarren zatian, aldebatetik, puntu bati erantzun behar izan zioten bertsolariek eta bertzetik, gaia bati bertso bat kantatu. Azkenean, Haira Aizpurua nagusitu zen eta txapela Jose Luis Sukiak paratu zion. Txapeldunorde, berri, Nahia Etxeberri gelditu zen eta saria Bertsozale Elkarteko Ainhoa Urienek eman zion. Gainerako parte hartzaile guzietan ere oroigarriak hartu zituzten.



H. Aizpurua, Madariaga, Lizarraga, U. Aizpurua eta gainerako parte hartzaileak.

Jardunaldi motak arautzen dituen Foru Agindua aldatzea iradoki du Arartekoak

TTIPI-TTAPA

Etxalarko Landagain, Lesakako Irain eta Garesko eskoletako familiek Nafarroako Arartekoan aurkeztutako kexei erantzun die Patxi Vera Donazar Nafarroako Arartekoak eta jardunaldi motak arautzen dituen azaroaren 9ko 106/2023ko Foru Agindua zalantzan paratu du.

Familien bozketari dagokionez, «eskola jardunaldirako aukera guztiak [zaitua, jarraitua eta malgua], indarrean dagoena barne, eztabaidatu eta bozkatu ahal izatea» eskatu du Arartekoak, gisa horretara, «fa-

milien parte hartzea handiagoa izan litekeelako». Horrekin batera, «azken erabakia eskola kontseiluak hartu beharko lukeela» dio ebazpenak. Honela gaineratu du, «indarrean dagoen araudia zorrotz betetzearen ondorioz, emaitzak bidegabeak izaten ahal dira», eta horregatik iradoki du Foru Agindua egokitzea: «Araudiak jardunaldi zaitua ezarri du ikastetxeetan, baina jarraitua edo malgua nahi dutenek egoera zailagoa dute».

Arartekoak ekain hasieran eman zuten ebazpena eta «gehienez bi hilabeteko epea» eman

dio Hezkuntza Departamentuari «ebazpena onartzen duen edo ez jakinarazteko, eta hala bada, hori betetzeko neurrien berri emateko».

Nafarroako Gobernuak pandemia garaian ezarri zuten jarraitua, nahiz eta 2007-2008tik ikastetxe batzuetan jardunaldi hori izan duten. Pandemiaren ondoko urteetan, ikastetxeek eta familiek jardunaldia behin-behinean aukeratu behar izan

zuten eta azaroan etorri zen azaroaren 9ko 106/2023 Foru Agindua. Jardunaldi zaitua ezartzea agindu zuten araudiak eta bertzelako jardunaldia nahi izatera, botazio prozesu bat egin behar izan zuten. Kontua da, ikastetxe batzuetan, familia gehienek jarraituaren aldeko botoa eman zutela, baina legeak exijitutako % 60ra ailegatu ez zirenez, ondoko lau ikasturteetan jardunaldi zaitua izanen dutela. Eskualdean, hori da Amaiurko, Etxalarren eta Lesakako eskoletan gertatu dena.

Bertzalde, bozketa justua eskatuz Nafarroako eskoletako familiek Nafarroako Parlamentuko lan saioan parte hartu zuten ekainaren 18an.

AMAIUR, ETXALAR ETA LESAKAKO ESKOLEI BETE-BETEAN ERAGIN DIE



Eskolako zenbait ikasle, Kontxako badia gibelean dutela. ESKOLAK UTZIAK

Donostiara txangoa egin dute eskolako ikasturtea akitzeko

Aquariuma eta Eureka! Zientzia Museoa ikusteaz gain, katamaranean ibiltzeko aukera ere izan zuten ekainaren 17an

MAIDER PETRIRENA

Eskolako ikasle guztiek elkarrekin ikasturte bukaerako irteera egin zuten ekainaren 17an. Donostia aldera egin zuten irteera, horrelako txangoetan ohikoa den bezala, alde didaktikoa eta ludikoa uzartuz. Lehenengo Aquariumera joan ziren eta, bertan, itsasoko fauna oparoa ezagutzeaz gain, taldearen arabera, ekin-tza desberdinak burutu zituzten. Ondotik, gosaldia eta katamaranean, badia eta kostaldeko itsasaldia egin zuten. Jarraian, Miramonera eraman zituzten autobusak, han baz-



Aquariumeko atarian.

kaltzeko. Bazkaldu eta gero, Eureka! Zientzia Museoa bisitatzeaz gain, taldeka jarduerak egin zituzten, eta arratsaldean itzuli ziren herrira, nekatuak baina aski kontent.



Inguru ederrak ikusi zituzten ikasturte akabailako txangoan.



MAIDER PETRIRENA

Herriko dantzarien emanaldi ederra

Sunbillako dantzari ttikiek, koxkorrek, gazteek eta helduek erakustaldi ederra egin zuten ekainaren 7an. Herriko frontoia bete-betea zela, hamahiru dantza egin zituzten. Iruritako dantza eta musika taldeari, Kristobal Zelaieta irakasleari eta dantzariari eta ikusleei eskerrak eman nahi izan dizkiete.



UTZITAKOA

Malerreka eta Bertizaranako Gazte Eguna

Ekainaren 8an Sunbillan ospatu zuten Malerrekako eta Bertizaranako Gazte Eguna. Eguraldia alde izan ez bazuten ere, «egun berezia» izan zela adierazi dute antolatzaileek. Bide batez, antolatzen aritu zirenei zein egunean bertan hurbildu ziren gazteei eskerrak eman nahi izan dizkiete,

Eneit Bertiz Bilbotik Suitzako munduko kopara

Eneit Bertiz herriko txirrindulariak Ollargan (Bizkaia) hilaren 16an jokatu zen Greenseries proban bigarren postua lortu zuen. Ekainaren 21-22ko asteburua Suitzan Munduko kopan parte hartzeko zena.



UTZITAKOA

Irailaren 3ra arte egonen da irekia igerilekua

Egunero egonen da irekia igerilekua 12:00etatik 20:00ak arte. Bonuak eskuratzeko aukera ere badago

OIER ZULAIKA

Ekainaren 17an ireki zuten igerilekua, eta irailaren 3ra bitartean egonen da aukera joateko. 12:00etan irekiko dituzte instalazioko ateak, eta 20:00etan itxi. Horrekin batera, bonua egiteko aukera ireki zuten ekainaren 14an, eta uda osorako abonua edo hilabetekoa egiteko aukera izanen da. Donezteben erroldatuta daudenek merkeago izanen dute.

Uda osoko abonuari dagokionez, honako prezioak dituzte herrian erroldatutakoak: 4 eta 11 urte arteko haurrek 15 euro, 12 eta 17 artekoak 35 eta 18 urtetik gorakoak 50 euro. Ez erroldatuen kasuan, bortz euro garestiagoa da prezioa adin tarte bakoitzean.

Hilabeteko abonuek, berriz, prezio hau izanen dute. Herrian erroldatutako 4 eta 11 urte ar-

tekoek 10,5 euro ordaindu beharko dituzte, 12 eta 17 urte artekoak 24 euro eta 18 urte baino gehiago dituztenek 34,5 euro. Ez erroldatuen kasuan, prezioa bi euro garestiagoa izanen da.

Egun bakarreko sarrerak

Bonu horiez gain egun bakarreko sarrerak ere izanen dira eskuragarri. Kasu horretan, Donezteben erroldatutako 4 eta 11 urte arteko haurrek 1,75 euro ordainduko dute; 12 eta 17 urte artekoak 3,5 euro eta 18 urtetik gorakoak 4,5 euro.

Kanpokoek, aldiz, adin tartera 2,5 euro, 4,5 euro eta 5,5 euro pagatu beharko dituzte hurrenez hurren.

Igeriketaikastaroak ere izanen dira bi txandatan: uztailaren 8tik 19ra eta uztailaren 22tik abuztuaren 2ra.



UTZITAKOAK

Ortzegunean hasi eta astelehenean bukatuko dira herriko bestak

OIER ZULAIKA

Heldu den egunetan besta giroan murgilduko da herria, eta aurten, gainera, egun bat gehiagoz, bestak hilaren 28an hasi beharrean, ortzegunean, hilaren 27an hasiko baitira.

Aurten hiru lagun izanen dira ortziralean suziria pizteaz arduratuko direnak: Kotoño Belarra, Tomas Uterga eta Rosario Erasun. Doneztebeko Udaleko langileak izan dira hiruak eta aurten hartuko dute erretiroa. Txupinazoa botatzeko aukera emanez, urte aunitzez herrian



Carlos Ostizek bota zuen iaz. ADC

egindako lana eskertu nahi izan die udalak hiruei.

Bestetako egitarau osatua aitzineko aldizkarian, 856. alean aurkituko duzue, eta baita elkarriketak ere.

Eskolaren 50. urteurren besta bikaina

Ekainaren 8an ospatu zuten eskolaren urteurren besta, eta ospakizun bikaina izan zen. Parte hartze handia izan zen goizean goizetik eta giro ederra. Bazkal aurretik, eskolako lehen promozioa, euskaraz lehendabizikoa eta zuzendaritzan aritutako hainbat kide omendu zituzten.

Doneztebe Futbol Taldeko jubenilek ez dute lehen mailara igotzea lortu

OIER ZULAIKA

Denboraldi bikaina osatu dute futbol taldeko jubenilek, eta lehen mailarako igoera izan dute jokoan Leitzako Aurrearen kontra. Joaneko partidaren, Donezteben 1-4 galdu zuten Iñaki Indart zelaian eta Leitzan ezin izan zioten emai-

tzari buelta eman eta han 2-0 galduta ezin izan dute mailara igo.

Hala ere, egindako lana eskertu zieten taldekideek Futbol Egunaren barrenean egindako afarian. Horrenberritzez, aurtengo denboraldia bukatutzat eman dute.

Pulunpa eskolan ere giro onean akitu dute ikasturtea

Ekainaren 19ko kurtso bukaerako bestan eskolaren logotipo berria aurkeztu dute

ARKAITZ MINDEGIA

Bertze eskoletan bezala, Pulunpa eskolan ere akitu dute 2023-2024ko ikasturtea. Ikasle guztiak dagoeneko oporretan daude, baina irakasleak hor dabilta aurtengo ikasturtea ixten eta berria prestatzen. Hala ere, azkeneko eguneko agur besta ikaragarria izan zen. Urtero bezala, goizean eskolak antolaturiko goiz pasa borobila izan zen. Alde bateatik, kantuek, dantzak eta, nola ez, seigarren mailako ikasleen agurra izan ziren. Bertzetik, eskolako logo berria aurkeztu zuten. Joareak bertan segitzen du eta zinez polita da. Guraso elkarteak eta jantokiko gestoreak elkarlanean antolaturiko bazkariak aurtengoan ere arrakasta handia izan zuen. Eskolako aterpean 150 lagun elkartu ziren, bertako ikasleak,



Pulunpako ikasleak frontoian.

gurasoak, irakasleak eta, nola ez, bertatik pasatako ikasleak. Arratsaldean ttikienek eskulanak, tatuajeak edo aurpegi margotzeak izan zituzten eta koxkorrenek, berriz, hainbat joko. Uda ate joka edukita, uraren presentzia nabarmendu zen, joko batzuetan jolas-teko eta freskatzeko baliatu zuten. Eguna akitzeko, pintxoekin eta musikarekin dantzan eman zioten amaiera kurtso honi.



D. NOTICIAS


Estefi Etxebeste hirugarren Etxaurin

Lehen aldiz parte hartu zuen Estefi Etxebeste herriko harri jasotzaileak Etxauriko Harriak jaialdian ekainaren 16an. 68 kiloko Lurgorria harria hemeretzi aldiz altxatu zuen eta hirugarren izan zen, Karmele Gisasolaren (24) eta Sara Jimenez de Aberastutiren (22) gibeletik.

Nafarroako Kirol Jokoetan txapelkun izan dira Iñaki eta Mattin Leiza anaiak

Nafarroako Kirol Jokoetako eskuz binakako txapelketan, Iñaki Leiza herritarrak, Etxalarko Erik Igoa lagun zuela finala jokatu zuen alebin mailan, Barañaingo Elizalde eta San Romanen aurka. Partida arras borrokatua jokatu ondotik, 18-13 irabazi zuten.

Infantil mailan, Mattin Leiza bere anaiak, Zubiriko Sergio Santestebanekin bikote eginez Iruñeko Eneko Rekalderi eta Mikel Ezkurra herritarrari irabazi zien. Ekainaren 14an Logroñon, Errioxako txapelkunaren kontra jokatzeko aukera izan zuten.



UTZITAKOA

Ikasturte bukaera Mendaur triki eta pandero eskolan

Mendaur trikipandero eskolak trikitixa eta panderoa ematen dituen herrietan kontzertuak eskainiz eman dio amaiera ikasturte honi. Arizkun, Elizondan eta Aurtitzen izan zituzten kontzertuak ekainaren bigarren astean.

ttipi-ttapa

sare sozialetan



www.facebook.com/ttapi.ttapa

JARRAI GAITZAZU!

Uhaldea moldatu bitartean mediku kontsulta eskolan da

Zaharberitze lanak akitzen dituztenean, Uhaldeko behean izanen da kontsulta eta lehen solairuan udal bulegoak

FERMIN ETXEKOLONEA

Herriko eskolan hasi dira mediku kontsulta pasatzen ekainaren 16tik aurrera. Mediku kontsulta eta udal bulegoak hartuko dituen Uhaldea zaharberitzeko lanak akitu bitartean, bertan izanen da. Ireki baino lehen, beharrezko azpiegiturak bertan jarri zituzten eta adinekoen eta zailtasunen bat duten erabiltzaileen irisgarritasuna errazteko, sarreran arrapala bat ere egin zuten. Gogoratu behar da, gero, mediku kontsulta Uhaldeko beheko solairuan izanen dela eta

udal bulegoak, berriz, lehen solairuan.


Uhaldea, garai bateko sekretarioaren etxea zaharberitzeko lanak esleitu zituen udalak otsailaren 16an egindako udal batzarrean. Eskaintzak aurkezteko epea bukatu baino lehen hiru eskaintza aurkeztu zituzten eta kontratazio mahaiak Elecnor servicios y proyectos SAU enpresak egindako eskaintza hautatu zuen, 258.777,96 euroko (gehi BEZa), kalitatearen eta prezioaren arteko oreka onena zuelakoan.

Aurkidiko bideko mantentze lanak direla eta, pista itxita dago egunotan

F. ETXEKOLONEA

Aurkidiko bidean egiten ari diren mantentze lanak direla eta, pista itxita egonen dela jakinarazi du Zubietako Udalak, Luisengo bordako bidegurutzetik Isabeleko bordaraino. Autoentzat eta trakto-reentzat ekainaren 20tik uz-

tailaren 4ra arte egonen da itxia eta kamioientzat, berriz, lau astez egonen da itxita. Bideko 730 bat metrotan egiten ditu mantentze lanak Ubiria eskabazio enpresak. Egoera hau kontuan hartzea eta sor daitezkeen eragozpenengatik, barkamena eskatu du udalak.



Etxekolonea pilota astintzen Azpeitiko finalean. UTZITAKOIA

Udaberrikoa irabazi ondotik San Fermin Torneoan hasiko da Etxekolonea

F. ETXEKOLONEA

Esku pilota profesionalean ari denetik lehen txapel handia jantzi du Naroa Elizalde Etxekolonea herriko pilotariak. Azpeitiko Frontoi Txikin jokatuzuten ekainaren 8an Ados pilota elkartearen Udaberri pilota txapelketako finala. Mitxoletak (Ruiz de Larramendi, Mendiburu eta Iturriaga, Uxue Fernandez bertsolariarekin) eta Kukuprakak (Mujika, Ruiz de Infante eta Etxekolonea, Sebastian Lizaso bertsolariarekin) izan ziren aurrez aurre eta azken hauek nagusitu ziren bi partidatan, txapela eskuratu. Binakako partidatan, Etxekoloneak eta Mujikak 22-20 irabazi zieten Iturriagari eta Mendibururi. Aipatzekoa da txapelketa honetako lehen jardunaldian ere elkarren kontra aritu zirela bi bikote hauek Donamarian, eta orduan Mi-

txoletak taldeak irabazi zituen bi partidak.

Bertso pilota txapelketa berezi hau akitu orduko, Adosen San Fermin torneoan ere aritzekoa da Etxekolonea, Galeanorekin bikote eginez. Lehen partida ekainaren 29an Erratzun jokatuko dute, Etxebes-teren eta Mendibururen kontra eta bigarrena uztailaren 5ean, Iruñeko Labriten, Aldaregia eta Mujikaren kontra. Beraien multzoko lehenbizi-koak gelditzen badira, finala uztailaren 12an jokatuko lukete Labriten. Bertze multzoan Iturriaga-Zabala, Arrieta-Orbegozo eta Aranburu-Ruiz de Larramendi ari dira. Binakako txapelketa ez ezik, lau eta erdiaren barrenean buruz buru ere ariko dira Zabaleta, Ibarrola, Barrokak eta Ruiz de Infante. Hauek ere uztailaren 12an izanen dute finala.



Bizikleten salmenta eta konponketa.

-  Kanttonberri, 1 | BERA
-  T. 948 631 218
-  joxemi@kateabike.com
-  www.kateabike.com











GOI MAILAKO EKOLOGIA

Bidaurre Ureder Ind. 2. P4 partzela 20305 Irun  943 63 45 36



KULTURKARI

Diseinu grafikoa | Publizitatea

www.kulturkari.com

Jatetxe eta ostatuak

Menuak, kartak, mahai-oihalak...

Hainbat material, erabat pertsonalizatuta

BERTIZARANA

29. Kultur programa hasteko 'Basati' erakusketa Bertizen

Erakusketaz gain, Donamarian, Beran, Zugarramurdin, Elizondon eta Leitzan musika eta dantza emanaldiak izanen dira

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusiak antolatutako Kultur programaren 29. edizioak kultura eskaintza zabala ekarriko du aurten ere eskualdera. Alde batetik, Bertizen Maria Jimenez Moreno Iruñeko artistaren *Basati-Salvaje* erakusketa ikusgai izanen dute, eta beretzetik, musika eta dantza Donamariara, Berara, Zugarramurdira, Elizondora eta Leitzara ailegatuko da.

Erakusketa Bertizen

Bertizko Lorategi Historiko-Artistikoan, Maria Jimenez Moreno artistaren *Basati-Salvaje* erakusketa ikusgai paratuko dute uztailearen 1etik abuztuaren 31ra, Nafarroako sorginen ehizaren testuinguru historikoa, kulturala eta soziala hurbiltzen duena. Argazkigintza, marrazkia, instalazioa baina batez ere ehun-eskultura lantzen dituen artista da Jimenez Moreno eta kasu honetan, «sensoriala dena indartu» nahi izan du «errealitatearen pertzepzioaren zati moduan, eta erreal eta onirikoa lotzea ere bai, lurralde liriko pertsonala landuz».

Erakusketarekin lotuta, *Sorginorratz* tailerra egingen du Maria Jimenez berak abuztuaren 17an (12:00) eta Bertizko Natur Parkeko sendabelarrak ezagutzeko ateraldia egingen dute abuztuaren 24an, 10:00etan Laura Gurbindorekin.

Eskualdeko emanaldiak

Bertizko erakusketaz aparte, Kultur programako lehenbiziko emanaldia Donamarian izanen dute uztailearen 19an. Iñaki Dieguez akordeoilariak

eta Xabier Leturia pandero jotzaileak *Pepito Yanci, beti bizi* kontzertua emanen dute 20:00-etan Donamariako Jauregian.

Uztailearen 20an, 20:00etan, Berako Telletzeko lorategietan, Xabi Zeberio *Pause* kontzertua emanen du. Honekin lotutako jarduera turistikoa Beran bertan izanen dute uztailearen 20an, 18:00etan, Zalain jatetxeko aparkalekuan. Erleak, bere funtzioa eta ezta ezagutzeko tailerra egingen dute, baita ezti dastaketa ere.

Uztailearen 27an, 12:00etan Bazkun Proiektuak taldeak *Eguzkilore, jazz mitologikoa* kontzertua joko du Zugarramurdiko lezean. Gisa berean, oinez egiteko ibilbidea eta gaztandegi batean dastaketa izanen dute. 09:00etan abiatuko dira Azketa frontoiko aparkalekutik.

Abuztuaren 3an, 19:30ean Elizondoko plazan, Qabalum konpainiaren *Todo este ruido* dantza garaikide ikuskizuna izanen dute. Egun berean, 17:00etan, Jaime Urrutia karrikako 20.etik abiatuta, Elizondo bisitatzeko eta taloak dastatzeko ateraldia egingen dute.

Irailaren 8an, azkenik, Anari abeslariaren *Giza Zarata* kontzertua aditzeko aukera izanen dute Leitzako plazan, 20:00etan.

Eskualdeko artistak

Eskualdeko musikariei ere euren lana aurkezteko aukera emanen die Kultur programak. Hala, Janus Lester Berako taldeak *Ez gaitzala loak harrapatu* kontzertua emanen du uztailearen 27an Lizarran. Eta Led Silhouette Lesakako dantza konpainiak *Los perros* ikuskizuna egingen du abuztuaren 17an Vianan.



ARGAZKIA ETA TESTUA: MAITE BERTIZ

Narbartearrak frontenisean txapeladun

Baztango frontenis txapelketaren irabazleak Narbarteko Alazne Aizpuru eta Izaskun Iriarte lehengusinak izan dira. Finala Iruritan jokatu zuten ekainaren 15ean eta Narbarteko neskek partida borobila egin zuten: dena atera zitzairen eta bentaja haundiarekin irabazi zuten. Zorionak neskek!



MAITE BERTIZ

Seronea bota dute

Lehen eta orain. Horren erakusle dira goiko bi irudi horiek. Aspaldi egoera txarrean zegoen Seroneko hiru eraikinak bota berri dituzte, barridean artean Astibiaren etxeak izenez deitua izan direnak. Horiekin batera, herriaren historiaren zati bat joan da, baina bazen zerbait egiteko beharra.



KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea
www.kulturkari.com

Etiketak eta pegatinak

Paperean edo biniloan
(opakua edo gardena)

Bobinan edo soltean,
formarekin moztuak...

Olatik Jauregira doan bidea berritu dute Donamarian

Dirulaguntzekin hainbat lan egin ditu udalak, eta herritarrak ere auzolanean aritu dira

TTIPI-TTAPA DONAMARIA

Herritarrak auzolanaren bueltan bilduta eta dirulaguntzak hartuta, hainbat lan egin dituzte azken aldia Donamarian.

Nafarroako Gobernuaren abeltzaintzako azpiegiturarako laguntzak probestuz, Olatik Jauregira doan bidea berritu du udalak. Natalia Rekarte alkatearen hitzetan, lan horiei esker «baserritarrek bide hobea izanen dute eta Olako barrideak, eta batez ere haurrak eta gazteak, bizikletaz edo oinez, herrira segurtasunez hurbiltzen ahal izanen dira, errepidera atera

gabe». Bidea eta bertze hainbat lan egitea 31.892,04 euro kostada eta laguntza 16.981,55 eurokoa izan da. Horrez gain, udan bertze lan batzuk egingen dituzte mendiko lanetako dirulaguntzekin: zehazki, Txarutako pista hobetzeko eta mantentzeko lanak. 23.338,37 euroko aurrekontua dute eta laguntza 11.758,13 eurokoa izanen da.

Bertetik, ekainaren 8an, auzolanean aritu ziren herritarrak; bide bazterrak garbitzen eta parkea pintatzen. 60 lagun bildu ziren eta ondotik, luntxa egin zuten ostatuan.



Irudietan, herritarrak auzolanean eta luntxan. Azken argazkian berritu duten bidea.

Igerilekua zabalik

Ekainaren 22tik irailaren 8ra irekia izanen da igerilekua (11:00-14:00 eta 15:00-20:00). Denbora hagitz txarra baldin bada ez dute irekiko, ezta abuztuaren

18an ere, herri bazkaria tarteko. Eta abuztuaren 17an, eguraldi ona bada, uretako puzgarriak paratuko dituzte. Uxue Illarregi oiztarra eta Aitziber Juanena urroztarra dira sorosleak.



Udaberriko bestari hasiera emateko mendi itzulia egin zuten. JAIONE ARIZTEGI

Giro ederrean udaberriko besta ospatu dute urroztarrek

JAIONE ARIZTEGI URROZ

Udaberriko besta ospatu zuten urroztarrek ekainaren 8an. Larunbat goizeko mendi itzuliarekin eman zioten hasiera. Leurtzatik hasita Soratxipi eta Bonozorrotz igo zituzten, eta ibilbide zirkularra osatuz, hasitako leku berean akitu zuten ibilaldia.

Ondotik, herri bazkaria izan zuten frontoian Xabat Illarregi eta Aitor Mendiluze bertsolariekin, eta arratsaldean ere non gozatua izan zuten, eguna bildu arte Joxe Angelekin dantzaldia izan baitzen. Haurrendako, berriz, puzgarriak paratu zituzten egun guztian.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Gazteen hitzordua Sunbillan

Ekainaren 8an gazteek ederki ospatu zuten Malerrekako eta Bertizaranako Gazte Eguna Sunbillan. Kafe tertulia, herri kirolak, bazkaria, bingo musikatua, mojito txapelketa eta kontzertuak! Eguraldia alde izan ez bazuten ere, «egun berezia» izan zela adierazi dute. «Ea urteroko ohitura bihurtzen den!».

Hainbat bidaia eginen dituzte bazkideek

Egun bakarreko hiru irteera eta hiru bidaia luze antolatu ditu elkarteak urte akabaila arte

TTIPI-TTAPA

Elkarteak urteko bigarren buletina argitaratu berri du, eta bertan ageri dira urte bukaera arte eginen dituzten bidaiak eta baita bidaia horietan izena emateko datak ere.

Lehen irteera Lezora eginen dute irailaren 14an, eta izen ematea abuztuaren 19an, 20an eta 21ean egin behar da nor bere herriko delegatuaren bidez.

Hurrengo Galiziarra eginen dute irailaren 16tik 23ra arte. Doneztebetik abiatuta, autobusez joanen dira eta Galiziako hainbat txoko ikusiko dituzte. Izen ematea uztailearen 8an eta 9an egin behar da bulegora deituta.

Urriaren Benidormera joanen dira, hilaren 5etik 15era. Izen ematea abuztuaren 5ean 6an egin beharko da bulegora deituta. Urriaren 24an, aldiz, Bazkideen Eguna ospatuko dute Gorraizen eta izen ematean abuztuaren 19an, 20a eta 21ean egin behar da herri bakoitzeko delegatuaren bidez.



La Gomerara joanen dira azaroan.

Azaroan bertze bidaia luze bat eginen dute La Gomera eta Fuerteventura irletara. Izen ematea abuztuaren egin beharko da, hilaren 5ean eta 6an bulegora deituta.

Urteko azken irteera, aldiz, azaroaren 7an eginen dute, eta Lizarrara eta Lodosara joanen dira egun pasa. Izen ematea irailaren 30ean eta urriaren 1ean eta 2an egin beharko da herri bakoitzeko delegatuaren bidez.



Elkarteak omendutako Arrosamena-Sanzberro eta Etxenike. UTZITAKOA

Elkartearen 30. buletinean bi omendu falta dira

TTIPI-TTAPA

Bigarren sei hilabeteko buletina argitaratu du elkarteak. Bertan, omendutako bazkideak ageri dira eta beraien aldetik izan ez den gaizki ulertu baten ondorioz, bi omendu falta dira.

Alde batetik, 50 urte ezkonduko daramatzaten eta Etxalarren bizi diren Manuel Arro-

samena Atxukarro eta Maria Angeles Sanzberro Alzuguren. 1974ko azaroaren 23an ezkondu ziren Etxalarren eta bi seme-alaba dituzte: Ana Maria eta Javier, eta lau biloba: Igone, Ekiñe, Laura eta Lorena. 85 urte bete dituen Juan Miguel Etxenike Mikelarena iruritarra ere omenduko dute.

Marisa Telletxea izanen da elkarteko lehendakariordea

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 12an egin zuen elkarteak delegatuekin urteko batzar orokorra. Bertan urteko lehenengo sei hilabetetan egingandako ekintzen laburpena egin zuten, eta baita iazko diru kontuak ere. Horrez gain, berriki zendu den Maritxu Telle-

txearen ordez, Marisa Telletxea izendatu dute elkarteko lehendakariorde.

Bere aldetik elkarteak doluminak eman nahi dizkio urte aunitzez Arantzako delegatu izan den eta berriki zendu den Maria Dolores Iturriaren familiari.



KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea
www.kulturkari.com

Enpresentzako materiala

Txartelak, gutun-azalak, orriak, talonarioak, karpetak, zigiluak...



Hainbat euskarri

Era guztietako formatuak eskaintzen dizkizugu zure enpresa bistaratzeko





EKAINAK 28

LGTBI+

HARROTASUNAREN
NAZIOARTEKO EGUNA



Alizia
64 urte



**ANIZTASUNEAN
HARRO**



eusk



Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



Instituto Navarro para la Igualdad



Nafarroako Berdintasunerako Institutua



Iluntzean txintxurrin txapelketa egingen dute. Irudian, iazko irabazlea. ARTXIBOA

Gorritzarango Eguna ospatuko dute ekainaren 30ean

Bazkarirako txartelak erosteko epea ekainaren 24an bukatu zen eta egunean bertan ez da erosteko aukerarik izanen

TTIPI-TTAPA

Aurten ere egun osoko egitaraua prestatu dute Gorritzarango auzotarrek. Igande honetan, ekainaren 30ean, goizeko mezarekin hasi eta iluntzeko txokolate janarekin bukatuko dute festa.

Goizean, 10:00etan, meza izanen dute eta segidan, herri kirol proba konbinatuak, aizkolariak, proba bereziak eta umeentzako jolasak antolatuta dituzte. 14:00etan bazkaria izanen dute Basakabin. Bazkarirako txartelak ekainaren 24ra arte jarri dituzte salgai eta antolatzaileek jakinarazi

dute egunean bertan ez dute la bazkarirako txartelik salduko. Bazkalondorako urteroko klasikoek ez dute hutsik egingen: musa, dantzaldia eta txintxurrin txapelketa. 17:00etan hasiko da XXXVII. Mus Txapelketa eta bikote bakoitzak hamar euro ordaindu beharko ditu. 18:00etan izanen da dantzaldia eta 19:30ean XXXVII. Txintxurrin Txapelketan agerian geldituko da auzotarren trebezia. 20:00etan zozketa egingen dute eta aurten ere ez dituzte nolana hiko opariak prestatu. Ospakizunei bukaera emateko txokolate jana egingen dute.



Lehenbiziko egunetik jende ugari dabil igerilekuan. E.IRAOLA

Ekainaren 15ean ireki dituzte udako igerilekuko ateak

TTIPI-TTAPA

Udako igerilekuaz gozatzeko aukera dute dagoeneko herritarrek. Ekainaren 15ean eman zioten hasiera udako denboraldiari eta aurreko urteetan bezala, abonua eskuratzeko aukera izanen da. Anikoteko bazkideek eta erroldatuta daudenek, deskontuak izanen dituzte. Igerilekuko bonuen eskaera kiroldegian edo Internet bidez egin daiteke. Kiroldegian egitea erabakitzen dutenek datu pertsonalekin fitxa bete eta beharrezko egiaztagirierekin entregatu beharko dute. Web gunearen bidez egin nahi dutenek <http://leitza.reservas24h.es> helbidean erregistratuta eskuratu dezakete abonua.

Igeriketa ikastaroak

Uztailean igeriketa ikastaro trinkoak ere eskainiko dituzte

haur, gaztetxo eta helduentzat. Hiru eta hamabi urte bitarteko neska-mutikoak bi mailatan banatuko dituzte. Hastapen-tan dauden hiru eta bost urte arteko ikasleak multzo berean sartuko dituzte eta maila hobetu nahi duten sei eta hamabi urte artekoak beste multzo batean. Hamabi eta hamasei urte artekoak, berriz, kirol antzeko ikastaroa egiteko aukera izanen dute eta helduek igeriketa ikastaro trinkoak izanen dituzte aukeran.

Azken berriak mugikorrean

Herritarrekin komunikazioa hobetzeko whatsapp bidezko informazio kanala ere jarri dute martxan. Ekitaldi, albiste eta abisu interesgarriak jaso nahi dituztenek, whatsapp mezu bat bidali behar dute ALTA hitzarekin 623 26 65 82ra telefonora.

Jeiki abesbatzaren 50. urteurrenean, emanaldi berezia

Dantzariak, musikariak, bertsolariak... ehunka artista bildu zituen Jeiki abesbatzak ekainaren 15ean. Argazkian ikus daitekeenez, detailerik txikiena ere zaindu zuten eta garai bateko jantziei hautsa kendu zieten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Liburutegia goizez irekiko dute irailaren 13ra arte

Ekainaren 17tik irailaren 13ra arte, udako ordutegia izanen dute liburutegian. Egunean sei orduz egonen da irekita, 08:30etik 14:30era. Tartean, liburutegi ibiltariak Goizueta, Arano eta Aresora joan beharko duenez, gorabeheraren bat egon daiteke ordutegian.

Leitzulia BTT proban izena emateko epea zabalik

Irailaren 28an izanen da eta 42 kilometroko luzera eta 1.400 metroko desnibela duen ibilbidea prestatu dute

TTIPI-TTAPA

Leitzako Aurrera Mendibil taldeak Leitzulia BTT probaren seigarren edizioa antolatu du. Irailaren 28rako egin dute hitzordua, baina izena emateko epea dagoeneko irekita dago kirolprobak.com web orrian.

Izena ematea irailaren 27ra arte, probaren bezperako egunera arte, egonen da zabalik eta antolatzaileek jakinarazi dute egunean bertan ez dela izena emateko aukerarik izanen. Parte hartzaile bakoitzak 25 euro ordaindu beharko ditu.

Ibilbide ikusgarria

Leitzuliko parte-hartzaileek 42 kilometroko luzera eta 1.400 metroko desnibela duen ibilbidea osatu beharko dute. Leitzako plazan hasi eta bertan bukatuko da. Plazaolan barna egingen dituzte lehenbiziko



267k osatu zuten proba iaz.

kilometroak, baina hortik aurrerakoak Leitzako kaxkoak zeharkatuz osatu beharko dituzte. Leitzalarre eta Petriketako gainerako bidean igo beharko dituzte lehenbiziko aldapak eta pedalei gogor eraginez, Usategieta, Idiazabal, Kornieta eta Uitziko eta Guratzeko gainetatik pasako dira. Ez da proba lehiakorra eta guztia mendiko xenda eta basoetan barna egingen da, ia errepiderik zapaldu gabe.



PABLO FEO

Aurrerako jubenilak mailaz igo dira

Nafarroako jubenilen lehen mailara igotzeko txartela izan zuten jokoan Leitzako Aurrerak eta Doneztebek. Joaneko partidari 1-4 irabazi zuen Aurrerak eta Arkiskilen ere beraiek irabazi zuten (2-0), Eder Sagastibeltzak eta Aitor Lizartzak sartutako golei esker. Festa giroan ospatu zuten.




UTZITAKO ARGAZKIA

Zaindu Leitzaldea proiektua ezagutaraziz

Ekainaren 12an Zaindu Leitzaldea elkartearen aurkezpena egin zuten Leitzako Herri Aretoran. Jende ugari bildu zen herritarren zaintza behar batzuk asetzeko asmoz sortu duten proiektua ezagutzera. Egiten duten lana bertatik bertara ikusteko aukera ere izan zuten ekainaren 14an egin zituzten ate-irekietan.

Maria Feo leitzarria bidea egiten ari da eskaladan

Maiatzaren 25ean jokatu zuten Nafarroako zailtasun eskaladako finala eta txapel beltza eskuratu zuen Mariak. Espainiakoa 16. izan zen eta asteburu honetan, Madrilan, Espainiako boulder txapelketan aritzekoa da.



PABLO FEO

EHko gaztetxe eta gazte asanbladen topaketak urrian

Urriaren 19an Euskal Herriko gaztetxe eta gazte asanbladen topaketak egingen dituzte Leitzan. Atekabeltz gaztetxearen bueltan bilduko dira Euskal Herri osotik etorritako gazteak. Elkar ezagutu, autogestioaren inguruan gogoeta egin eta proiektu berriak abian jartzeko bideak landuko dituzte elkarrekin eta festarako tartea ere izanen da. Egitaraua oraindik ez dute jakitera eman, baina mahai inguruak, kultur ekitaldiak... antolatzeko asmoa dutela aurreratu dute antolatzaileek.

Lau ordutan saldu dituzte erosketabonu guztiak

Arrakasta handia izan du Kaxkabeltza elkarteak eta Leitzako Udalak egin duten kanpainak. 1.750 erosketabonu jarri zituzten salgai ekainaren 10ean eta lau ordutan agortu ziren guztiak. Bonua eskuratu dutenek, hogeita hamar euro ordaindu eta hogeita hamar gastatzeko aukera izanen dute, ekainaren 17tik uztailaren 14ra arte egingen dituzten erosketetan. Epe hau igarota, bonuek bere balioa galduko dute. Gainera, bonuak erabili ahal izateko erosketak, gutxienez, 10 eurokoa izan beharko du.



Koloretako blusak soinean dituztela ibiliko dira Lagunarteko kideak. UTZITAKOA

Festarako aukera ekaineko azken asteburuan

Lagunartekoak herriko eta baserrietako eskea egingo dute eta larunbatean sagardo dastaketa eta herri afaria izango dira

ENERITZ IRAOLA

Sanpedroak antolatu dituzte Lagunartekoek eta ostiral arratsaldetik larunbatera arte festa giroan gozatzeko egunak izango dituzte herrian.

Ekainaren 28an, 17:30ean, mezarekin hasiko dituzte ospakizunak eta bukaeran merienda eskainiko dute elizako karrapean. 18:30ean herriko eskea egingo dute Lagunartekoek eta etxez etxe ibiliko dira giro ederrean. Eguna borobiltzeko, Pake Toki elkartearen afaria egingo dute gazteek.

Ekainaren 29an, larunbatean, 09:00etan bilduko dira Lagu-

nartekoak eta egun osorako indarra hartzeko bapoz gosalduko dute. 10:30ean eskean abiatuko dira eta baserrietatik osatuko dute erronda, kontu, kantu eta dantza artean. Iluntzean, plaza ingurura eramango dute festa giroa; sagardo dastaketa antolatuta dute 19:00etan. Bukatzeko, herri afaria egingo dute 21:00etan Pake Toki elkartearen. Afarirako txartelak aurretik erosteko aukera eman dute eta orain erosten dituztenek bost euro gehiago ordaindu beharko dituzte; helduek 23 euro eta umeek 15 euro.

'Cl@ve iraunkorra' ateratzeko aukera dago Aresoko udaletxean

ENERITZ IRAOLA

Cl@ve iraunkorra ateratzeko egin beharreko tramiteak Aresoko udaletxean egiteko aukera izango da. Administrazioaren zerbitzu elektronikotara maiz sartzen diren pertsonentzat diseinatutako autentifikazio-sistema da.

Altan emateko interesa dutenek, Nortasun Agiri Nazionalarekin joan beharko dute udaletxera, idazkaritzako ordutegian. Zerbitzua erabili ahal izateko, ezinbestekoak dira telefono mugikor zenbaki bat eta helbide elektronikoa ematea.



Jende ugari bildu zen ekainaren 10ean egindako bileran. ENERITZ IRAOLA

Taberna-dendaren proiektuarekin aurrera egiteko lantaldea osatu dute

ENERITZ IRAOLA

Taberna-dendamartxan jartzea lehentasunezko proiektua dela erabaki dute herritarrek eta eginahalak egiten ari dira. Ekainaren 10ean egin zuten bigarren parte-hartze saioa eta jendetza bildu zen udaletxean. Proiektuari pixkanaka forma ematea adostu dute eta horretarako talde eragile bat sortzea. Hala, herritarrek izango dira zer nolako taberna-denda nahi duten erabakiko dutenak.

Bileran bildutakoek Orexako ostatu proiektua ezagutzeko aukera izan zuten Eneko Maiozen eskutik. Antzeko egoera bizi

izan zuten duela sei urte eta udalak herriko ostatuaren aldeko apustua egin ondotik, herri kooperatiba osatzeko bidean dira. Segidan, kudeaketa batzordeko kideek hartu zuten hitza. Taberna-dendaren kokaleku posibleak aurkeztu zituzten eta bertaratu zirenek publikoaren aldeko hautua egin beharko litzatekeela erabaki zuten. Orain, taberna-denda udaletxeko eraikinean, karrapean edo lehenengo solairuan, jartzeko aukera desberdinak aztertuko dituzte. Ekainaren 25ean egitekoa zuen lehenbiziko bilera talde eragileak.



LORE BERASALUZE

Suhiltzaile lanetan ibili dira

Leitzako suhiltzaile boluntarioen bisita izan zuten ekainaren 6an Nazabal eskolan. Sirenak eta argiak piztuta, sarrera ikusgarria egin zuten herrian. Egiten duten lana zein den ezagutu eta gustura ibili ziren ikasleak kamioi barrura igota eta mangera, tirolina, sokekin... jolasean.

Herrian lan egin eta bizitzeko aukerak aztertzeko bilera

Aranoko eta Goizuetako herritarrak uztailaren 2an elkartuko dira Goizuetako Herriko Etxeko ganbaran

TTIPI-TTAPA

Nor hobea herri baten etorkizuna marrazteko, bertako herritarrak baino? Herrien garapen ekonomiko eta soziala herrietatik eta modu eraldatzailean egin beharko litzatekeela iritzita, 'Gure herrietan lan eta bizi' egitasmoa jarri dute martxan Mendialdeko herrietan. Herri herri bilerak antolatu dituzte, herri bakoitzeko errealitatea ezagutu eta beharretatik aukerak sortzeko. Goizueta eta Aranoen txanda izanen da orain. Uztailaren 2an, bilera antolatu dute 18:00etatik 20:00etara Herriko Etxeko ganbaran eta herritar guztiei egin diete bertaratzeko gonbidapena.

Cederna Garalur elkarteak, Mendialdeko Aktibazio Planaren baitan landuko du egitasmoa, Mimukaiko eta Ola-

tukoopako kideen bitartekaritza izanen dute eta Nafarroako Gobernuak diruz lagunduko du. Erakunde eta adituak proiektuaren parte izanen badira ere, herritarrak izanen dira oinarria.

Gainera, proiektuko kolektiboak nola antolatu daitezkeen ikusteko, beste herri eta eskualde batzuetako adibideak ere ekarriko dituzte. Adibideetako batzuk, dagoeneko martxan dauden proiektuak izanen dira. Besteak, sortzen eta janzten, lehenbiziko urratsak ematen ari direnak. Guztiak baliagarriak izanen dira tokian tokiko beharrek elkarrekin identifikatu, eta aurrera begira elkarrekin ikasi eta lan egiteko. Topagune bat ere izanen da hitzordua, herritarren eta erakundeen artean harreman sareak sortzeko.



FELIX LOIARTE

European ere umore onean kantari

Goizuetako Umore Ona abesbatzak eta herriko gaztetxoek ikasturteari bukaera emateko kontzertu ibiltari bat eskaini zuten ekainaren 9an. Aterkipean batzuetan, aterpe bila besteetan, baina eguraldi umela kantuz goxatu eta giro ederrean joan zen dena.



FELIX LOIARTE

Azoka ibiltaria eta talo eguna bat eginda

Ekizleek, artisauen eta herriko nekazarien erakusleho bikaina izan zen plaza ingurua eta asko izan ziren, ikusmiran edo poltsikoa astinduz, azokatik bueltaxka eman zutenak. Hitzordua baliatuta, Talo Eguna ere ospatu zuten eta taloak egiten ikusi eta ikasi, eta sabela goxatzeko aukera izan zen.

Hasi dira eskolako eraikinetako hobekuntza lanak

Eskolako eta jangelako eraikinetan inguratzaile termikoa jartzeko lanak hasi dituzte. Iruñeko IZ4 enpresa arduratuko da eta hobekuntza hauekin gasaren premia gutxitu eta energia kostua gutxienez %30 aurrezteko aurreikuspen du udalak.



Aurrera doaz lanak. UDALA



UDALA

Goizuetako turismo taldea lanean

Udalak herritarrekin hartu-eman zuzena izateko apostua egin zuen agintaldi hasieran. Hainbat lantalde sortu ziren eta horietako bat da argazkian ageri den Goizuetako turismo taldea (batzuk falta dira). Burubelarri ari dira lanean eta herriko plana eta zerbitzuen inguruko informazioa bildu dute eskuorri batean.

«Ez ditugu sabelak bete nahi, jendea elikatu nahi dugu»

LOREA LIZARRETA INTSAUSTI BAZTANGO UDALEKO ZINEGOTZIA

Elizondoko zahar etxeko jangela zerbitzua hobetzeko proba pilotua abiatu du udalak, elikagai osasuntsuak, jasagarriak eta bertakoak nagusituz

R. OSKARIZ

Baztango Udalak, Zaintza Lanak enpresa publikoaren birtartez, zaharren egoitzako elikagaien eskaintza hobetzeko prozesua martxan paratu du. Udaleko zinegotzia den Lorea Lizarreta erratzuarra egitasmoan lanean aritu da, eta azaldu duenez, «lehenagotik ere proiektua egiteko aukerak aztertu izan ziren, baina aldaketa sakonak dira, eta ez ziren baldintzak ikusi. Orain, zahar etxearen publikazioari esker, zuzeneko kudeaketa dugu».

Izan ere, «kontratu publikoek, gardenak eta parekideak izateaz gain, irizpide ekonomiko, sozial eta etikoak bete behar dituzte. Nafarroako Foru Legeak ere ezartzen du zerbitzuen kontratueterako exijitu behar dela elikagaien kalitatea, osasungarriak izatea eta produktuaren bizi zikloan sortzen diren CO2 isuriak kontuan hartzea. Hori guztia zahar etxean aplikagarria litzatekeela ikusi genuen».

Ongi elikatzearen garrantzia

99 egoiliar ditu gaur egun zahar etxeak, eta astelehenetik iganderako bortz otorduak barne hartuta, asteko 3.500 menu osasungarri eta jasagarri emateko asmoa dute. «Osasun erakundeen gomendioak urtez urte aldatu dira, baina batez ere fruta eta barazki freskoen, zereal osoen eta landare proteinaren kontsu-



Proiektuaren aurkezpena egin zuten ekainaren 12an. BAZTANGO UDALA

moa handituko dugu, eta produktu izoztuen, prozesatuen, ultraprozesatuen, frijituen eta azukre erantsiaren kontsumoa murriztu».

«Aunitzetan zaharrak dira zaugarrienak zaintzari dagokionez, baina ez ditugu sabelak bete nahi, jendea elikatu nahi dugu. Eta elikatze horretan garrantzitsua da osasungarria izatea baina aldi berean goxoa izatea, ongizatea sortzea eta komunitatean partekatzen den otordua izatea».

Bertako produktuak

Baina produktuen kalitatea ez ezik, jatorria ere kontuan hartuko dute. «Orain arte bi hornitzaile nagusirekin lan egiten zuten egoitzan, eta guk hamar

bat hornitzaile berrirekin hastea planteatu dugu. Horrek aldaketa sakonak ekarriko ditu funtzionatzeko maneran; hornitzaile gehienak eskualdetik kanpokoak ziren, eta guk bertako ekoizle eta merkatariekin egiten dugu lan».

Kalkuluen arabera, «elika-gaiaren laurdena Baztan-Bidasoko ekoizleena izanen da, bertze hainbertze Nafarroako ekoizle ekologikoena, eta herena tokiko merkataritzarena».

«BERTAN EROSTEN BAZTAN BIZIRIK MANTENTZEN LAGUNTZEN DUGU»

Adibidez, hemendik aitzinera, Baztan-Bidasoan ekoiztutako esnea, jogurta, ogi integrala eta sagar zukuak sartuko dira egoitzako gosarian, eta hornitzaileen artean bertako arrandegiak, harategiak eta okindegiak izanen dira».

«Aldaketek eskualde mailan izanen dituen onurei begiratzeko diogu; zuzenean bertako nekazariei erosteak Baztan bizirik mantentzen lagunduko du. Gure lurren zaintzan ere aurrerapauso handia izanen da, jatorri ekologikoa duten produktuak izanen baitira. Bertetik, tokiko merkataritzak arras paper garrantzitsua betetzen du gure herrietan eta erosketen herena bertako merkatariei egiteko onura handiak ekarriko ditu».

Lankidetzaren proiektua

Udala urtarilaz geroztik ari da proiektuan lanean egoitzako sukaldako langileekin eta erosketarako langileekin. «Lan egiteko modua aldatzeak esfortzu handia eskatzen du, baina goraiatzekoa da hartu duten konpromisoa eta parte hartze aktiboa. Normala da hasieran kezka eta beldurrak izatea, baina orain proba pilotuarekin ari gara eta udan ikusiko dugu zerk funtzionatzen duen eta zer hobetzen ahal den. Mantso-mantso denengizatera egokituko gara, osasungarritasuna mantenduz eta oreka bilatuz».

Proiektuak Cederna Garalurren parte hartzea izan du, eta Nafarroako Gobernuak eta Landa Garapenerako Programak finantzatu dute, autofinantzaketaz gain. Gainera, proiektuaren dinamizaziorako Mirua mikrokooperatibaren, Elikalimen nutrizio aholkularitzaren eta Nhoalab zuzkidura aholkularitzaren laguntza dute.

Trantsizioa ekainaren 17an abiatu zuten eta aurreikusituz dutenez, «gutienez urtebeteko lan sendoa beharko da erronka guzietan konponbidea emateko».



Musika eta umore ona izanen dira nagusi bestetan. ARTXIBOTIK

Azpilkuetako bestak ospatuko dituzte uztailaren 4tik 7ra

Herriko gazteek adin guzietarako pentsatutako egitaraua prestatu dute lau egunez

TTIPI-TTAPA

Uztailak 4, ortzeguna.

18:30ean besta hasmenta txupinazoarekin, eta 19:00etan frontenis txapelketako finala jokatuko dute. 21:00etan ez-kila jotzea eta 21:30ean baztan zopak afalduko dituzte. Ondotik gaupasa izanen da, Beñat akordeoilariak alaituta.

Uztailak 5, ortziralea. 11:30etik aitzinera puzgarriak. 14:00etan gazte bazkaria eta 16:30ean mus txapelketa. 17:30ean txokolate hartzea izanen dute eta 18:00etan bingo eta karaokea. 20:00etan bokatak gurasoen eskutik.

Uztailak 6, larunbata.

08:00etan zikiroko su piztea eta 09:00etan gosaria. 14:30ean zikiro jatea izanen da eta 21:00etan afaria, Modesto akordeoilariak alaiturik. 00:00etan gaupasa izanen dute DJ Benturarekin.

Uztailak 7, igandea.

10:00etan kalejira izanen da herriko haurren eskutik, eta 11:00etan meza nagusia. 12:00etan luncha herriko elkartean. 17:00etan Eriz magoaren ikuskizuna eta 18:30ean haurren pilota partidak. 20:00etan tortilla jatea eta ondotik Gaixoa ni.



UTZITAKOIA

Ariztegiko eguna ekainaren 29an

Gartzaingo Ariztegi auzoko auzotarrek besta eguna izanen dute larunbatean. Goizean hasiko da jardunaldia, 10:00etan gosaria eginen baitute. 14:00etan, berriz, zikiro jatea izanen dute eta ondotik bestak segida izanen du DJ Kapitan Generalen eskutik.



BAZTANGO UDALA

Agurra udaleko hiru langileri

Ekainaren 14an Baztango Udalak hiru langile agurtu zituen: Rosa Mari Sanchezek, Jesus Oskozek eta Pello Maiak erretiroa hartu dute. Agurra emateko opari bana hartu zuten eta udalak onena opa die bizitzako etapa berri honetan.

ELEKBERRI INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

EGUZKI PANELEN INSTALAZIOA

- Proiektu pertsonalizatu, baimen eta diru laguntzen gestioa
- Amortizazio planen azterketa
- Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntoen instalazioa
- Finantziario aukera



646854825 / 616898065 · elekberri@gmail.com · Elizondo (Baztan)

«Kartelarekin pertsona oro identifikatua sentitzea nahi dut»

SAIOA LIGOS ALBACETE ELIZONDOKO ARTISTA

Ekinaren 12an Baztandarren Biltzarra elkarteak bestaren 61. edizioko kartela aurkeztu zuen eta irudiaren egilearekin mintzatu da TTIPI-TTAPA

R. OSKARIZ ELIZONDO

«Pertsona lasaia, sortzailea eta alai». Halaxe definitu du bere burua Saioa Ligos 21 urteko gazteak. Elizondon sortua ez bada ere, 4 urterekin etorri zen gurasoekin Amurriotik, eta ongi ezagutzen ditu bertako bestak. Pedagogia ikasketak egiten ari da Donostian, baina arte plastikoak ditu zaletasun, eta Baztandarren Biltzarrako kartela sortzeaz arduratu da aurten.

Arteari dagokionez, nola egiten duzu lan?

Era guzietako materialarekin esperimentatzea gustatzen zait; akrilikoak, pastelak, errotuladoreak, akuarelak... baina arkatza beti izanen da nire eremu segurua. Diseinuaren kasuan, lehendabizi eskuz egiten ditut gauzak, eta gero garbira pasatu boligrafo edo errotuladoreekin. Baina egia da arte digitala muga dudala; batxilergoan aplikazio batzuen erabilera eman bagenuen ere, ez naiz hain ongi moldatzen.

Zein formakuntza duzu?

Nire prestakuntza artistikoa, titulu baten formaltasunetik kanpo, pertsonala da. Tikititik aunitz gustatu izan zait artea bere forma guzietan, eta aunitz marraztu dut nire kabuz bizitza osoan. Lekaroz Institutuan batxilergo zientifikoa hasi nuen, baina artistikora aldatzea erabaki nuen eta Iturraman ikasi nuen, horrek suposatzen zuen guziarekin: egunero Iruñeraino joatea,



Saioa Ligos artista, berak diseinatutako kartela ondoan duela. R. OSKARIZ

jende berria ezagutzea... Gaur egun, gizarte zientzietako karrera bat egin eta alderdi artistikoa nolabait 'baztertua' izan arren, lan pertsonal batzuk egiten segitzen dut, batez ere hurbileko jendearendako koadroak. Adibidez, azkenekoa Sorollaren *Musua* koadroaren irudikapen propioa izan da, opari baterako.

Nola sortu zitzaizun Baztandarreneko kartela diseinatzeak aukera?

Elkarteko Kattalin Arizmendik proposatu zidan, eta eskertzen diot nigan pentsatu izana. Ilusio handia egin zidan erran zidanean, ez nuen espero. Hasieran zirriborro bat eskatu zidaten, eta kosta egin zitzaidan ideia zehatz bat ate-

ratzea, baina hainbat gauza bidali ondotik, azken ideia behin betikoa izan zen. Oniritzia ematean, xehetasunak sakonago egin nituen.

Nolakoa izan da prozesua?

Argi neukan Baztango armarría agertzea nahi nuela, baita kolore eta mugimendu handia izatea ere, hortaz, hasieratik nahi izan nuen jendea dantzan agertzea. Hasmentako irudiak konplexuagoak ziren, eta prozesuan sinplifikatuz joan ziren.

«EUSKAL KULTURA OSOA IRUDIKATZEN DUEN BESTA DA BAZTANDARREN»

Lehenik janzkera tradizionalak islatzen dituzten bi pertsonak egin nituen, baina kalkatzeko teknika aunitz erabiltzen ditudanez, bi irudiak konbinatzea bururatu zitzaidan. Nolabait, kartela eta mezua eskutik hartuta garatu ziren. Ideia nagusia sortzeak suposatu zidan lan gehiena, horren ondotik arinagoa eta eramangarriagoa izan zen. Digitalera pasatzeko orduan lagun on batek, Saioa Maritorenak lagundu ninduen lehenbizi, eta behin betikoa pasatzeko Juan Angel Perotxenaren laguntza izan dut.

Zer irudikatu nahi izan duzu?

Jantzi tradizionalekin lotutako genero estereotipoen haustura irudikatu nahi izan dut; norbera bere egiazko nortasuna adierazteko aske senti dadin, epaituta edo diskriminatuta izateko beldurrik gabe. Janzkera adierazpen kultural eta pertsonalerako modu bat da, eta ez du gure esentzia mugatzen duen oztopo bat izan behar. Kartela begiratzen duen pertsona oro identifikatua sentitzea nahi dut, besta eder honetara etortzen diren guziak ongi etorriak eta onartuak sentitzea.

Zer da zuretzako Baztandarren Biltzarra?

Bertako kultura eta ohiturak nabarmentzen dituen eguna. Besta antolatzeke haraneko jendearen borondatezko parte hartzea azpimarratzekoa da. Aipatzekoa da ere herri bakoitzak orga bat egiteko hartzen duen lana, xehetasun guziekin sortzeko prozesua eta antzeppenak, Baztango kulturaren eta gizartearen alderdiak islatzen dutenak. Baztango sustrairik ez dudana arren, hainbertze urtez ikusi eta bizi izan dut besta eta erran nezake musikarekin, dantzeekin, jantziekin etab. identifikatuta sentitzen naizela, euskal kultura osoa irudikatzen duelako. Hazten joan naizen heinean, bestaren erranahia ezagutzen eta baloratzen ikasit du, eta aunitz gozatzen dut.



Langileak grebako azken egunean. ELA

112 egunen ondotik Lozy'seko langileek greba akitu dute

Ia lau hilabeteko borrokaren ondotik, KPItik goitiko iguerak eta lanaldia 24 orduz murriztea lortu dute

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 20an hasi zuten Lekarozko Lozy's Pharmaceuticals enpresako langileek lanuztea, baldintza propioak lortzeko. Izan ere, estatuko kimiketako hitzarmena aplikatzen zitzaien langileei eta egoera irregularrak salatu zituzten.

112 egunez egon dira langileak greban, ia lau hilabetez, eta hainbat mobilizazio eta elkarretaratze egin dituzte Elizondon zein Iruñean, hitzarmen propioa eskatuz eta enpresaren jarrera salatuz.

Ekainaren 12an greba utzi-ko zutela adierazi zuen ELAK, izan ere, lantaldea osatzen duten 80 langileen baldintzak hobetzeko akordioa sinatu du sindikatuak: «lanaldiaren 24 orduko murrizketa, KPItik goitiko iguerak, antzinatasunaren eta aldi baterako ezintasunaren osagarriaren hobekuntzak eta inaplikazio klausula». Sindikatuak akordioaren balorazio positiboa egin du eta «langileek erakutsitako indarra eta elkartasuna» nabarmendu du; «mobilizazioak ezinbertzekoak izan dira hitzarmen propioa lortzeko».



Ekainaren 18ko eguerdian jendetza elkartu zen Elizondon. ONDIKOL

Elkarretaratzea Osasun Etxean osasun sistema publikoaren defentsan

TTIPI-TTAPA

Jendetza bildu zen ekainaren 18an Elizondoko Osasun Zentroaren aitzinean, EH Bilduk deitutako elkarretaratzean.

«Aspalditik jasaten ari garen sistema publikoaren hutsuneak» salatu zituzten; «ebakuntzetako itxaron zerrendak, mediku eta pediatren falta,

hitzorduen etengabeko gibelatzea... eta egoera bereziki larria dugu Baztanen. Ezarritako mediku eta pediatra kopuruaren arrazazpitik ari dira lanean, eta aurreikuspenak okerragoak dira. Gobernuari exijitzen diogu bermatu dezatela kalitatezko osasun publikoa nafar guztiontzat».

Bertako produktuen azokak larunbatero Elizondon

Baztango Artisauak eta Baztango Zaporeak elkarrekin merkatuak egin dituzte udan ere Elizondon. Hilabeteko larunbat guzietan herriko plazan izanen dira 10:00etatik 14:00etara. Bertako elikagaiak eta eskuz egindako lanak erosteko aukera izanen da.

Qabalum-en dantza ikuskizuna abuztuaren 3an

Nafarroako Gobernuak Kultur 2024 programa argitaratu du eta hainbat ekitaldi izanen dira Nafarroa osoan zehar. Elizondon ere izanen da zer ikusi: abuztuaren 3an Qabalum dantza taldeak *Todo ese ruido* ikuskizuna aurkeztuko du plazan 19:30ean.

Pedro Axular karrika, 2 Elizondo

IRAKASLE NATIBOA

2024-2025 MATRIKULA IREKITA

Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa (B1, B2) eta Helduak

Christina Irigoyen ☎ 637 176 572 ✉ josephinesenglish@gmail.com

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
ESTRATEGIA DE CALIDAD

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

Jaime Brunet saria Anne Garmendia elizondoarrarendako

Haur Hezkuntzako ikasketak egin ditu eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak bere Gradu Akaberako Lana saritu du

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 14an Nafarroako Unibertsitate Publikoak Jaime Brunet sariak banatu zituen eta hiru ikasle saritu zituzten haien Gradu Amaierako Lanengatik: Oier Santamaria Remon, Alvaro Gurbindo Martinikorena eta Anne Garmendia Zubikoa elizondoarra. Hiru irabazleek 2.000 euroko saria banatu dute.

Haur Hezkuntzako ikasketak egin ditu Garmendiak, eta gazteen familia barneko tratu txarren detekzio goiztiarra eta marrazkien bidez-

ko analisia izan ditu aztergai azken lanerako. Fernando Trebol Unzue irakaslearen zuzendaritza izan du lana egiteko. Gainera, proiektuak Baztango Udalaren beka lortu zuen joan den urtean.

Jaime Brunet Unibertsitate Saria Jaime Brunet Fundazioak banatzen du eta giza eskubi-defentsaren aldeko lanak saritzea du helburu.

Gaia tabu

Arlo teorikoan, adingabeek familia barneko tratu txarrak, detekzioa eta adingabeen



Ekainaren 14an egin zuten Jaime Brunet sariaren banaketa ekitaldia. NUP

esku-hartzea ikertu ditu Garmendiak. Esparru praktikoan, aldiz, Baztango zerbitzu profesionalen lan sarea aztertu du, baliabideak sortu ditu detekzio goiztiarrerako eta zentroetan erabilgarria izaten ahal den protokolo bat egin du.

Elizondoarrak azaldu duenez, «haur eta gazteen babesgabetasunari buruzko ezagutza ttikia dago gizartean, tabutzat hartzen den gaia

delako, eta tratu txarrak arras guttitan gertatzen diren uste okerra dago».

Hezkuntza sisteman, «profesionalek ez dute gaitasunik egoera horiek ikasgeletan detektatzeko eta esku hartzeko, gaiari buruzko ezagutza ttikia baitute eta eskolek ez dutelako jardura zehatz eta garatuen protokolorik. Hortaz, erraten ahal da irakasleek ez dakitela nola jokatu egoera horietan».



Alazne Aizpuru eta Izaskun Iriarte nabartearrak izan ziren txapelkun. ANE BERHO


Baztango Emaztekien Frontenis Txapelketa berrartu dute aurten

TTIPI-TTAPA

Maiatzean abiatu zuten txapelketa eta 14 bikotek parte hartu zuten guztira. Bi taldeetan banatu eta talde bakoitzeko hoberenak ekainaren 14ko finalerdietan aritu ziren. Lehenik Alazne Aizpuru eta Izaskun Iriarte, Itxaso Iturregi eta Saioa Dendarietaren kontra, ondo-

tik, Nerea Bidegain eta Edurne Argain, Marijo Dagerre eta Marijoxe Alemanen kontra.

Biharamun goizean irabazleek finala jokatu zuten: Aizpuru eta Iriarte, Bidegain eta Argainen kontra. 30-17 irabazi zuen Narbarteko bikoteak. Ondotik bazkaria egin zuten partaide guzkie Eskisarioen.



UTZITAKOAK

Arte erakusketa ikusgai Arizkunenean

Enara Beorlegi eta June Azpirozen erakusketa Arizkunenean da; arte birziklatua, teknika mistoak eta ilustrazio digitalak ikusteko aukera izanen da uztailaren 6ra arte. Astelehenetik ortzegunera 17:00etatik 20:00etara eta ortzirale eta larunbatetan 12:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara.



Amaiurko, Arizkungo eta Erratzuko gazteak aritu ziren herri kiroletan. I. ALEMAN



Amaiurtarrek eta erratzuarrek lan ederra egin zuten. IXABEL ALEMAN

Giro ezin hobean ospatu dute Baztangoizako besta

Amaiurtarrak, azpilkuetarrek, arizkundarrak eta erratzuarrek Arizkunen bildu ziren ekainaren 8an

TTIPI-TTAPA

Arizkungo Herriak Baztangoizako besta antolatu du aurten lehenbiziko aldiz, «herritarrak elkartu eta gure arteko erlazioak sendotzeko aukera gisa». Ekainaren 8an ospatu zuten besta eta egun arrakatsua izan zen.

Goizean herri kirolak izan zituzten; Amaiurko, Arizkungo eta Erratzuko gazteak aritu ziren lehian eta aizkorako azken ebaketan arizkundarrak izan ziren nagusi. Ondotik bazkaria izan zuten frontoian eta jendetza elkar-tu zen, 180 lagun inguru bil-

du baitziren mahaiaren bueltan. Bestak arratsaldean izan zuten segida, Bizphiru Pelau taldearen dantzaldiarekin, eta bokatak afaltzeko aukera ere izan zuten. Eguna boro-biltzeko, DJ Venturak girotu zuten gaua.

Antolatzaileak arras kontent agertu dira: «jende dezente bildu zen goizean herri kirolak ikustera, eta batez ere arratsaldean. Orokorrean, lehendabiziko edizioa izateko, kontent. Amaiurri pasatu diogu lekukoa, beraz, hurrengo urtean han izanen da besta!».



Aizkorako azken ebaketekin arizkundarrak lortu zuten garaipena. IXABEL ALEMAN



180 lagun inguru bildu ziren bazkaltzeko. IXABEL ALEMAN

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEOIAK
HILERRIAK
ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK
HARRI ZIZELKATZEA

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444
marmolessoule@gmail.com |

Panelak
Aluminioa, PVC edo metakrilatoa

Neurrira eginak, formekin moztuak, formatu handiak, iraunkorrak...

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea
www.kulturkari.com

The Hauts End
GarbiketoZerbitzua

OBRA BUKAERAKO GARBIKETAK
NEKAZAL TURISMO ETXEA
PARTIKULERRANDAKO PROFESIOALENDAKO
*Orduka ere aritzen gara.


+34 671 756 572 | the.hautsend@gmail.com
ELIZONDO

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Dibortzioak, herentziak, alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

ZUGARRAMURDI



Herriko etxe berrituaren jatetxean daude ikusgai ilustrazioak.

Muga Gabe jatetxeko ate irekitzean ilustrazio erakusketa

'Sorginak-Akelarre ilustratua' 30 emazteki ilustratzaileen lanak ikusgai izanen dira bi hilabetez herriko etxe berrituan

MARIFA ETA KORO

Herriko etxeko jatetxeari Muga Gabe eman diote izena. Lais-ter idekiko dute, baina ekainaren 15ean barnetik ezagutzeko aukera izan genuen, egun horretan *Sorginak - Akelarre ilustratua* erakusketa inauguratu baitzuten.

Erakusketa honetan 30 emazte-tekik egindako koadroak daude, sorgin irudiaren arras estilo desberdinak eskainiz: Miriam Persand, Mireia Pérez, Sara Bea, Sara Soler, Ana Galvañ, Carla Berrocal, Sandra Uve, Josune Urrutia, Mabel Esteban, Laura Pérez, Genie

Espinosa, Clara Soriano, Ana Oncina, Teresa Valero, Natacha Bustos, Irene Márquez, Nadia Hafid, Olga de Castro, Mermelada de sesos, Susanna Martín, Higinia Garay, Ane Pikaza, Raquel Meyers, Roberta Vázquez, Marta Cartu, Cristina Durán, Rosa Codina, Anabel Colazo, Núria Tamarit eta Xulia Vicente.

Koadroak ostatuan eta bi jantokietan emanak dira, eta bi hilabetez ikusgai utziko dituzte. Jatetxea kudeatuko duen Raun Tarancón *chef*-ak gastronomia eta ilustrazioa uztartu nahi izan ditu.

Mural ederra marraztu dute Akelarrenea elkarteko pareta nagusian

MARIFA ETA KORO

Akelarrenea elkarteko pareta nagusian mural eder bat egin dute ekainaren 14ko eta 15eko asteburuan. Aspaldixotik borbor zegoen ideia zen, eta ongi hausnartu ondotik, gai aunitz biltzen duen marrazki eder bat sortu dute, Iruñeko Asisko

Urmenetaren eta Baztango Juan Angel Perotxena artista ezagunen eskutik. Inauteriak, kontrabandoa, pastoralak, sorgin ehiza, Korrika, bestetako zikiro jatea, eta herriarekin zerikusia duten hainbat gai gehiago marraztu dituzte parretan, maisuki.



MARIFA ETA KORO

Bizikletak uzteko eta moldatzeko tokia

Berriki atondu duten plaza berrian bizikletak uzteko tresna berezia paratu dute, eta ondoan baita bizikleten aberia tikiak moldatzeko tresneria plantatu ere. Plazan txirrindulari aunitz gelditzen dira atseden hartzen eta eskertuko dute, seguraski, konponketa erreminta horiek eskura izatea.



MARIFA ETA KORO

Rokodromoa jostaleku berrian

Berriki estreinatuta den haurren jostalekuan bertze elementu bat eman dute: rokodromo bat. Toki honetan zegoen herriko frontoi zaharra, eta aitzin pareta baliatu dute rokodromoaren euskarriak jartzeko. Dagoeneko herriko neska-mutikoez probatu dute *jostailu* berria.



Murala marrazten. MARIFA ETA KORO

Ekainaren 14an, ortzirale arratsaldean, irudia paretan marraztu zuten (proiektore baten laguntzarekin), eta bihar-munearan pintura lanetan aritu ziren egun osoan. Lan handia izan zen, larunbateko gauerdian finitu baitzuten, baina egindako lanarekin arras kontent gelditu ziren. Akelarrenea bisitatzen dutenek ikusteko aukera izanen dute hemendik aitzinera.

SARA



Mendizaleak, ibilbideko pausaldi batean. GANEX

130 mendizalek parte hartu dute Sara Oinezen

Har Hitzak antolatuta, bi ibilbide izan zituzten aukeran ekainaren 16ko goiz eguzkitsuan

GANEX

Har Hitzak elkarteak antolatutako Sara Oinez mendi ibilaldiak 130 bat mendizale bildu zituen ekainaren 16an. Ibilbide laburrean eta luzean, izugarriko egun goxoa pasatu dute denek, Sarako mendi ederrakikusiz. Aurtengoa ongi joan da, heldu den urtera arte.



Paella egiten. GANEX

Eskutik tailerrera bisita

Iparraldeko Pilota Batzordeko arduradunek Eskutik kooperatibaren tailerra bisitatu dute, pilotak eta pilotan aritzeko tresnak nola egiten dituzten ikusteko.

180 paella errazio

Aitzin horretan, Sarako Zazpiak Bat dantza taldeak egin du paella salmenta herriko plazan. 180 bat errazio saldu dituzte, izugarri kontent ziren denak.

URDAZUBI



TESTUA ETA ARGAZKIA. ARANTXA ETA IRAIA

Xaretarrak Inesa Gaxen pastoralean

Ekainaren 15ean eta 16an *Inesa Gaxen* pastorala izan zen Bastidan. *Maddiren trajeria* pastoralean arituriko satanek dantza bat eskaini zuten. Haiek sustengatzeko eta Xarneguko pastoralez gozatzeko, Xaretakoan arituriko arizale andana hurbildu zen. Irailaren 21ean eta 22an Bardozen egingen dute.

Ikasturtea bukatzeko Irisarrira eta mendira irteerak

Ikasturtea bukatzekoko Irisarrira ateraldia egin zuten Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 1, 2, 3 eta 4. mailakoek. LHko 5 eta 6 mailakoek eta DBHkoek, mendi irteera egin zuten. Eguna borobiltzeko, irakasleek prestatutako *scape room* bat izan zuten.

Trikitixa eta pandero ikasleen emanaldia

Trikitixa eta pandero klaseei ere ekainaren 18an eman zieten akabera, kurto bukaerako emanaldi bat eskainiz. Kultur etxera bertaratutakoek urte guzian landutako kantuez gozatzeko aukera izan zuten. Emanaldia merienda goxo batekin borobildu zuten.

VENTA PEIO
GEHIAGO EMATEN DIZU

IBARDIN 31780 Bera BEHOBIA 20305 Irun LUZAIDE 31660 Luzaide DANTXARINEA 31712 Urdax

Egunero irekia, astelehenetik igandera arte
*Abenduaren 25^a eta urtarrilaren 1^a izan ezik

Jantxidendak · Lurrin-dendak · Bitxi-dendak · Supermerkatuak · Tabako-dendak
Harategiak · Jatetxeak · Ostatuak · Sagardotegia

www.venta-peio.com Tel. +33 9 72 10 40 20 (Fr.) Tel. +34 948 625 130 (Es.)

BRIKO BAZTAN, SL

Drogeria · Garbiketa produktuak
Feretaria · Sukaldeko tresnak
Mozorroak · Papertegia
Kiroleko eta mendiko jantziak
Moda · Oinetakoak
Laneko arropa · Bitxiak
Lurrin-denda
Kosmetika, Elektronika
Telefonoak · Poltsak eta maletak
Etab.

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

Larhungo Trenaren mendea udazkenean ospatuko dute

Ereiaroko azken aste hondarrean egitekoa zen, baina hauteskundeak direla eta gibeleratu dute ospakizuna

GANEX

Azken aldizkarian aipatu bezala, ekainaren 30ean ehun urte beteko ditu Larhungo trenak tontorrera lehenengo bidaia egin zuenetik. Kari horretara, asteburu honetarako mendeurrenako egitarau oparoa antolatzeko zuten Pirinio Atlantikoetako Departamentuak eta Sarako Herriak. Baina ekaineko hondarreko igandean Frantziako parlamenturako hauteskundeen lehen itzulia eginen dela eta, ospakizuna udazken aldera gibeleratzea erabaki dute.

Bisita berezia lezeetan

Lezearen esplorazio originala ipuin eta elezaharren bidez proposatu dute ekainaren 28an, ortziralean 18:30ean hasita. Tikiak (frantsesez) eta Maddi Zubeldiak (euskaraz) lagundurik, lezearen bihotzean bidaia liluragarri bat egiteko proposamena egin dute, «Sarako lezearen edertasuna eta bere misterioak ikuspegi berri batetik ezagutzeko bisita originala». Helduek 6,50 euro ordaindu beharko dute eta hamar urtetik goitiko haurrek 5 euro.



GANEX

Urtxintxak eskubaloi taldeak 30 urte

Urtxintxak eskubaloi taldeak 30 urte bete ditu. Elkarreak zikiro jatea egin zuen eta 130 bat lagun baziren, elkarrea sustengatzera etorriak. Stephane Aguerre oraingo buruzagiak bere kargua utziko du eta ohoreak egin dizkiote jokalariek eta bulegoak. Hunkiturik, harrizko oroigarria ukan du.



UTZITAKOIA

Zangoak Arin Nafarroan barna

Zangoak Arin mendizaleen elkarteak Nafarroara ateraldia egin zuen ereiarioaren 4an, Irunberriko arrolara zehazki. 25 lagun baziren txangoan eta izugarrizko egun goxoa pasatu zuten, gauza eta inguru ederrak ikusiz. Argazkia Leireko monasterioaren aituzinean egin zuten.



GANEX

Beti Gaztek bigarren elkarretaratzea

Beti Gazte erretirodunen elkarteak ereiarioaren 8an egin zuen bere bigarren elkarretaratzea Baratzartea jatetxean. 54 kidek egun goxo bat pasatu zuten, ederki bazkaldu zuten, jateko onak eginak baitzituen Frederiko sukaldariak. Dena umore onean pasatu zen, euskal kantu eder batzuk emanez.

Montxo
JATETXEA • ERRETEGIA
Tradizioa, historia eta gastronomia
asadormontxo.com

Axular karrika, 12
31711 Urdazubi-Urdax (NAFARROA)
+34 848 85 00 21
info@asadormontxo.com

Jondoni Petri bestak ekainaren 27tik uztailaren 1era

Ortzeguneko Merkatarien gualdiarekin hasi eta asteleheneko komitearen desfilearekin eta kontzertuekin bukatuko dira

JL BESSONART

Jondoni Petri bestak, usaia ez den bezala, ekainaren 27tik uztailaren 1era iraganen dira, ortzegunetik astelehenera, betiko programa mamitsua-rekin.

Ortzeguna, ekainak 27, Merkatarien gualdia deitua, Auxtin Zamoraren liburu aurkezpena eta solasaldia Mediatekan (18:30), Zirikolatz dantza taldearen emanaldia (19:30), Pintxo Pote jatetxeetan Artxe-roak kantariekin (20:30) eta Rakatapunk txaranga (22:30).

Ortziralea, ekainak 28, adinekoen bazkaria (12:00), Eskolen lasterketak kirol zelaian (14:00), Zintzur bustitzea pilota plazan (20:00), Zikiroa Baga-Bigak animatua (21:30). Etixeratzea taxiz urririk.

Larunbata, ekainak 29, Haurren jokoak eta piknika parterkatua Euskaraz Bizi elkarteak antolatua (11:00), Gakoena emaitea Komiteari (12:00), Beer Pong lehiaketa (14:00), Pilotari gazteen finalak pilota plazan (16:00), Futbol txapelketaren finalak (17:00), Distrofia Elektrotxaranga (20:30),



Gazteen komitea. UTZITAKOIA

Kontzertua Itziaren Semeak taldearekin (22:30) eta dantzaldia Katxi taldearekin (00:30).

Igandea, ekainak 30, meza nagusia batera txarangarekin (10:30), Aperitifa Herriko etxeak eskainia (12:00), Senperten bazkaria, paella herriko plazan (13:30), Ahate jokoa karrikan (18:00), *Familiak kantuz* Kantaldia (19:00), Elektrokela Elektrotxaranga (20:00), Dantzaldia Basapiztiak taldearekin (23:00).

Astelehena, uztailak 1, *Joko Olinpikoak* lemarekin, Komitearen desfilea (16:00), Mutxikoak Saltoka taldearekin (19:00), Kontzertua If Renaud was a Punk taldearekin (22:00) eta DJ gauerditan.

Hatsaren olerki tailerra uztailaren 6rako antolatu dute Donostian

Eukene Lizeagarekin iraganen da uztailaren 6an. 10:30ean hitzordua, Madamar Tabakalera taberna aitzinean, Nestor Basterretxea plazan; 11:00etan *Ni Urumea* bideoa ikusgai Tabakalera; 12:00etan Gladisenearen barne, Mikel Laboa zubitik Loiola auzora ibilbidea,

ibai ertzetik, berriro itzuli Zurriolako bokaleraino. 15:00etan bazkaria nahi dutenek Botanika taberna (25 euro). Ilunbe eta Miramonen aparkalekuak doan, topo eta autobusak daude. Izen emaitzak: olerkibilduma@sfr.fr, ekainaren 30a baino lehen.



UTZITAKOIA

SPUC errugbi taldea finalean

Ekainaren 9an final-laurdenetan Gers herrialdeko Bassoues-Lupiac-Montescq taldeari 22-17 irabazi eta gero, ekainaren 16ko finalerdian, senpenterrek garaipena lortu dute 30-7 St Jean d'Angelyren aurka. Frantziako final handia R2 mailan, hilaren 23an iragan beharra zen, Millas katalandarren kontra.



UTZITAKOIA

Eskubaloian txapeldun

Ekainaren 16an, Gan herrian, Senpereko nesken bi taldeak departamentuko txapeldun atera dira. Ohorezko mailan, 18 urtez azpiko taldeak (argazkian) 33-26 irabazi zion Bordes taldeari eta 15 urtez azpiko taldeak, oraindik errazago, 36-16 Nafarroa taldeari. Zinez ospatzeko emaitzak.

Besta Berriko ospakizun jendetsua eta hunkigarria

Belaunaldi guziak uztartzen dituen ospakizun eder hori ongi nabaritu da ekainaren 2an. Gaur egun, elizatik pixka bat urrundua diren haur eta gazteak, betiko aktore bilakatzeko dira. Parte hartze musikalak, kantatua, dantzak, kartsutasunean iragan da.



Besta Berri eguna.



Pilotari eta bertsolari txapeldun eta txapeldunordeak. UTZITAKOA

Kukuprakak txapeldun Adosen Udaberri txapelketan

Etzekolonea zubietarraren taldeak bi partidak irabazi zizkion Iturriaga leitzarraren Mitxoletak taldeari Azpeitiko finalean

TTIPI-TTAPA

Bildutako pilotazale guztiak biltzeko egiatan txiki gelditu zen Azpeitiko Frontoi Txikin jokatu zuten ekainaren 8an Ados pilota elkartearen Udaberri pilota txapelketako finala. Mitxoletak (Ruiz de Larramendi, Mendiburu eta Iturriaga leitzarra, Uxue Fernandez bertsolariarekin) eta Kukuprakak (Mujika, Ruiz de Infante eta Etzekolonea zubietarra, Sebastian Lizaso bertsolariarekin) izan ziren aurrez aurre eta azken hauek nagusitu ziren bi partidatan, txapela eskuratuz.

Lau eta erdiaren barrenean, Kukuprakak taldeko Ruiz de Infantek 18-12 irabazi zion Mitxoletak taldeko Ruiz de Larramendiri. Honela, txapela irabaztekoan, binakako partidatan hamasei tanto edo guttiagoan utzi behar zituzten Mitxoletak taldeko Iturriaga leitzarrek eta Mendiburuk, Kukuprakak taldeko Etzekolonea zubietarra eta Mujika. Baina ez zen halakorik gertatu eta Kukupraketek bigarren partida ere irabaztea lortu zuten: Etzekokoloneak eta Mujikak, 22; Iturriagak eta Mendiburuk, 20.



UTZITAKOA

Alize Sagardui berriz txapeldun

Nafarroako Foru Komunitateko Torneoaren laugarren edizioako gazte mailako pilota mistoko finalean, Alize Sagardui goizuetarrak eta Uxue Gomezek 18-8 irabazi zieten Onintza Galdosi eta Naia Zelaiari ekainaren 9an Labriten. Elite mailan, Arraiza eta Gaminde izan ziren txapeldun.



UTZITAKOA

Joanes Olaizola Nafarroako txapeldun

Nafarroako kadete mailako erlojupeko txapelketa irabazi zuen Aurrerako Joanes Olaizola txirrindulariak ekainaren 2an Vianan, 8,65 kilometroko ibilbidean nagusituta. Bigarren postuan Aralar taldeko Luca Martinez sailkatu zen, eta hirugarren talde bereko Erik Laiglesia.

Aimar Otxoteko lesakarrak irabazi du Intxixu Trail mendi lasterketa Oiartzunen

IX. Intxixu Trail mendi lasterketa jokatu zen ekainaren 9an Oiartzunen. Gizonetan, Beti Gazteko Aimar Otxoteko lesakarra izan zen 16 kilometroko ibilbidea egiten azkarrena (01.16.15). Hodei Lujanbio goizuetarrak hamasei segundo gehiago behar izan

zituena. Podiuma Josu Urresatarazu idiazabaldarrak osatu zuen. 208 korrikalarik osatu zuten proba eta hamar lehenbizikoetan sartu ziren eskualdeko bertze bi korrikalari: Aitor Aizkorbe goizuetarra zazpigarren eta Beñat Saralegi lesakarra zortzigarren.



Otxoteko garaile eta Lujanbio bigarren, Oiartzungo podiumean. OARSALDEKO HITZA

58 gidarik parte hartu dute Ibardingo VIII. Igoeran

Beñat Poblacion eta Arkaitz Ordoki izan ziren txapeldunak, Turismoen eta Monoplazen kategorietan

AINHOA LARRETXEIA BERA

Ekainaren egin zuten Beran Ibardingo Igoeraren VIII. edizioa. Bortziritako Ziharka Sport automobilismo taldeak antolatu zuen proba, eta azken edizioetan bezala, arrakastatsua izan zen. 58 pilotuk hartu zuten parte proban, eta horietako 46k bukatu zuten. Ilunabarrean sari banaketa egin zuten eta gero afaria.

Turismoetan Beñat Poblacion izan zen garaile Lotus Exige autoarekin; bigarren Joseba Beola izan zen Peugeot 208 Rally4 autoarekin eta hirugarren postuan Bruno Scherer sailkatu zen Porsche 911 GT3 autoarekin.

Monoplazetan, aldiz, Arkaitz Ordoki izan zen irabazlea Nova NP-03 autoarekin, bigarren lekua Aitor Mansorentzat izan zen BRC B49rekin eta hiruga-



Monoplaza bat Ibardingerako bidean.

rena Iñaki Jauregirentzat Speed Car GT 1000 autoarekin.

Horrez gain, maila bakoitze-ko pilotuak ere saritu zituzten. 2. klasean Beñat Poblacion izan zen garaile, 3. klasean David Hernandez, 4. klasean Gaizka Zabala, 5. klasean Hodei Unsiñon beratarra, 6. klasean Joseba Beola, 7. klasean Andoni Lazkanotegi beratarra, 8. klasean Joxean Garcia, 9. klasean Aitor Manso eta 10. klasean Arkaitz Ordoki.



UTZITAKOA

Etxebeste eta Urrutia Etxauriko harriekin

Etxauriko Harriak proba egin zuten ekainaren 16an. Estefania Etxebeste iturendarrak 19 aldiz altxatu zuen 68 kiloko Lurgorria harria (hirugarren izan zen). Josetxo Urrutia leitzarrek, aldiz, ezin izan zuen 136,5 kiloko Etxauriko harria altxatu. Karmele Gisasola eta Sergio Mielgo nagusitu ziren.



Agoitzen jokaturako finalerako pilotariak, sariak banatu ondotik. UTZITAKOA

Nafarroako Kirol Jokoetan lehen mailako zenbait txapel eskualdera ekarri dituzte

Nafarroako Kirol Jokoetako lehen mailako eskuz binakako pilota txapelketako hirugarren faseko finalak jokatu zituzten ekainaren 15ean Agoitzen.

Benjamin mailan, Umore Onako Oinatz Goizuetak eta Joan Olaizolak 2-1 irabazi zieten Abaxitabideako Amorenari eta Narvaezi (8-10, 10-4 eta 5-4). Alebin mailan, Lesakako Arkupe elkarteko Jerai Bazterrika igantziarrak eta Oihan Muñoz lesakarrak 18-9 irabazi zieten Baztango Txarutako Muñoz eta Rekalderi.

Kadete mailan, Aurrerako Esain eta Santestebanek 22-19

irabazi zieten Leitzako Aurrerako Baleztenari eta Alkortari.

Jubeniletan, eskualdeko pilotaririk gabe, San Francisco Javier taldeko Zabaletak eta Garridok 22-6 irabazi zieten Oberenako Crespori eta Gelbentzuri.

Aipatzekoa da bigarren mailako finalak ere jokatu zituztela ekainaren 15ean Altsasun. Eskualdeko bikote bakarra ailegatu zen finalera eta txapela janztea lortu zuen gainera. Jubenil mailan, Aurrerako Arregik eta Garateak 22-16 irabazi zieten Erasoko Albizu eta Saenzi.



UTZITAKOA

Uxuri Portu txapeldun Espainiako kopan

Aitzineko lau probak bezala, ekainaren 15ean Guadalix de la Sierran jokaturakoa ere irabazi zuen Uxuri Portu lesakarrak eta Espainiako trial kopa irabazi du 9 eta 12 urte arteko nesken kategorian. Hilaren 30ean Espainiako txapelketan parte hartuko du, Xabier Valverde taldekidearekin batera.

«Arras saltseroa nintzen, arriskutsua dirua jokatzeko zutenendako»

ELIAS PIEROLA ETXEBARRI ALMANDOZKO PILOTARI OHIA

Hemeretzi urtez esku pilotan profesionaletan ibili zen Almandozko pilotari handia eta bertze horrenbertze pasatu zituen afizionatueta. Berriki, 80 urterekin, bi omenaldi egin dizkiote

G. PIKABEA ALMANDOZ

Aspaldi utzi zituen Elias Pierola Etxebarrik (Almandoz, 1944) sorterrria eta Jauregia sortetxea. «Aspalditik Donostian bizi naiz, igual baditut 60 urte». Baina haurtzaroko oroitzapenak Almandozen ditu iltzatuak, bereziki frontoiaren bueltan: «Etxea frontoiaren ondoan genuen, eta orduak pasatzen genituen pilotan». Hantxe hasiz lehenbiziko pilotakadak ematen. Tiki-ttikatik erakutsi zuen pilotan jokatzeko abilitate berezia eta halaxe nabarmendu zen gerora. Garai hartako edozein pilotazalek azpimarratuko ditu bere gaitasunak: Eskuinarekin zein ezkerrarekin jokatze abilitate handia, aurrelari bizia, bi paretak efektuarekin... *El genial* izengoitia ere hartu zuen orduko prentsaren. 80 urte bete berritan, bi omenaldi egin dizkiote aurten. Lehenbizikoa maiatzaren izan zen; pilotako lagun ohiek omenatu zuten. Bigarrena ekainean; Pilotarien Batzarrak [pilotarien eta pilotazaleen elkarte] omenatu du. Bere ibilbideaz aritu da Pierola II.a TTIPI-TTAPAREKIN.

Nolako haurtzaroa duzu gogoan?

Frontoiaren ondoan bizi ginen eta beti frontoian egoten ginen. Futbolearen eta bizikletaren ere ibiltzen ginen, baina pilotan ordu aunitz pasatzen genituen. Garai hartan ez genuen ez telebistarik, ez mobilirik eta ez halako deus izaten, eta pilotan aritzen ginen.

Nolatan pilotari profesional?

Afizionatueta Nafarroako Pilota Federazioarekin ibiltzen nintzen, torneoetan eta herriz herri. Egunkarietan ere agertzen ginen, eta halako batean enpresaren deia etorri zen.

1965ean Empresas Unidas enpresarekin debutatu zenuen. Orduko zer oroitzapen dituzu?

Urretxun izan zen, Santa Luzia egunean, baina hortik aparte, lehenbiziko partida hartaz ez

naiz oroitzen. Herriko eta Iruñea aldeko jendea partida ikustera joan zen, eta geroztik zer tanto egin nituen oroitarazi izan didate, baina nik ez dut gogoan. **1975ean Eskulari enpresak fitxatu zintuen eta 1978an Maiz II. arekin binakako txapela irabazi zenuen. Aitzinetik garaipen gehiagorik lortu zenituen: 1977an eta 1978an San Fermin Torneoa irabazi eta Logroñoko San Mateo ferian au-**



Maiz II.ak eta Pierola II.ak 1978an binakako txapela jantzi zuten.



Ezkerretik hasita, Lajos, Bengoetxea, Pierola, Lazkano eta Arretxe.

rrelaririk hoberena izendatu, 1962an Munduko Txapelketan parte hartu...

Bai, baditut txapel eta trofeo aunitz, batzuk profesionaletan ateratakoak, baina bertze aunitz gerora afizionatueta irabaziak. Pilota profesionala utzi nuelarik, afizionatueta paleta goman, palan, trinketea, bortz kirola... segitu nuen, eta Juan Jose Txoperena eta biok elkarrekin aunitzetan irabazi genuen. Kontrarioak beti gazteagoak izaten ziren, gu baino hobeak, baina potentzia pazientziaren kontra izaten zen eta gehienetan irabazten genuen. Noiz erretiratu ginen galdetzen ziguten.

Lesioak izaten zenituen?

Behin, Orejaren kontra ari nintzelarik, Eibarren, irrastu eta besoa paretaren kontra jo eta klavikula bitokitatik hautsi nuen. Bertze aldi batean, Leringo frontoiaren inaugurazioan, Lajos pilotariak pilotakada bat eman zidan belarri ondoan. Gainerakoan, eskuetatik gaizki ibiltzen nintzen. Horren kontra denetarik probatu nuen: takoak oinetakoan plantillekin, karakolekin enplastua, izainak edo xintximariak paratu... 26-27 urterekin bilatu nuen erremerdia: bi behatz lotzen hasi nintzen eta akabo nire mina.

Pilotan *El genial* izengoitia paratu zizuten. Zure zein ezaugarri nabarmenduko zenuke?

Belarra kazetariak paratu zidan izengoitia. Ezkerrarekin eta eskuinarekin egindako nire bi paretak nabarmentzen zituzten. Kontrarioaren abiadura probetuz, efektuarekin egiten nituen. Nahiko saltseroa nintzen, onerako eta txarrerako, eta hortaz, dirua jokatzeko zutenendako arrunt arriskutsua. Ez zitzaidan batere gustatzen dirua jokatzeko zutela ikustea. Horrek presio gehiago sortzen zigun, eta ni disfrutatzeraz ateratzen nintzen. Niretako edozein kirola inportanteena disfrutatzea da, bertzeak, ez duzu ongi jokatzeko.

Hemeretzi urteren ondotik, 1984an utzi zenuen pilota profesionala...

Bai, 41 urterekin erretiratu nintzen. Profesionala iritzeko zahartua nintzen eta uztea era-

baki nuen. Halere, ez nuen pilota alde batera utzi, afizio handia nuen, gustura aritzen nintzen eta afizionatuetan segitzea erabaki nuen. 60 bat urtera arte segitu nuen, belau-nak aski erran zidan arte.

Txapelketa ofizialetan material hautatzaile ere ibili zinen, ez?

Bai, baina urte bat egin izanen nuen. Aspertu nintzen, ez zen kexa bertzerik izaten.

Gaur egun, zer harreman duzu pilotarekin?

Telebistaz partida guziak ikusten ditut, baina frontoietara ez naiz agertzen.

Zure garaitik jokoa aldatu da?

Bai, jokoa diferentea da. Oraingo pilotak biziagoak dira eta fiteago jokatzen dute. Saketik tanto aunitz egiten dituzte.

Eta frontoietako giroa aldatu da?

Partida jokatuko duen pilotariaren arabera izaten da, hori ez da aldatu.

Zure kasuan, pilotazaleen aldetik maitatua sentitu zinen?

Orokorrean bai. Iruñean arras maitatua sentitu nintzen, eta Logroñon eta Eibarren ere bai. Oraindik ere karrikan geldiarazi eta halako eta honelako tantoak egiten nituela erraten didate. Ni, berriz, ez naiz oroitzen.

Pilota egoera onean ikusten duzu?

Bai, bai. Badira gazteak arras onak. Atletak dira, ongi prestatuak, bai fisikoki, bai teknikoki.

Pilotak etorkizuna izanen du?

Bai, etorkizun ona. Oraino jende aunitz joaten da frontoietara, eta ez esku pilota ikustera bakarrik. Pilotako berteze modalitateetan ere jendea ibiltzen da, emakumezkoen eta gizonzkoen partidetan.

Pilotari jairo edo egin egiten da?

Bietatik. Nire denboran, Almandozen baginen borts edo sei ongi aritzen ginenak. Baina gerra ondoko denbora zen, gosea izaten zen eta aunitz Frantziara mendira joan ziren. Gu nahiko ongi bizi ginen, etxean bi soldata izaten genituen: ama josten aritzen zen eta *atta* kamineroa zen. Pilotan segitzeko eta ikasteko aukera izan nuen. Oronozen Batxilergo ikasketak egin nituen, eta gero, merkata-



Elias Pierola almandoztarra aspalditik Donostian bizi da. UTZITAKO ARGAZKIA

ritza ikasi nuen fraide batekin. Frantses pixka bat ere ikasi nuen. **Zahorizena nondik heldu zaizu?** Ama zenarengandik. Anaia Nafarroako Diputazioarendako *zahori* aritzen zen, lurrazpian

zeuden urputzuak bilatzea zuen ofizio. Ni, berriz, Kutxan aritzen nintzen, bankuan. Noiz edo noiz *zahori* aritu nintzen, eta oroitzen naiz, anaiarekin Iruñera joan eta Copeleche esne lan-

tegia egin aitzinetik ura non zegoen markatu genuela, eta horri esker fabrika egin zutela. Ordainetan, kamioneta batean Errioxako ardoa ekarri ziguten. Lekarozko fraide batek *zahori* izateko ona nintzela ere erran zidan. Baina dena ezin zen, eta pilota aukeratu nuen. Gainera, ur putzuak bilatzen arituz, pilotan jokatzeo nerbiorik gabe gelditzen nintzen, arras nekatua. **Zer moduz moldatu zinen lana eta pilota uztartzeko?**

60 urtera arte ibili nintzen Kutxan. Aunitzetan lanetik atera eta presaka partiduak jokatze- ra joaten nintzen. Adibidez, Tolosan, astelehenetan izaten ziren partiduak eta Kutxatik aterata joaten nintzen.

Gaur egun zer martxa duzu?

Paseatzera joaten naiz, telebistan kirolak ikusten ditut eta bilobarekin egoten naiz.

Bi omenaldi egin dizkizute aurten...

80 urterekin ez dakit behar nituen, profesionaletatik erretiratu nintzelarik ere egin zizkidaten Anoetan eta Almandozen... Maiatzean pilotako lagun ohiek egin zidaten Hondarribian eta arras giro polita izan genuen. Eta ekainaren 16an Durangon Pilotarien Batzarra elkarteak omendu ninduen. Polita eta hunkigarria izan zen, eta gustura sentitu nintzen.

Labur-labur

- **Aurrelaririk gustukoena?** Aunitz... Aukeratzan hasita, lehengoak Retegi II.a eta Ogeta eta oraingoak Altuna eta Laso.
- **Atzelari bat?** Lajos.
- **Frontoi bat?** Dudarik gabe, Labrit.
- **Almandozko txokorik gustukoena?** Frontoia eta Benito Etxea lehenagoko ostatua. Bi horietan izaten zen mugimendua.
- **Donostiako txokorik gustukoena?** Gaur egun, etxea.
- **Almandozko mendiak edo Donostiako hondartza?** Almandozko mendiak. Garai batean mendira lasterka joanez entrenatzen nintzen. Gaur egun, hondartza parean bizi naiz baina sobran dut.
- **Lehengo pilota edo oraingoa duzu nahiago?** Oraingoa. Gustura egoten naiz pilota partidak ikusten.
- **Pilotan, apustuak bai edo ez?** Ez. Ez naiz batere apustuen aldekoa.
- **Pilota ez den kirol bat aukeratu beharko bazenu?** Txirrindularitza. Bizikletan ibiltzea betitik gustatu zait. Lehen, bizikleta hartuta Belatera joaten nintzen. Gaur egun, txirrindularitza proba guziak telebistaz ikusten ditut eta futbola ere ikusten dut, Realzalea naiz. Futbola jokatzeo, ordea, kirol zikina iruditzen zait, ostikoak eta kolpeak, denek belauetik beheiti izorratuak akitzen dute.
- **Zer gomendio emanen zenieke gaur egungo pilotariei?** Horrela segitzeko, zer erranen diet ba!

AGENDA

EKAINAK 27 - UZTAILAK 11

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



LEITZA Gorritzarango Eguna

Meza, herri kirolak, bazkaria, dantzaldia, mus eta txintxurrin txapelketak, zozketa eta txokolate jana. Ekainaren 30ean. Xehetasun gehiago 42. orrialdean.

ERAKUSKETAK

ZUGARRAMURDI

'Sorginak - Akelarre ilustratua'

30 emaztekik egindako koadroz osatua.

Muga Gabe jatetxean.

Xehetasunak 52. or.

BERTIZ

'Basati'

Maria Jimenez Moreno artistaren eskutik.

Lorategi historiko-artistikoan, uztailaren 1etik abuztuaren

31ra. Xehetasunak 38. or.

ELIZONDO

Enara Beorlegi eta June Azpirozen arte erakusketa

Arte birziklatua, teknika mistoak eta ilustrazio digitalak.

Arizkunenean, uztailaren 6ra arte. Astelehenetik ortzegunera 17:00etatik 20:00etara eta ortzirale eta larunbatetan 12:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara

AZOKAK

LESAKA

Merkatu Ttikia

Behoko plazan, ekainaren 29an, 10:00etatik aitzinera.

ELIZONDO

Baztango Artisauak eta Zaporeak

Plazan, ekainaren 29an eta uztailaren 6an, 10:00etatik 14:00etara.

SOLASALDIAK

LESAKA

Haur eta gazteen transexualitatea

Naizen elkartearen eskutik. Udal Pleno Aretoan, ekainaren 26an, 18:00etan.

BERA

'Ongi etorri Euskal Errepublikara!'

Unai Apaolazaren eskutik. Kultur etxean, ekainaren 27an, 19:00etan.

'Sucesos entorno a Larhun en 1924 y 1925'

Fernando Mikelarenaren eskutik. Beralandetan, ekainaren 29an, 18:00etan.

TAILERRAK

LESAKA

'Krask!'

Izaskun Mujikaren eskutik. Liburutegian, ekainaren 27an, 11:00etan.

IKUSKIZUNAK

SENPERE

'Le Songe d'une nuit d'été' balleta

Jennifer eta Dennis Cala Valdesen eskutik. Larrekon, ekainaren 28an, 20:30ean. Sartzeta 18 eurotan.

JARDUNALDIAK

LEITZA

Gorritzarango Eguna

Ekainaren 30ean. Xehetasun gehiago 42. or.

«Egunerokoaren bertze irakurketa bat eskaintzen saiatzen naiz olerkietan»

RAKEL PARDO PEREZ URDAZUBIKO OLERKARIA



Bizilekua Azpilkuetan duen 28 urteko urdazubiarra da Rakel Pardo Perez. «Zaletasun aunitz» dituela dio, «baina nagusiak irakurketa eta idazketa dira». Horri tiraka, bakarrik idatzitako lehen lana argitaratu berri du: *Egurats zabaletako izendaezinak* poesia liburua.

Poesiaren magiaz jabetzen

Ttikitatik izan du idazteko nahia; «olerkiak idazten hasi nintzenez ez nekien poesia izan nahi zuen zerbait sortzen ari nintzela, bilatu gabe ateratzen zen. Ama abeslari bikaina da eta haurrak ginearirik, afalondoan, gitarra hartu eta *Let it be* kantatzea eskatzen genion anaiak eta biok».

«Musikaren magia» ikusita, «nire letrak idazten hasi

nintzen eta, nolabait, letra horiek markatu zuten bidea». Gerora, «idatziz eta irakurritz, poesiaren magiaz jabetu nintzen».

Ongi idazteko, ezinbertzekoa da lehenik irakurtzea, eta markatu duten autore ugari dituela aitortu du. «Zerrenda sobera luzea izan daiteke, baina horietatik beti hurbil dudana bat Edmond Jabès da, eta bere esaldi hau: *Agian pentsamenduaren isiltasuna isiltasunaren pentsamendua da. Gogamenak ez du gogamena pentsatze-ko ahalmenik*».

«MARKATU NAUTEN AUTOREEN ZERRENDA LUZEA DA»

Azaldu duenez, olerkietan «egunerokoaren bertze irakurketa bat eskaintzen saiatzen naiz. Entzuten, ikusten, bizitzen edo irakurtzen dudana horren azpian zer dagoen behatu, eta bilaketaz marraztuta dagoen begirada bat landu ohi dut».

Hizkuntza ez da muga horretarako; «euskara eta gaztelania dira nire ama hizkuntzak, eta bietan naturaltasunez idatzi eta irakurri ohi dut. Frantsesez ere irakurtzen dut».

Lanaren emaitza

Egurats zabaletako izendaezinak da Pardoren bakarkako lehen liburua, Maiatz argitaletxearekin publikatua. «Argitaletxe koordinazailea den Lucien Etxezaharreta nire poemak Maiatz aldizkarian sartzen hasi zen, eta liburu bat idazteko eskaintza luzatu zidan». Hala ere, «orain arte ez nuen horretarako momentu egokia zenik sentitu». Momentu hori joan den urtean agertu zen, «eta orduantxe hasi ginen elkarlanean».

Azaldu duenez, «hasierako erabakitik liburua atera den arte, urte bateko prozesua izan da. Tartean, ordu-rako sortuak zeuden poema bakoitzean murgilduta emandako denbora».

Prozesu hori «atentzioan hasten da, adi egotean. Iku-sezina dena hautematea beharrezko baldintza da; batzuetan ideiak ageri dira, bertzeetan olerkiaren zati bat, gogoeta bat, hitz bat... Kaier batean idazten ditudanak berreskuratzen ditut

«NORBERAREN ZENTZUA ELIKATZEA DA LANAREN XEDEA»

idazmahaiian, eta ondotik moldatze lana dator, hitz bakoitzaren baitan ageri direnak ezagutzaren bitartekari bihurtzeko lana».

«Barnearen eta kanpoaren arteko elkarriketa etengabea» da lana, «batak bertzea elikatzen du, eta harreman honetan benetako edukia sortzen dela erranen nuke».

Izan ere, «hausnarketarako espazio bat» sortu nahi izan du liburuan, «irakurleak bere giza baldintzaren kontzientzia hartu eta bilaketa ariketa bat egin dezan. Hasieran ezinegon sentimendu bat sortzen den arren, hori abiapuntutzat hartuta, norberaren zentzua elikatzea da liburu honen xedea».

Lanaren izenburua «kaieran idatzia nuen olerki simple bat zen, edo hala uste nuen. Aunitzetan itzultzen nintzen hitz horietara, eta olerki bezala osotasun bat zuela ondorioztatzen nuen beti». Hori dela eta, liburua ideia berrartzean, «hasierako momentutik izenburua izanena zela sentitu nuen, eta hala mantendu zen denborarekin. Beraz, bada izenburu bat, baina baita olerki bat ere».

Emaitzarekin «arras kontent» gelditu da, «baina prozesuarekin are eta gehiago. Argitaletxe ttikiak izateaz gain, lagunartean egonik, etxean bezala sentitu naiz».

Etorkizunera begira

«Maiatz bezalako argitaletxe ttikiek kulturaren duten eragina» azpimarratu nahi izan du, «gizarteari eskaintzen dioten aniztasuna arras garrantzitsua dela uste baitut. Eta haiei eskerrak, bihotzez».

«Liburua askatuta, orain bere bidea egin dezala». Horrelaxe ikusten du etorkizuna Pardok. «Nik, bitartean, irakurtzen eta idazten segituko dut».


URTEBETETZEAK



Urdazubi-ltsasuko **Oihan Etchart Ibarrek** 7 urte bete ditu ekainaren 13an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik. Muxuak.



Erdi Igantzikoa eta erdi Sunbillakoa den **Iraitz Arrieta Urtzegik** 4 urte beteko ditu uztailaren 3an. Zorionak eta muxu erraldoi bat atxa, ama eta batez ere Anartz anaiaren partez.



Zorionak **Uxue Bikondo** eta **Julen Sarratea!** 17 eta 10 urte beteko dituzue! Arras ongi pasatu zuen egunean. Muxu erraldoia familiaren partetik, eta bereziki Aritz, Oinatz, Aroa eta Adeiren partetik.



Xabier Ugaldede Fagoagak bortz urte beteko ditu ekainaren 29an. Aunitz urtez eta bortz muxu potolo Arantzako eta Azpeitiko familien partez.

KONTATU KONTUAK



BAZTAN-BIDASOKO PENSIODUNEN MUGIMENDUA

Pentsiodunak lñaki Gogortza gogoan. Ikasturteko azken elkarretaratzea ekainaren 17an Beran egin zuten Baztan-Bidasoko pentsiodunek eta 35 lagun bildu ziren. Azken urteotako aldarrikapenak aipatu zituzten, baina ez zuten adierazpenik leitu. Maiatzaren 30ean hil zen lñaki Gogortza oroitu nahi izan zuten, hark egindako guzia «aitortu eta eskertu»: «Eskerrik asko lñaki, emandako guziagatik».



FELIX LOIARTE

Aralar musika eskolako ikasleen emanaldia Goizuetan. Goizuetako udaletxeko karrapea musika doinu goxoz bete zuten ekainaren 14an. Aralar musika eskolako ikasleek emanaldia egin zuten, ikasitakoa jendaurrean erakutsiz. Bateria, gitarra, pianoa, trikitixa eta panderoa, zeharkako xirula... jo zituzten eta kantuan ere aritu ziren. Bistan dago Goizuetan musikaririk ez da falta!



NAIARA AIZPURU

Bakarrizketa umoretsua Donamarian. Umoreari tokia eginez, *Bihotz, bi hots, bi txotx!* bakarrizketa izan zuten ekainaren 15ean, Donamariako Herriko Ostatuko terrazan. Garawi Cejota (Garazi San Martín Boj) aktoreak maitasun erromantikoari kritika sakona egin zion eta horren harira, hainbat gai aipatu zituen: polimaitasuna, espazioen gestioa, mugak, sare sozialak...

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea
www.kulturkari.com

WEB orriak

Landetxeak Komertzioak Gremioak...

Ordenagailu, tablet eta mugikorretara egokitua

Kontaktu formularioa

Lokalizazio-mapa

Testu eta argazki galeria

Hizkuntzak aukeran

ZERBITZUAK

HILBERRIAK

- **Javiera Etxeberria Irigoien**, Leitzakoa, ekainaren 5ean, 67 urte zituela.
- **Juan Bautista Urkiola Zestau**, Leitzakoa, ekainaren 5ean, 71 urte zituela.
- **Jose Antonio Bergara Sanzberro**, Arraiozen, ekainaren 7an, 75 urte zituela.
- **Karmentxu Lopez Irigoien**, Erratzukoa, ekainaren 8an, 93 urte zituela.
- **Vicente Kortea Goienetxe**, Elizondokoa, ekainaren 9an, 91 urte zituela.
- **Jesus Gomez Irazoki**, Elizondokoa, ekainaren 9an, 99 urte zituela.
- **Patxi Perugarria Arretxea**, Berakoa, ekainaren 13an, 77 urte zituela.
- **Miguel Ballarena Arraztoa**, Elizondokoa, ekainaren 13an, 87 urte zituela.
- **Jose Joaquin Oronoz Zabaleta**, Leitzakoa, ekainaren 13an, 78 urte zituela.
- **Primitivo Zubeldia Turumbay**, Igantzikoa, ekainaren 14an, 90 urte zituela.
- **Miguel Telletxea Elizondo**, Igantzikoa, ekainaren 16an, 96 urte zituela.



MÁRMOLES AMEZTI
Desde 1994

SUKALDEKO ETA KOMUNEKO ENTZIMERAK EGITEN DITUGU

info@marmolesamezti.com • www.marmolesamezti.com

Iruñea Irun errepidea, z/g. **ORONoz-MUGAIRI** T. (+34) 948 592 325
F. (+34) 948 592 295



KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea
www.kulturkari.com
Tel. 948 63 54 58

Oroigarriak

- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira



OROIGARRIA

Joxe Mari OTXANDORENA JUANKORENA

Arraiozen, 2024ko maiatzaren 17an

*Beti umoretsu, beti alai
ibili zara ingurukoekin,
uso eta basurde atzetik
konten zure zakurrekin.
Zure adiorik gabeko agurrak
gure irribarra du itzali,
bihotzez maite zaitugu, hortaz,
betiko gure oromenean Joxe Mari.
Ez adiorik, gero arte baizik.*



ZURE FAMILIA

IRACHE

tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

Gure lurra,
gure jendea,
gure sustraiak

TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

Baztan Bidasoa | Ehorzketak 


BAZTAN ELIZONDO · Santiago Kalea, 79
MALERREKA · DONEZTEBE
Mourgues etorbidea, 24

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere.

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com


Betiko taldea zu laguntzeko

HITZ GEZIDUNAK

	◆ Izena	Sagarroiak, kirikinoak	Lizarrako ibaija	Seguru	Izugarría
	Emaztegalak	Erreplikatuz, ikara	Jariatkin oso mehe	Pl., asteko Z. aguna	Non atzizkia
	Ahalmena				
	Funts				
Basak	Prezio apaleko			Tropelaren hasieran	Kontso- nantea
Zuhaitz mota	Gisu labea			Daude	50
		Txerri			Musika nota
		Ekintza gaitzesgarri			Haragi lehortua
Yankien osaba		Bokal erreplikatua	Joan den urtean		Kontso- nantea
◆ Deitura		Bizkalko udalerria	Lorratza		Sodioa
Harrapa ezak!		Abxi	Biltzar, bilkura		
Gora!	Jardun		Hotz, hitz elkartetan		
		Etzateko altzaria		Omen	Kontso- nantea
		Bokala		Bokalik gabeko gozoa	550
Itxura, tankera			Kotozikoko ehun		
Gauza, material			Lehenengo letra		
		Azkazala			

◆ Gure lurraldeko kantuzalea, eratsundarra

GOITIBEHERA



Goiti eta beheñi letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Zuhaitz mota. [2] Berako auzoa. [3] Zenbait pertsona ezkutatzea, beste bati edo zenbaiti ustekabeen erasotzeko. [4] Jarraitzailea. [5] Zaltokia. [6] Bihi, garau. [7] Gurpilik gabeko orga. [8] Abereak bazkatzen diren belardi. [9] Ilara, errenkada. [10] Modu horretan. [11] Idorrak, sikuak.

ERANTZUNAK




PLAZAN BAZAN

KONTA

ZORIONAK!
EILA LARRALDE AROTZENA

856. aldizkariko irabazlea zara!



Zertarako erabiltzen dituzu eskuko hatzak? Gitarra jotzeko? Muki lehorrak ateratzeko? Bada, batzuek ipuintxoak asmatzeko ere baliatzen dituzte. Hatz bakoitzean pertsonaia bana marrazkitu, eta istorioak kontatzen hasten dira. Hemen esku baten ertza dago. Hiru pertsonaia ditu: Txirrita bertsolaria, Altzoko Handia eta Margarita Nafarroako azken-aurreko erregina. Egin itzazu zure gustukoak.

Pertsonaiez gainera, marraztu eskumuturreko bat, eraztun polit bat eta ia esku osoa beteko duen tatuaje bat.

Marrakziak: Garbiñe Ubeda (Aizurr)

**Plazan bazan egiteak
BADU SARIA!**

Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin,
Ttapi-Ttapano Whatsapera: (0034) 744 48 43 61
zure izen-abizenak jarrita.
Ondoan duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu!



Laguntzailea:

ibaizabal

PAREAK

Hatz aztarnak gizaki bakoitzaren ezaugarri behinenak omen dira: nork bereak ditu eta ez omen daude bi berdin. Baina hemen hatz aztarna guztiak bi aldiz ageri dira, bat izan ezin. Zein da?



HAMAHIRU

Hauk bai zortea! Seina beso, aizuel! Eta den-dena eskura, ezta? Aurki itzazu bi Shiva hauen artean dauden 13 aldeak.



INTERNETEN ERE BAI!

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

<http://plazanbazan.eus/>

Ttipi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61 ☎
info@ttipi.eus | erran.eus
www.ttipi.eus/ttipi-txartela

856 zenbakiko irabazleak >



ZOZKETAK

- Donostiako Aquariuma - Bi sarrera**
Octavio Goñi Arraztio | DONAMARIA
- Onddo ta punto - Kamiseta bat**
Lourdes Mutuberria Pikabea | ARANTZA
- Hara bi- Kamiseta bat**
Jabier Juanena Ariztegi | ZUGARRAMURDI
- BKZ Abentura - Sarrera bat**
Axun Arozena Larralde | LESAKA
- Salting Iruñea - Bi sarrera**
Maddi Goñi Agirre | OROÑOZ
- La Rhune - Sarrera bat**
M^a Luisa Arretxea Sagardia | SUNBILLA
- Barrutia 12 - Lote bat**
Dominika Arburua Maritorea | AZPILKUETA
- Anikote - Sarrera bikoitza igerilekurako**
Mamen Olano Zabaleta | LEITZA
- Elkar - Hiru liburu**
Vicente Taberna Irazoki | IRUÑEA

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

Bi sarrera

BUATXABAL
www.buatxabal.com

Kamiseta bat

EZKEXA
www.ezkexa.com

Kamiseta bat

IRRISARRI LAND
www.irrisarriland.com

Sarrera bat

OKILLE TAILERRA
okilletailerra.blogspot.com

Eguzkilore bat

WOW PARK
www.wowpark.fr

Sarrera bat

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com

Sarrera bat

ELIZONDO
www.giltxaurdi.eus

Bi sarrera

Sartu

ttipi.eus/ttipi-txartela
webgunean eta ikusi
abantaila guztiak!

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ELKARRIZKETAK
LAGUNTZAILEAK
ARGITALETXEAK



Aprobetxa itzazu Ttipi Txartelak eskaintzen dizkizun abantailak, Ttipi Txartela onartzen duten denda eta zerbitzuetan erosiz.

MUSIKA

Hiru CD



Deskontuak eta zozketa: Ttipi-Ttapa aldizkari guztietan Ttipi Txartelaren informazioa argitaratzen da, zozketak eskainiz eta aukeran dituzun deskontuak oroitaraziz!

baga-bisa
MUSIKA IDEIAK
www.baga-biga.eus